



**FABLEAK EDO ALEGIAK
LAFONTENENETARIK BEREXIZ
HARTUAK**

Iturria: *Fableak edo alegiak Lafontenetarik berexiz hartuak*, Leonce Goyhetché (faksimilea). Hordago, 1978.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/G/GoietxeFableak.htm>

Goietxe

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Autorearen sinadura ez dakharken etsenplario bakho-
txa ez da izanen hataz aithortua.

Hirriz, ongia eta egia Irakbats ez daitezkeia?

AITZIN-SOLHASAK PUBLIKOARI

Duela zenbait denbora erakurtzearekin bi fable multzo, bata Suberotar Yaun batek, bertzea Gipuzkoako Yaun Aphez batek bertsutan publikatuak: ethorri zitzaitan gutizia Laphurdiko hitzkuntzan lan beraren egiteko; ez hek baino hobeki egin beharrez segurki; baina bertzela, eta Laphurdiko mintzoaren arabera. Hala nola ezen, plat bera izan baidaitke hirur kozinerez diferentki aphaindua, eta gisa bakotxak baidituzke bere zaleak eta yaleak: hala orobat liburu berak hirur eskribatzaille direntez landuak eta moldatuak, badituzke publikoan erakurtzaille gustu diferentetakoak. Agian hunek ere baturen ditu bereak.

Batek baino gehiagok galde dezakete: baiña zer da fablea edo alegia? Galde hau naturalena da ezdakienaren ganik. Baiña gauza ez hain errexia esplikatzeo dakienarentzat ere: eta askotan gerthatzen baita gauza bat zenbateaz xchatzenago, eta hanbatenez dela, argitu behar bidean goibeltzenago; beldurrez hori bera dakidan gertha, erranen diotet beraz hobe dutela berek ikhusi; eta aski dutela erakurtzea atenzione eta gustu-ekin ondoan dathorzen fable horiek bururen-buru: eta laster endelgatu-ko dute fableak direla Ebanyelioko parabola edo konparantzen iduriko kondaira labur batzu, karloak fruitua eta azalak mamia bezala, morala edo irakatspen zenbait bere baithan zerratua dakhartenak: eta hau fablegilleak fable bakotxaren ondotik ezartzen ohi du. Baiña hau baiño hoberik bere kaskotik edo bihotzetik erakurleak athera uste badu, zillegi zaio egitea.

Norbaitek baderrake oraino: baiña fableak gauza ariñak, ergelak eta ilhaunak dire; haurrendako baizen on ez dire. Bada gauza bera da erraite ohi karamelu eta konfiturez ere, haurrentzatekoak dire. hargatik ikhusten ohi da presuna handituak ere hetaz zale direla eta yale. ez othe



dute ere haurrek baiño hainitz gehiago iretsten? Gauza bera adit en da erraten zoriz kateximaz ere; haurrendako dela, handiak badoazkela hura gabe. Enganio triste! Ezen nahi katexima haur-danik den irakhasten, orduan delakotz izpiritua egiteko eta enbrazu guzietarik huts, eta kateximako dotrina baitezpadakoa: bizkitartean ez zaie erakhasten haur direlakotz, baina handitu eta, orduan ikhasi legea baliatu behar zaiotelakotz bere bizitzaren erregelatzeko. Bada fableak ere haurrer zaizkote irakhasten, ez hekientzat baizik on ezti-relakotz: ezen hek ikhasten dituzte lorietan eta kondatzen, baiña perroketaren pare, mamiaz edo moralaz kasu guti egiten dutelarik. Handiek aldiz erakurtzen dituzte zentzuzki, eta hirriz daudela iretsten dute irakhaspen on zenbait, bizitzeko helantza askotan balia dakioketena huts zenbait ebizatzeko edo berthute zenbait praktikatzeko. Hala egin behar lukete segurik. eta hori da edo izan behar da fablegille eta inprimatzaileen xedea. Eta Lafontenen fableez bezanbatean, baderraket hemen; oradorek bere diskursetan, eskribatzailek bere liburuetan eta edozein yende yakinek noiznahi hitzketa edo konbertsazioneetan badakharztelea hetarik hartu asko tretu eta bertsu, erraten edo eskribatzen dutenaren sustengu edo edergaillu bezala. Eztire beraz fableak gauza illhaun eta funtsgabeak: ezture funtsgabe, funtsgabe eta fuñez arin direnentzat baizik. Bertzelakoek badakite hirri egiten; eta hirriz daudelarik, bere ona eta abantailla hetarik atheratzen.

Fiñean, ez othe da han edo hemen zenbait izpiritu hertsu edo mihi laster derrakenik: fableak, fableak! zer suiet edo materia Aphez baten kaskoaren eta astien okupatzeko! Ez othe zuen bada bere estatu sainduan okupamendu serio eta solidoagorik? holako lan ergeletan dabillan Aphez baten kaskoa, hum! solidoa othe da hanbat eta berthutea segura?

Oh! emeki, emeki, othoi, anaia edo arreba! Aithorduko daut bada hasteko lainoki, nerenaz karatera aski alegera dudala; eta eforta guti egin izatu dudala ere hortarik korreyitzeko: Ez daukat ezen hori biziotzat hala nola urguillua, kolera, etc. Bainan erranen dut halahala sobretan hortan ere iragaitetik begiratzera egiñ izatu dudala; eta hori aski dadukadala: eta zuk ere gauza bera egiten baduzu, ederki eginen duzula. Erranen dautzut eztela izatu nihoiz nihon legerik, komentu zenbaitetan ezpada, hirri egitea eta eragitea, eta alegeratzea debekatu dukenik, oneski eta modeski egiten delarik. Erranen derautzut, saindu iragan gehienak alai eta arrai izatu direla; eta batzuek ere, ez saindu ttipenek halere, bere liburutan asko izpiritu kolpe alegera eta hirri eragi-

teko tretu erreñi izan dutela; eta gauza bera egun oro egiten dutela Yaun misionest eta Erretorek ere, bereziki luzesko predikatu behar dutenean, beldurrez unha dakizkoten aditzaleak edo loak gaindi. Erranen derautzut: Yainkoak berak deklaritzen darokula eskribu Sainduetan, debozino alaia eta emaille arraia dituela meneratzen. Bertze non nahi bezala, Aphezetan ere, badire batzu bethi serio eta goibel dabilzanak; hortzik ederrenez ahoa mublatua dutelarik, nihoiz hirritto batez ere argitaratzen ez dituztenak: bertze batzu aldiz, bethi bekhoa arrai, ezpainetan bethi, erran badaite, hirria hasia dabilkatenak, eta hortz guziak zenduak izan arren, dituzten hobi guziak hirriarik frankoenetan iguzkitaritzen dituztenak. Zer bada? lehenbiziko horiek izanen dire oro saindu; eta azkeneko hauk oro diabru? Ez daiteke holarik: eta hortaz segurtha daiteke gorago erranetarik batbedera.

Bertze alde, Lafontenen fabledegian ezdut itsurat eta ahurka hartu, aitzitik ikhisiz, miratuz eta berexiz. Lafontene gaizoak nahastatu ditu bere fabletan asko arinskoak, legartsuak eta izpirituen harrotzera eta bihotzen asaldatzera darontsaketenak: hek utzi ditut bazterrera. Baldin heien bidez eragiñ izan badu hirri asko, segur da azkenean berari isur-arazi izatu diotela nigarra franko.

Baina baderrazu bethi: Aphez batek ezduia eginbide serioagorik bere denbora iragaiteko? Bai duda gabe. Baiña baderrat ausarki ez dabillala bethi hetan, ez dezakela ere. Badae nehor bere estatuko edo ofizioko lanetan pausapen eta erlaxarik gabe haritzen denik? Ez segurki: ez daiteke ere. Badae emarik ere bere killoa edo orratza utzirik hauzora bedere yalgiten ez denik aphur bat hats eta aire hartzera, dakitzanak kondatzera, ezdakitzanak ikhastera, oren bat edo bertze hitzketan iragaitera? Eta oxala inozentki bethi! oxala elhe hek guzietarik norbaiten omen onak galtzen ezbalu zathirik! Baditu beraz Aphezak ere bere pausa orduak, zoinetan okupa baidateke estatuko eginbideez bertze zerbaitetan: eta horlatan, ordu eta asti horietaz baliatuz, bere eginbide hertsier batere bidegabe egin gabe, ephe luze batez bedere, has eta osa dezake hulako obra bat aise.

Ezdaukat beraz holako erantzute edo erreportxurik merezi dudala; eta ene obraren alegeratasunak nere karateraren errespetua deusetan ere guti dezakela, edo hortan traillaatzean, nere estatuko eginbideer deusik ebatsi diotedala.

Baiñan obra bera, lanaren egindura? gramatikako eta neurt-hitze edo bertsuaren erregela guzien arabera moldatua dea? Ezduta puntu horren gaiñean kontzientziako ausiki zenbait sentitzeko? Eta nik bade-



rrat: Bada gramatikarik gure lenguaiaren mintzoa osoki fitsatu due-nik? Ez duia suberotarrak berea? Baxanabartarrak berea? Bizkainoak berea? Gipuzkoarrak berea? Eta guk Laphurtarrek geurea? Eta neurt-hitzen erregela guziez errezipitu eta berdiñ pratikaturik bada? Eta izan ere baditekea? Nik eztut ikhusi holako libururik. Eta iragan poeta edo bertsugillen erakurtzetik ere ez zait gelditu holako pentsamendu-rik. Eztut beraz bilhatu baizen bertsuak egitean izarietan ahalik yus-tuenak, eta buruak ahalik hobekiena parekatuak eta elkhar iduriak; haritu naiz emaitera lenguaiarik klarena, liraiñena eta endelgatzeko errexena; extseiatur sartzera Lafontenen pentsatzeko eta mintzatzeko laiñotasunean: eta badiduritzait hunen tretu ospatuenetarik asko aski urruski itzuli ere ditudala. Ebitatzera haritu naiz frasa modorrotsu eta korapillutsuak leitzalea nekhatzen, khexatzen eta desgustarazten dute-nak: beldur ere banaiz batzuek kausi dezaten fabletako nere mintzoa, sinplegia edo komunegia. Baiña zer egiñ? Egiña egiñ. Bethi atsegin bat da erakurtzen dena aise konprenitzea: hauk ere badukete bere meritua: bedere nik badakit bazutela bere nekhea eta ez xumea. Biz aski hemen pontu horietan nee eskusatzeko: alfer laite gehiago luzatzea.

Zer! Yaun Apheza, ez duzu bada oraiño hitzñobat, azken hitzto bat? haiñ diferenta othe zare bada egundaiñoko aphez guzieta-rik? Ah! publiko estimagarria! erran baniezazu lan hau egitean ez nuela bertze xederik, ez gogoan bertze deusik baizen zuri hirri egiñ araztea, eta azukreztatu pillula zenbait irets-araztea; gezurra erran niro. Desiratzen dautzut beraz obratto hunen erosteko gutiziarik beroena, eta axalaz hirriz zaudelarik, mamiaz probetxatzeko zoriona.

LIBURU LEHENA



BELEA ETA AXERIA

Musde bele zegoen haritz tontorroan,
 Haidorrik zadukala gasna bat mokoan,
 Aldiz axeri Yauna goizdanik yaikia,
 Zebillan non eraiki bere gosaria.
 Usaiñak sudurra yo dioeneko,
 Bele gasna-dunaz ohartu deneko.
 Egun on, Yaun bele, maltxurak diotzo:
 Zoin zure ikhustek gaur demaitan plazer!
 Nere begietan ala, baitzare eder
 Egiaz haiñ eder balitz zure kanta.
 Nola baita zure luma distianta;
 Oihan hautan segur ez laite garabik,
 Abere ez hegaztin, azinda ez xoririk
 Ederrez zurekin iharduk lironik.
 Elhe legun hautaz hazia guzia,
 Senti du beleak kantatu nahia:
 Mokho beltz zabala dueneko ideki,
 Gasna badoako lurrerat itzuri.
 Erne horren beira zagon axeria.
 Segura izaiteko bere ase-aldia,
 Ez balitz belea izatu hain gaizo.
 Axeriak egiñ etzukeien friko.
 Hark urriko bazukeien
 Ziñ ere egin omen zuen
 Bainan ez beratxe baizen.
 Berriz etzutela
 Atzemanen horla.

Oy! zenbat mundu huntan oiñ bitako axeri,
 Bele gaizoen gostuz ohi diren bizi!
 Bethi da lausengaria
 Entzuillen gostuz hazia.

T'IRRITTA ETA XINAURRIA

T'irritta zagon kantari
 Udak zirauciño bethi,
 Zenean negua ethorri
 Bazukeien pentsa zeri.
 Lau ill luze pasatzeko
 Eta deusik ez yateko.
 Ez xixari, em marmotxa;
 Etxea zedukan hutsa;
 Soillaruan ez bihirik,
 Bankan ere ez laborerik:
 Badoa bada hauzora
 Xinaurria aizpa baithara
 Gosetea kantatzera.
 Agur, aizpa, banathorzu;
 Zertan naizen ikhus-azu:
 Nautzun, othoi, urrikari,
 Prest indazu zerbait bihi:
 Hitz dautzut, duda ez zaitela,
 Zuhork badakizu berdiñ,
 Gurekin hitza dela ziñ:
 Bihurtuko dautzudala
 Ethorri deneko uztailla
 Intresekín kapitala.
 Xinaurria baita guti prestatzaille
 Gutiago are emaille:
 Badiotzo t'irrittari:
 Oro zaite elkhar iduri;
 Hartzean handi promesak,
 Nasai ziñak eta hitzak:
 Ondoan ill ephekoa
 Nihoiz ez agertzekoa.
 Karitatezko legea
 Ezta alferrak bazkatzea:
 Nekhez tugunak uztatu
 Nekhez guk utzten ditugu:



Eta zuk uda zenean
 Zertan bada ziñaraman?
 Kantuz nindagoen bethi
 Zathorkidaken nor-nahi;
 Ez bekizu gaitzi hori
 Ay! ay! zure zelebrea!
 Biba horlako umorea!
 Kantuz uda ziñaraman?
 Emazu bada orai dantzan.
 Banoa nere lanera
 Bazoazke kantatzera.

Fabetto hau zertarako?
 Oror irakhasterako,
 Adin gasteen dena alfer eta nagí,
 Zaharreen maiz dela gose eta egarri.
 Eta huzkur dagonak denean lan-bide.
 Badukela ondoan zer yan gabe yan-bide.
 Finean gaizki dena ohitu gaztean,
 Zaharreen bioa zakua soiñean.

GIZONA ETA HERIOA

Gizon bat zathorren behiñ oihanetik,
 Egur-zama batez soiña kargaturik.
 Bazakarren ere denbora berean,
 Urthe askoren karga zama haren pean.
 Oiñ bat oiñ bi nekhez zebillan gaizoa
 Hanketarik flako, ephel paparao;
 Hori zuen harrek ardurako tatsa;
 Bide-erdiarako zaio eskasten hatsa.
 Botatzen du zama haritz baten kontra,
 Errara bera ere doako gaiñera.
 Ah! badaitekeia munduan gizonik
 Ni beziñ malurus denik?
 Naizenaz geroztik munduan agertu,
 Plazerik ez dut dastatu.
 Askotan ez yatekorik.
 Nihoizere ez deskantsurik:
 Emazte eta haurrak nonbaitik hazteko,
 Zergak ere pagatzeko:
 Eta guzien gaiñera
 Hartzeduna eta malobra.
 Hau bizia, dio, hau bizia bada!
 Ez, ez aboro nik eziñ yasana da.
 Athor, herioa athorkit honera,
 Bizi gaitz huntarik nere lextzera.
 Herioa dathor itxura txarrean.
 Bere sega latza daukala soinean:
 Huna ni, erradak zer egin behar den.
 Eta nere-ganik zer eskatzen duken.
 Ah! barkhatu, bada; nahi baninduzu
 Zama hau soiñera goititzen lagundu?

Fable huni darraiona,
 Da segidan dathorrena.
 Urrun deiño herioa,
 Fanfarrun dela gogoa:



Hurbill denean ikhusten:
 Bertzela dela pentsatzen.
 Eta yasateko zer-nahi dukegun;
 Hobe dela bethi Yauna deithu lagun.

IGELA IDIAREN BERDIN EGIN NAHI

Igel bat zegoen behiñ idi bati begira,
 Miretsten baitzuen hagitz hark zuen tailla ederra.
 Hauxe da hau kreatura galant eta yoria!
 Eta arrotzea bezain ni laburraeta ttikia.
 Beha zadazu, aizpa, ongi, naiz entseatu nahi,
 Nolazpait naiteken egiñ abre hau bezaiñ handi.
 Ezen egia errateko yelosiak narama,
 Hetsi ahoa eta hor da hasten pherma eta pherma.
 Han naiz? —Ez oraiñon: orai? —Orai ere ez oraindik:
 Orai hargatik banaite. Urrun zande izaritik:
 Azkenean simple hura hainbertze da phermatzen;
 Non bertan hatsak ithorik baitu leher egiten.

Askok ez dute munduan
 Funts gehiago buruan.
 Laborariak nahi du
 Goldea pluman trukatu:
 Eta utzirik kapelua
 Xapelaz gorde burua.
 Neska lanekoak ere
 Dama aditu nahi luke:
 Bazaio estofa eziña,
 Duken bedere fazoiña
 Artekoak nahi luke
 Gorago dena imitatu;
 Beherean denak ere
 Bedere artekora heldu.
 Horla phermatuz sobera
 Etxeak doaz lezera.
 Baiña zuhur izaiteko
 Batbederak izar bezo,
 Ethorkiari tonua
 Eta boltsari gastua.



BI MULAK

Bi mula zoazen soñez-soiñ bidean,
 Konpai konpañero batasun onean:
 Olo a zaraman bizkarrean batak
 Grabeletikako dirua bertzeak.
 Hunek, kargaz fiertua,
 Gora darama burua,
 Ozen kroskoilen soinua.
 Horla zoazila gutien ustean,
 Etsaia agertzen da bide sahetsean:
 Eta oldartzen zaio mula aberatsari
 Behatu gabe ere zaldare-dunari.
 Hortzez eta ustarkoz kuraie handian,
 Egiten du kontra alegiñ guzian:
 Horla hari dela laster zillatua
 Sistako zenbaitez senti du larrua:
 Badoako ordutik animu guzia;
 Plaiñuz eta orhoaz, badago eroria:
 Hau zen beraz, dio, sari igurikia?
 Badoa, bertze hau oso zen guzia!
 Konpai dio harrek ez duk ez on bethi,
 Ohore eta karguz izaitea handi:
 Ni nauken bezala bahintz hi ere izan,
 Eyharazain baten astoen arrolan;
 Bahuken bidea nik bezala libro
 Ez eta haiñ bertze azalean zilho.

BILDOTSA ETA OTSOA

Arkume bat gan zen ibai batetara,
 Bere egarriaren ur freskoz hilltzera:
 Otso bat ere ibai beraren aldean.
 Hari zen edaten gaiñeko partean.
 Barur-gaitzik khexo zebillan maistroa;
 Nola ere omen baitu yan-xahar gaitztoa,
 Baita bildots mamiz zintzurra frianta
 Laster gaixoari badema disputa.
 Zertan, ergela, yarri haiz ur berean nerekin?
 Hail, dostetak errabill-zkik hire idurikoekin.
 Geldi hadi, zithala, ura zinkintzen dautak niri:
 Bildotsak aldiz ezteki: nondik dalgiket hori?
 Ikhus-erazu nola ura dathorkidan hor gaindi.
 Ago ixilik, hitzuntzia,
 Nahasten daik ur guzia.
 Duela urthe bat apenaz
 Mintzatu haiz gaitzki nitaz.
 —Nondik hori egin nuken?
 Yaioa oraiño ez nintzen.
 —Ez bada hirea obena
 Dukek hire anaiarena.
 —Eztut batere anaiarik;
 Amattok eztu ni baizik.
 —Ez baduk anaiarena,
 Du iragan zenbaitena.
 Hortan gaiñera yauzirik,
 Harturik lepo-zakitik
 Badara oyhan-pera;
 Eta harekiñ gogara
 Hautsten du bere barura.

 Ez pentsa hemen hargatik
 Ez dela nihon otsorik,
 Oyhan zilhoetan baizik.
 Baina giza-artean ere



Ez hain arraro halere;
Handi direnek xumeak,
Eta aberatsek pobreak,
Ez baituzte ere iretsten,
Badituztela lehertzen.
Eta ondiko moda dela
Txarrenak amor demala.

URDEA, AHUNTZA ETA ZIKIROA

Urde bat eta ahuntz bat eta zikiro bat,
Karroz betan zoazen behiñ merkaturat.
Hobeki errateko, bazaramatzaten,
Ezen hek bere oldez naski ziren goanen.
Urde Yauna zioan khexo gehienik,
Ixil hura ez zaiteken kurrinka egitetik,
Bideak ziraueiño musika samiñak,
Larrutuak zeduzkan beharri guziak.
Ez dirau itzaiak, eta erraten dio:
Yauna, zuk zer duzu horla asaldatzeko?
Ixilik zu ere nolaz ez zaudeske,
Bertze bi presuna goxo hauien pare?
Urdeak derra, ez naiz hoi en iduriko,
Bata baita simple, bertzea aldiz gaizo;
Eta behar bada oraiño
Hauk zortea berzelako.

Uste dezakete daramatzatela
Xoilki esnea, eta illea khentzera.
Nik aldiz ez baitut bizi naizelarik
Biziaren ordain emaiteko deusik:
Bainan emaiteko dukedan bakharra
Ondikozki baita hill eta xingarra.
Ixil nadin gero zuk erraten duzu?
Itzai zelebrea zuk aise diozu.
Baiña itzaiñak berriz: egonez oihuka
Ordea ez dukezu zuk zortea xanya.

Arrazoiña itzainak bai urdeak ere;
Nik itzaiarekin baderrat halere:
Gaitzari denean eziñ itzuria,
Alfer dela luze negar issuria,
Eta berdin gero egin behar dena.
Hobe dela dadiñ kuxian egiña,
Baita konformatu goiko nahaiari:
Eta sentimendu haiñ noble den hori
Ez badaite izan urdetan
Oxala balitz yendetan.



EZKURRA ETA KUIA

Ongi da bethi egina
 Yainkoak egin duena
 Hunen frogaketa bada ibilli gabe
 Munduz-mundu, bidez-bide,
 Kuintan aurkitzen dut nik.
 Peisant batek ikhusirik,
 Fruitu hori hain gordoa
 Girtoia aldiz hain flakoa.
 Buruan zer zuen dio, gure erneak,
 Hauk guzien Egilleak?
 Zoin gaitzki zuen ezarri
 Horra-horko kuia hori!
 Pardi! nik nukcien eman
 Haritz hoietarik batetik dilindan;
 On zaiteken lana orduan:
 Arbola nolako,
 Fruitua halako,
 Gauzari traza emaiteko.
 Peillo, damurik ez hintzen
 Hire erretor Yaunak predikatzen duen
 Yainko haren kontsilluko,
 Hobeki lituzkek oro.
 Ezen konparazionera,
 Zergatik, othoi, ezkurra
 Nere erhi-xingarra
 Bezanbat ez dena
 Harako-han dago dilindan emana?
 Segur, egille puxanta
 Hemen ekibokatu da,
 Nik ezen fruitu horier
 Gisa hurtan ezarrier,
 Zenbatez behatzenago,
 Hanbatez Peillori zaio
 Legez iduritzenago,
 Bat hartu hemen ustean,

Hartu bertze izan dela ustekabeen.
 Pentsaketa hortaz burua hartua
 Gure giza dago net enbrakatu:
 Hainbertze izpiritu duena kaskoan,
 Ez daite sar, dio, niholere loan.
 Zuhaitz baten-pera badoa etzatera,
 Badathokio ere loa betphurura.
 Bada lotan dagolarik
 Ezkur bat haritz gainetik
 Erortzen zaio gainera
 Kolpatzen ere sudurra
 Kolpe hortaz atzartua
 Bere sudurrera daramala eskua.
 Ezkurra ukitzen du bizarrean lothua.
 Sentitzearekin zaurthua sudurra
 Bertze solhasik hark derra:
 Oiei! odola dut, dio,
 Zer zen beraz gerthatuko
 Erori izanbalitz arbola gainetik
 Ezkurraz bertze kargarik?
 Baiña urruski ezkurra zen.
 Ni zoiñ gaitzki mintzo niñtzen
 Nere arpegia zertan zen
 Ezkur hau kuia izan bazen!
 Yainkoak nahi izan eztu,
 Segur, arrazoiña ukhan du;
 Horren motiboa niri
 Orai zait agertzen klarki.

Bego, bego Yaungoikoa,
 Obrari soberanoa;
 Bedi bethi laudatua,
 Peillok dio, xanyatuia
 Dezarla ezkurra goican,
 Eta kuia beherean;
 Eta mundua gerora
 Bioa ohi gisara:
 Ez dagoku pleinta guri;
 Zer den konbeni hark daki.



PEGAR ESNEAN

Aneta zoan hatterik
 Hiri hauzokora goizik:
 Pegar bat esne buruan,
 Burute eder bat estrainan.
 Bazaraman hark hargatik,
 Buruan arranyaturik,
 Pegar esneaz bertzerik.

Husu eta ariñ zoala alegera bidean,
 Bere baithan huna bada hark nolatsu zerasan.
 Nere esnea saldu eta harrek eman dirutik
 Aroltze dozena zenbait erosiko ditut nik:
 Xitotarik, axeriak nahi edo ez nahi,
 Urdetto bat erosteko geldituko zait aski:
 Ene urdea ya ttarroa, yangabe haiñitz bihi
 Arthatuz ongi, zait niri egiñen urde handi:
 Hau saltzearekin aldi enbrazu handi gabe,
 Umedun behi baten naiz betan egiñen yabe:
 Horla dotea billdurik falta egiñ ez dezake,
 Ezkontza on baten bidez naiz egiñen etxeko andre.

Baiñan hementzet Aneta
 Gerthuz behatztopatzen da.
 Eta doako pegarra
 Bizkarra-gaiñdi lurrera.
 Adio xito eta urdeak;
 Adio behi, xahalak;
 Adio dote eta ezkontzak,
 Eta fortunazko ametsak.
 Nere neska gelditzen da
 Lehen zen bezala Aneta.

Fable hunek irakatspen haiñixko badituzke,
 Zuk har ezazu gogoan ongi bedere hauxe:

Geroaren gobernua utz-ozu bertze bati,
 Aitzitik hots-emozu zuk oraikoari bethi.
 Gogoetan dabillana maiz da behatztopatzen,
 Izarrer beha zoana, zilhorat erori zen:
 Gaztelu egiten hari espainian bazare,
 Frantzian ez daigikezu ez borda txar bat ere.



BI MEDIKUAK

Behi dotor Berrigaitzek
 Ikhusten zuen eri bat.
 Eri bera Berrionek
 Ikhusten zuen orobat.
 Hunek zion, eri hunek eman dezake onera;
 Harrek ez, abian da hau zenduen ikhustera:
 Harrek zio: bedi purga, hunek ez, bedi sangra:
 Ondikoz segituz hunen ordenantza hazkarra,
 Ustekabean eria badoa bertze aldera.
 Biek gutiago ez dute biktoria kantatzen;
 Batek zion: hill da bada, hori nik erran nuen:
 Bertzeak: nere manuak harrek egin balitu.
 Ez xoilki hura etzen hillen, baiña zaiten sendatu.

Baldiñ eritzen bazera
 Deith zazu aldamera,
 Mediku bakhar bat xoilki:
 Ona bada, hau bada aski.
 Bi hoberen betan baiño,
 Arteko bat lehenago.
 Baiñan ez pentsa hargatik,
 Bethi gaitz guzietarik
 Zaituztela libratuko:
 Zeren bat baita ethorriko
 Zoiñetarik sendatzeko
 Ezin baita kausituko,
 Ez eskoletan dotorik,
 Ez baratzetan belharrik,
 Ez botiketean drogarik,
 Ez peisant xarlatanik,
 Ez ema begi-gorririk.
 Orduan kofesor on bat
 Deith zazu zuk aldakera,
 Ordu haiñ proziatu bat
 Utz behautzu itzurtzera.

BI PELEGRINAK ETA OSTRIA

Bi pelegrin zoazila kosta hegian gaindi,
 Hara huna beha, non zer zuketan hek ikhusi:
 Ikusten dute ostria bat harean zabaldua,
 Mami umo eta gixen bat zedukala agertua:
 Batek derra: zer ostria, nerea da guzia;
 Segur naiz ezen lehenik dela nik ikhusia.
 Bertzeak: ez hezatuko horrek ez dautzu ganga;
 Zuk baiño lehen segurki nik ikhusia baita;
 Lehenak hartu nahi du hubilldu direnean,
 Bertzeak dio utz-arazten pusadako batean.
 Hunek tira, harrek pusa, horla direla hari,
 Yaun yuiea hor da gerthuz iragaiten han gaindi
 Zoinak bertan nahi baitu fiñatu hauzi hori.
 Bere kausa pletiatu bakotzak duenean,
 Yuiea zaie prudentki yartzen bien artean:
 Eta serios harturik eskuetan ostria,
 Hastekotzat iretsten du hunen mami guria
 Koehkotarik bana gero demaie partideri,
 Emozue, derraiela, esker yustiziari.

Hauziak nihor ere eztu
 Nihoiz ere aberatstu:
 Mamerikan baldiñ bada
 Hura yuie yaunentzat da.
 Partidak doazi berdiñ,
 Zoiñ bere axalarekin:
 Edo hobeki, doazi
 Nola baita erraten ohi,
 Hau athorra arras, hura billhuz-gorri.
 Hauz onenari
 Eginik ihesi
 Akordu txarra ere hobe da onhetsi.



BURU PELATUA

Gizon bat zelarik onduxa adiñez,
 Ez gazte ya aboro, zahar ere arras ez:
 Bi kolore yadan egiña bilhoa
 Baiña den berdena oraindik gogoa
 Xedea hartzen du bada ezkontzekoa.
 Begizatzen ditu hurbill alhargun bi;
 Batek ere ya eman zeikan lanik aski.
 Bata zen gazte, eta eder, baiña pobre,
 Bertzea onduago, baiña bazen dote:
 Baita urthen laidoak erreparatzeko,
 Kalitate hunek bazituen asko.
 Galaia badabill batetik bertzera,
 Amorante urusa bizi da gogara:
 Bi dontzeillek ere hartzen dute ederki,
 Baiña beren pare dute ikhusi nahi.
 Gazteak kaskoa bi ezkuz harturik,
 Bilho zurituak khentzen daizka errotik:
 Bertzeak aldiz beltz daudenak oraiño
 Diozka ebakitzen azkenekoraiño.
 Eta biek dute yorrazten hain ongi,
 Non baitu kaskoa meloi bat iduri.
 Noizbait gizontxo denean ohartu,
 Kaskoa freskosko nola senti baitu:
 O dontzeilla ederrak! gosta bazait ere,
 Lezione ontxo bat hartu dut halere;
 Edozein bitarik nukeien emazte,
 Nere galtzak laster hark nahi lituzke;
 Zoazte, dio, arrebak; eta biphiltzeko,
 Ezazue bilha bertze zenbait kasko.
 Eta ordutik hura alde bat urrundu zen hetarik;
 Urus ez bazioten hek biphilldu hura baizik.

Haiñitzek yoko berean
 Galtzen dute ustekabean,

Bilhoa ez bada zentzua
 Zentzuarekin dirua:
 Eta azkenean badaude
 Ez diru, ez eta ohore;
 Nola bertzea ille gabe.
 Bertze batzuek oraindik,
 Dontzeilla zenbaiten gatik
 Dute osoki xoraturik,
 Erretzen bere kaskoa;
 Ez zaiten hanbatekoa.
 Zer heriotek tontoa!
 Guziz deithoratzekoa!



ASTOA ETA XAKUR TTIKIA

Gutiak dire zeruaz hala faboratuak
 Agradatzeko dohaiñaz sortzean dohatuak,
 Hau heier behar zaie utzi: eta ez izan gaizoki
 Fable huntan agertzen den astoaren iduri:
 Zoiña nausiari gustu gehiago emaiteko,
 Eta maitha garriago harentzat izaiteko,
 Zarezatzera hurbilldu bai zitzaion galanki:
 Hala egiten xakurto bat baitzuen hark ikhusi.

Nola! xakur txar hori
 Haiñ goxoki da bizi
 Bere nausiarekin
 Baiare andrearekin:
 Hor da pherekatua,
 Baita besarkatua:
 Horren merezitzeko,
 Zer duke egiteko?
 Patta bat hedatzeko!
 Baldin hortarako
 Hori badaite aski,

Niri ere iduritzen zait daigikedala hori.
 Hortan bere nausiari badoako arraiki,
 Eta adar zaharkitu bat altxaturik eztiki,
 Erortzerat utzten dio kokotsaren gaiñera
 Botatzen duela beta orho eder bat airera.
 Ola! ola! zer zareza, zer musika xarmanta!
 Nausiak dio furian: Nere baistoai non da?
 Esku biez hau harturik, komeni zen bezala,
 Luzaro asto gaizoari zurratzen dio azala:
 Eta orduko komedia zen akabatu horla.

Ez bortxa zuk zure antzea,
 Bakotxak badu berea:
 Baldin utzirik zurea
 Bertzek bezala egitea.

Nihoiz baduzu billhatzen
 Onik ez duzu egiñen.
 Yendea yendetik, hain da bertzelako,
 Nola xakurto bat astotik baidago:
 Zure antzetik kanpo egiten tutzunak,
 Oker daude nola, ezkerraz egiñak.
 Ez badakharte ere bastoi ukhadia
 Badakharte yenden, burla eta hirria;
 Hau ere ez baita loria.



ASTOA IHIZIAN

Eyhara bateko astoa
 Kaskoz baitzen harroskoa,
 Bere lagunak utzirik,
 Lehoiñ larruz bestiturik,
 Goan zen behiñ ihizira
 Buruaren arintzera.
 Bazabillan fanfarruna
 Arras iduri lehoia;
 Ikhusten zuten orduko
 Lehoiñ hain tailla ederreko;
 Laur atzetako yendeak
 Ikhara handiz betheak
 Ihes zoazin guziak.
 Ongi zoakon afera
 Libertitzen zen gogara.
 Baina eiharako mutilla,
 Illkia zen haren billha,
 Berekin ber makilla.
 Ikhusten duen pontutik
 Ezagutzen du urrundik,
 Bi beharri puntetarik.
 Helas! gorde eziñ zituen
 Luzexkoak baitzituen.
 Eta bastoi ukhaldik a
 Darama abrean laurenka.
 Eihara-aldera maska.
 Harrituak oro zauden
 Gizon hau nola hari zen,
 Eiharara Lehoi billtzen.

Horla andre batzuek ere
 Ihizira illkitzen dire;
 Bertzen arropak soiñean,
 Arranyu ederrenean,

Ez dutela falta deusik,
 Barneneko linya baizik.
 Baiña ardietsten ez dute,
 Later ezagun baitire:
 Nola astoa beharritik,
 Hek bertze zerbaitetarik:
 Eta illki ziren bezala
 Ongi nahiak bertzela
 Doaz zoin bere etxetara.
 Zarpill utzien hartzera.



ARRATOINA HERMITAU

Lebantekoeck diote
 Egia den badaiteke,
 Ziñ egin nahi ez nuke.

Arratoi bat lehenago, bere baithan sarthua,
 Munduko gan-ethorriez arras desgustatua:
 Guziera adio erranik erretiratu zela,
 Olandako gasna baten barnean bizitzera.
 Zeldatxo bat egiñ eta haren erdi-erdian,
 Goxoki han bizi zela urus bakhe handian.
 Atzez eta hortzez hariz bere bizi-tokia,
 Ezarian egiñ zuen gustos eta konplia.

Geroazko griña gabe bethi izan oraikoa,
 Bethi prest baitzagokion hazkurri gustukoa;
 Yadan egiña zen gixen eta gorddo-gorddo:
 Hain da gorphutzarentzat on sosegu barnekoa.
 Urus arras, hark ez zuen desiratzen bertzerik.
 Baiña mundu huntan ezta urustasan osorik,
 Ustekabean badathor nahigabe nonbaitik.
 Yan ondoan egun batez dagolarik siestan,
 Arrotzak badituela senti du bere borthan:
 Ideki diotenean, bizpahirur Yaun gazte,
 Agertzen zaizko, direla miñtzatzen hunelaxe:
 Hemen, Yauna, gathorzkitzu beharrak hartararik,
 Urrun oraño gioaz, eta gathorz urrundik:
 Bai ahal dakizu naski ya aspaldi baduela,
 Gathuen ta gure artean gerla bizia dela;
 Ratapolis deihatzen den gure hiri nausia,
 Heien armadak deukala setian ezarria;
 Enbaxadore goazi gorthe estranyeretara
 Dukegun erakhar zenbait gure sokorritzera.
 Baiña gure errepublikak delakotz pobretua,
 Partiadan ez derauku boltsa utzi garnitua.
 Zerbait emaitzez zue baldiñ baginitzatzu lagun.
 Gure xedea urruski arren konpli dezagun;

Othoitz giniro gartsuki gure aldetik zerua,
 Dizun arren doblaturik emaitzaren pagua.
 Arenga ukigarri hori zenean akabatu,
 Ermitaño zelebrea hula zaien mintzatu.

Ay! nere haur bereziak
 Munduko gauza guziak
 Aldebat ditut utziak:
 Hemen iraganetarik
 Ez zait ya behatzen deusik;
 Ez daigiket deus bertzerik
 Othoitz egitea baizik.
 Zerua dut othoitzturen
 Bere laguntza dizuen
 Eta horiehe erran eta,
 Zerratu zioten bortha.

Nor uste duzue hemen
 Nik dudala sieñalatzen?
 Fraidea othe? —Ez fraidea
 Nik daukat on-egillea.
 Apheza othe? —Ez oraño,
 Apheza ematera dago:
 Zikhoitza segur hobeki
 Gauza ezen yakiña aspaldi,
 Holako yenden doktriña
 Da, bedi nor bere diña:
 Nor ere ezpaita beraren
 Hanbat gaitztoago haren:
 Bakotxa beretzat
 Yainkoa ororentzat.



ARRATOINA ETA OSTRIA

Landa batean zaukan bere egon tokia,
 Arratoñ gazte batek primezaz utzia:
 Arbasoz-arbaso hau ethorria zuen
 Oro han bizi-izan, han hill ere ziren:
 Berak azkenekotzat atta agudiari,
 Begiak ziokitzan hilltzean han hetsi.
 Landa harrek bazemon nondik ongi bizi,
 Bazakhartzan urthean bihi suerte bi.
 Baiña nola baitzen kaskoz ariñxkoa
 Mundua ikhsteko hartzen du gogoa,
 Eta kurri-kurri gatekoa
 Ilki deneko xilotik
 Lur-muillo baten gainetik,
 Bi pattak gurutzaturik;
 Hauxe da, dio, mundua
 Ederra eta hedatua!
 Huna Larhun, hara Haia,
 Sator-lan hasi guzia
 Badiduritzo mendia.
 Zenbait egunen buruan,
 Aurkitzen da itsas-kantuan,
 Han zauden multzoka ostriak
 Marea ganak utziak:
 Oro uste du arratoiak,
 Direla liñako untxiak.
 Oy! nere atta difuntoa
 Zoiñ ziñen gizagaxoa!
 Mundu huntarik goan zare
 Haiñitz gauza ikhusi gabe:
 Hori da egoitea bethi,
 Hautsean gathua iduri.
 Huna bada guk mortuak,
 Mendi, haran, desertuak,
 Yadan iragan ditugu:
 Baiña edan hetan eztugu.

Huna erresuma hezea,
 Eman zaizu ikhustea.
 Bere gogoan holako gauzak darabilzkala,
 Ostria bat ikhsuten du zabaltzen hari dela;
 Mami gixen, umo, eder bat erakhusten duela.
 Hau zer da, derra arratoñak, badiduri xingarra,
 Ene uztez ase-aldi on bat da nik egin beharra.
 Bi yauziz tirria onean aldera badoako,
 Eta mami gixenari hortzez hor lotzen zaio:
 Baiña ostriak kolpe kolpez koskoak zerraturik,
 Segadan nola gaixoa hartzen du muturretik
 Horra zer bada ez yakiñak ohi duen egiten:
 Xilotik tristea oxala nihoiz athera ez bazen.

Arratoñaren zortea
 Ezta parerik gabea:
 Oiñ bitakotan zenbatak
 Bere aita-amez unhatuak,
 Zingar, arto eta pitarras
 Eta bere kapusaillaz
 Supherki desgustatuak,
 Dohazinak hiritara:
 Gaizoez uste dutela
 Hetan biziko direla
 Ttoina eta oillaskoz gogara.
 Baiña libertinkeriak
 Handik laster miseriak,
 Ondoan gaitztakeriak,
 Badaramatza tristeak
 Ya gehien-gehienak,
 Batzuek ospitalera,
 Bertzeak galeretara,
 Bakharrak ere urkhabera.
 Etxetan egon balire
 Oraino bizi laitezke,
 Ohore ere balukete.



Oxala orok balaukate buruan finkatua,
 Ondoko bertsu hauietan dathorren errefaua:
 Hagitz hobe dela etxean segura den artoa,
 Ezenez ttoina fin nonbait badaitekkelakoa:
 Eta zentzuz yokatzekotz, nihoiz segurekoa,
 Airekoaren menturan ez dela utztekoa.

AMIAMOKOA ETA ARRAINAK

Amiamoko lepo-luz,
 Moko-luz eta zangar luz,
 Bere bekillen gainean
 Noizbait norapait zioan,
 Norat ez daukat gogoan.

Ibai baten hegitik pentsaketa zoala,
 Urean ikhusten ditu dosteta zebilltzala,
 Izokintxo eta platuxa aingira eta amorroñak:
 Mokoaren azpiraiño dathorzkio xoroak.
 Hola! dio, maitheñoak, alegera girade?
 Hobe duzue hargatik ez naizen orai gose:
 Oren bat gora-behera berriz naiz pasatuko,
 Orduan zuen dostetak ditutzue ahantziko.
 Hori zerrala maistroa zen abrerat iragan.
 Ay! zer ase sarrixe hark berekin zerasan,
 Egin beharko dudan nik, naizenean gosetu!
 Oren erdi bat apenaz zen oraiño pasatu;
 Gormant handia badathor leheneko tokira
 Goseak yadan baitio kilikatzen zintzurra:
 Baiña arraiñ gordoak ziren bertzetara gan handik;
 Ez dathorko bistara bi platutxa mehar baizik.
 Bah! bah! dio, bextela hau: hau ezta nere plata;
 Arraiñ xirtxill hori bethi, erientzat utzten da.
 Hortarik yan baiño lehen, dezagun iguriki,
 Zenbait gordoago oraiño ethorriko da naski.
 Badago: baina gordorik ezta ageri batere:
 Azkenean xarbo zenbait hurbilltzen da halere.
 Zer ahotara neretzat ni amiamokoa!
 Hoiñ gutirentzat eztut nik idekitzen moko.
 Badago oraiño ere, baiña gosea ez duke sofri,
 Hamikatua azkenean partitzen da tristeki.
 Doalarik, bide-erdian bare bat du topatzen,
 Dena ere on, derralarik, mokoarekin billtzen:
 Hatsgorapen bat bota eta, bertzela ezin egiña,
 Haiñ gogotik iretseten, du, balitz nola izokiña.



Yendetan asko badire
 Animale haren pare:
 Egun aseá badute,
 Biharraz antsia ez dute.
 Denean daigie, bon bon,
 Aldiz ez denean, egon.
 Batzuek dute utzten ona,
 Beharrez hobea dena:
 Biak galtzen ohi tuzte,
 Nola merezi baitute.

Eta mandotik kotxera zirenak igan nahi,
 Mizago mandotik haiñak astora dire yausti:
 Urus ez badire oraino beherago erori.

Parada ona noizbait agertu deneko
 Illetarik betan laster loth zakizko:
 Ezen itzurtzera zuk utzten baduzu
 Ondotik ez duzu zeren abiatu;
 Ez egon haren aiduru.

ORA ETA OTSOA

Hezur eta larru ya otso bat egiña
 Haiñ zeukaten orek arthaldeen griña:
 Zebillala zerbait non kausi zezaken,
 Barur luzeskoa egiñ ya baitzuen:
 Batzen du ora bat larri ta hazkarra,
 Gizen, legun, zabal zaukana bizkarra:
 Hau atakatzea, eta zathitzea,
 Zaiteken bai haren orduko xedea.
 Baiña gudukatu hortako behar zen,
 Eta orak guduko hazkar zidurien.
 Otsoa beraz humillki aldera badoako,
 Eta zerbait ere moldez solhasean sartzeko:
 Agur kide, derro, zer! zu toki hautan?
 Bai, Yauna, baztertu naiz ustekabetan.
 Ardura eder duzu, milla demuntxoa.
 Badukezu, Yauna, bardiñ horlakoa.
 Ni bezaiñ gordo ere, bazaitzke egiñ zu,
 Zakurrak diotzo, nahia aski duzu.

Oyhan horiek utz-kitzu;
 Hagitz bobe izanen duzu:
 Bizi dire miserian;
 Bethi gose eta hiratu,
 Denak giza gaixo batzu;
 Ez dutela bertze fiñik,
 Goseak hilltzea baizik,
 Zer! deusik seguraturik.
 Behiñere ez ase-onik!
 Oro ezpataren puntatik!
 Zatho, zatho, nere ondotik:

Zorte hobe bat hagitzez dautzut seguraturiko
 Bertzetan, otsoak derro: zer duket egiteko?

Orak dio deusik kasik:
 Kasatzeko atheritik



Yende bastoi dun harroak
 Eta eskaille zarpill-dunak;
 Lausengatzea etxeoak:
 Eta Yaunaren nahiak,
 Berthetzea ongi guziak.
 Hau zuk egiten baduzu,
 Saritzat emanen zaitzu
 Epher, urzo eta oillasko
 Hexur mami-duna franko.
 Bai eta are kareza asko
 Otsoari gozoz dario yadañik,
 Kaburiña hortzetarik,
 Eta nigarra begitik.

Horla doazela otsoak orari ustekabez,
 Ikhusten dio lepoa larrutua zerbaitez.
 Konpai, diotzo, hau zerda? —Zer? —Ikusi dudana,
 Ezta deus, dio orak, naski, nere estekaren lana.
 Bertzerik ezta, eta horrek aiphua ez du balio;
 Zer! estekan zaozkate! bertzeak badiotzo;
 Eta gogara ibiltzera ezzare beraz libro?
 Bextela zure othuruntza, eta friko gizenek!
 Libertatearen ona balio ez dukete hek;
 Ez eta ene begietan tresorik handienek.
 Hori zerrala otsoa eman zitzaion ihesari;
 Eta gaizoa oraindik ez omen daite gelditi.

Badaiteke gure otsoa
 Zen ziñez filosofoa.
 Baiña nik guziak-gatik
 Hauta niro bietarik:
 Ontsa aserik bizitzea,
 Eta azpiko egoitea:
 Ezen ez libre ibiltzea,
 Eta goseak hilltzea.
 Bakotxak du bere oldea.

OHOINAK ETA ASTOA

Bi larroin behiñ yoka hari ziren gozetik,
 Biek ebatsi zuten asto baten gaiñetik;
 Batek nahi baitzuen abre ebatsia saldu,
 Bertzeak aldiz hura saldu gabe goardatu.
 Ukhabilloak husu hek trukatzten zituzten,
 Ya zaatoak bien kaskoek zituriten
 Yabe gabe ere astoa laster gelditi zaitzen,
 Mutillak hagitz hazkar eta aserre baitziren.
 Baiña heren ohoiñ bat agertu zen betbetan,
 Zoiñak, astoa emanik bere isterren artean,
 Laur atzetan suntsitu baitzen toki hartarik,
 Mutill gudukariez kasu guti egiñik:
 Hauk zaitzeken orduan kolpakatik baratu,
 Segitzeko ez baitzaien motiborik gelditu.

Horrela dire hauziak
 Fiñatzen kasik guziak.
 Partidak dire bai lothu,
 Eta luze gudukatu,
 Pletiatu gathaskatu;L
 Fresak ere montoikatu:
 Badathor heren ohoia,
 Hura da andre yustizia,
 Hunek badarama astoa,
 Akabo ordutik pleitoa.



HIRIKO ARRATOINA ETA BASERRIKOA

Hiriko arratoiñak behiñ
 Behar ziola besta egiñ,
 Baserriko arratoiñari;
 Hagitz moduz eta oneski,
 Deithu zuen bere etxera
 Minarritzez asetzera.
 Napa eder baten gaiñean
 Kuberta ezarria zatzan;
 Pentsa zazu zer bizi hek
 Zuten egiñ konpai biek.
 Mahaiña arras bethea zen,
 Deusen ere eskasik etzen.
 Baiña noiz eta baitziren
 Othuruntza gozoaren
 Hoberen-hoberenean;
 Ikharatzen dire betan:
 Norbaitek hotsekin baitu
 Salako bortha higitu.
 Hiritarra saltatzen da,
 Badarraio kamarada.
 Baiña abarrotsik ezta ya;
 Hor zena, gana izanen da.
 Goazen, dio berehala
 Hark, utzi dugun lanera:
 Dugun errepara akaba.
 Ez, bertzeak derra, aski da.
 Plazer egiñen dautazu
 Ethorri nahi baduzu,
 Bihar xandez nere etxera
 Diadekanpo egitera
 Badakit nik ez dudala
 Eskaiñtzeko zuk bezala,
 Gortheke plat aberatsik:

Ordaiñez han ezta deusik,
 Asaldatzen ni nauenik.
 Nik yaten dudana etxean,
 Yaten dut bakhe onean.

Ez eskaiñ niri plazerik
 Lotsak trubla dezakenik.



ASTOA ETA ORA

Elkhar behar da lagundu

Naturalezak nahi du:

Astoa hargatik behiñ legeaz zen trufatu.
 Handia baitzen harentzat, eta ezduket esplika
 Hori nola zuen egiñ; orhe onetikan baita.
 Bazioan herriz-herri gogoan gabe deusik;
 Sahetsean ora eder bat, nausia gibeletik.
 Nausia lotan zen sarthu, aldiz astoa alhara
 Ateka zabal batetik gan zen phentze batera.
 Hango belharra iduritu zitzaion zalegarri;
 Nahiz han astakarlorik ez zuen hark ikhusi:
 Plat hunen faltan ezta iñoiz othuruntzarik utzi.
 Aldi huntan asto Yauna pasatu zen halere,
 Harentzat hain frianta den plat faborita gabe.
 Gosetua bere aldetik zakurrak othoitzten du,
 Aphur bat lagun on gisa, nahi zaion aphaldu:
 Arren horrela atzemanik bibretako otharrea
 Athera dezan hartarik zertaz yabal gosea.
 Arkadiako xantreak ez dio egiten kontu,
 Hortz-kolpe xoil bat galtzeaz, zeren bailuke damu:
 Gormantak egiten dio gorrarena luzaro;
 Noizbait ahoa bethea, hula mintzatzen zaio:
 Kide, nere kontseillua duk ezaken igurik,
 Nausia daiten athera lo duen ederretik:
 Ezen berak falta gabe,
 Arras trankill bahagoke,
 Iratzarri den pontutik
 Emanen dauk otharretik
 Hire portzi ohitua:
 Etzen oraiño ixildua,
 Horra non oihan zolatik ikhusten duen yalten,
 Bertze azinda gosetu bat, otso Yauna hura zen.

Astoak oihu orari dathorkon laguntzera;
 Ora ezta mugitzen, segur ez zagoken hortara.
 Ordainez erraten dio: kide, dizut kontseillu,
 Egizun ihez, nausia dadiñ artio atzartu:

Ya luzaro egon ez daite,
 Hots bada hots khexa zaite:
 Ukho phentze gizenari,
 Eman zakizko ihesari.

Eta baldiñ otso jaunak atzematzen bazaitu
 Uztarko batez haidorki matrailla hauts ezozu:
 Haiñ xuxen ferra berriak dakhartzu ere atzetan
 Eta banintz zure plazan
 Otsoa niro betbetan
 Heda laur atzak airetan.
 Haiñ ederki mintzo zela, otso yauna aldera zen,
 Eta lepora yauzirik asto yauna itho zuen.

Hunek zer erran nahi du
 Behar dela elkhar lagundu
 Asto, orentzat bada aski
 Morala hori segurki;
 Bertze hau ere bai naski:
 Egiok egilleari
 Baiña yende khristaumentzat
 Oraiño bada bertze bat

Gaitz egilleari, zuk on egiozu,
 Zuri egin gaitza, onez garai zazu:
 Othoitz ere egizu, zuri yazarlentzat,
 Mundu huntako hau, ezta goxo hanbat.
 Bertzeko aldiz hobea da;
 Zure zortea hor baita
 Kestione sekulaz da.



OTSOA ETA ARDIAK

Milla urthe eta gehiago otsoek ardiekin,
 Gerlan iragan ondoan, bakhea zuten egiñ.
 Batzuen eta bertzentzat hobe zaiteken hori:
 Ezen, bazuten otsoek iretsten zenbait ardi,
 Artzaiek bazakharten maiz otso larrua estalki.
 Ardiek sosegurik ez bere alha-lekuetan;
 Otsoak nihoiz trankill ez bere ardi masakretan:
 Othuruntza bat ezin har
 Non etzen erne egon behar.
 Bakhea egin zuten beraz: bai eman ere erresak,
 Ardiek zakurrak eta otsoek bere umeak.
 Zerratu zuten patua
 Formal eta konplitu:
 Izendaturik oraiño
 Hortako komisario,
 Bere agudeak otsoek,
 Bere ahariak ardiek.
 Zenbait denboren buruan ardien errapen,
 Otso-kumeak aphur bat gothortu zirenean:
 Hobiak ere harmatu
 Odolaz ere gurendu:
 Sorhoan arkumiekin dosteta zabiltzala,
 Egun batez orok elkhar aditurik bezala:
 Artzaiañak zirela ganak norapait bertzetara;
 Bildots lañoer furian yauzten zaizte gaiñera:
 Eta ya lanean xefo, bildotsik gizenenak,
 Ordu berean itho eta, hortze herrestatuak,
 Badaramatzate fier lasterrez oihanpera,
 Ata-amer erakutstera:
 Ya mezua ere gorderik her egorria zutren
 Hauk umer behar zeraien
 Bedere egiñ erantzuki
 Fedea baitzuten hautsi:
 Baiña hala egiñ etzuten:
 Alabaiñan otso ziren

Fede emanaren gaiñean, ora lotan zauntzanak
 Bat izurtzera utzi gabe, zituzyrn iyho frnskZ:
 Haiñ laster hau egiñ zen non ohartu ez baitziren;
 Guziak zathitan betan emank izan ziren.

Baderrakegu guk hortik,
 Ez dukegula bakherik,
 Nihoiz iraupenezkorik
 Yende tzar, fede-gabekiñ;
 Traidore eta faltsoekiñ:
 Indarra duten pontutik
 Haukiekiñ ezta on derik,
 Ez ziñik, ez akordurik,
 Lekhuko, ez erresarik:
 Gerla beraz heier bethi
 Da egiteko edo itzuri.
 Baderrakegu oraino
 Aita-amen faltaz ume asko
 Billhakatzen dela gaizto:
 Onak izan zaitezkenak
 Galant eta estimu-dunak:
 Dituztelakotz laudatu,
 Edo aski ez korreyitu;
 Bizi tzarra daramate,
 Fin-gaitz ere egiten dute.



AXERIA ETA AKERRA

Axeri bat egun batez zioan biaietan
 Aker adarretan halto zen baten konpañian:
 Bizarrez eta adarrez on: aker hau gaizosko zen,
 Sudurraz haratago ere hark ikhusten ez zuen:
 Aldiz axeri zaharra maltzurrenetarik zen.
 Egariak hertxaturik putzu baten zolara,
 Bat bertzearen ondotik yautsten dire edatera.

Ur freskotik han zintzurra
 Hezatu eta gogara:
 Axeriak lagunari,
 Badiotzo seriocki:
 Diduritzait, konpai ona,
 Egiñ dugula errexena
 Yalgitea daite lana.
 Akerrak axeriari:
 Hala da bai naski hori.
 Hegia dago gorasko,
 Eta pareta legunsko.
 —Haladuk, baiñan ez etsi;
 Fida hakit arras niri.

Xutik hadi gibleko bi zangoen gaiñean,
 Eta bi patak etzatzik arrima paretean:
 Gero kokotsa tinkatuz paparoaren kontra,
 Adarren mekanika iduk ezak goiti txutxuta:
 Bi brinkoz gaiñerako nauk hire bizkarra-gaiñdi,
 Handik, atheratzen gero lagunduko haut nik hi.
 Harritua, aker gaizoak laudatzen dio asmua:
 Berak alferretan zuken hautsi bere burua.
 Eta nola erran, hala egiñ, axeri madreari,
 Bere bizkar eta adarrez dio egiten zurubi.
 Goieratu eta egiten dio harrek sermoi bat,
 Etsortatzen duelarik pazentzia hartzerat.

Konpai, derro, gaitztagiñak:
 Balautzu eman zeruak,

Zentzu hainbertzen kaskoan
 Nola bizar kokotsean;
 Jautsiko horrat etziñen;
 Ikhusiko baitzinduen,
 Gero zer lan izanen zen.
 Hartu duzu letzioa
 Nihoiz ez ahantztekoa.
 Adu, balitz yatekoa,
 Balaiteke edatekoa?
 Aboro ni ez nagoke;
 Nere aferek deithzen naute.
 Lagun tzarrekin ez yunta,
 Bethi zatzu onak hauta:
 Onekin on zare egonen,
 Baita askotan hobeturen:
 Tzarrekin tzar bihurturen.
 Hauk zaituzte bai eraman,
 Urrun bide makurrean,
 Ondoratu zarenean;
 Utziko zaituzte hantxe:
 Eta hek bereaz egin badukete,
 Kontu zutaz hartu gabe
 Hirriz handik ganen dire.



LABORARIA ETA BERE SEMEAK

Laborari etxedun bat
 Zoan zaharrez hilltzerat:
 Bizitu zen ohorezki,
 Lanean hariz fexoki,
 Eta gastatuz xuhurki:
 Umeak zituen ere
 Ontsa ekharri bethiere.
 Baiña etzen fida sobera
 Hauk hala eginen zutela:
 Laneko baitziren nagi,
 Yateko aldiz gormantegi.
 Deithurik aldamenera,
 Mintzatu zaien hunela:

Ene umeak behautzue sal nihoiz ontasuna;
 Ezen hor bada tresor bat noizbait gorde izan dena:
 Ene aita-ametarik daukat hori nik ikhasia.
 Zoin lekhotan ontsa ez dakit dagoen ehortzia,
 Parte guzietan itzul eta lan ezazue,
 Segur nekheen pagua noizbait badukezue:
 Atta, diote semeek, txit trankill bazaudezke,
 Tresora atzeman artio baratuko ez gare,
 Bertze inor bezain gu ere tresor zale baizare.
 Nola erran, hala egin, uta hek sarthu dteneko,
 Alhorraren itzultzeko lanari lothzen zaizko:
 Lehen baiño barnago ere hilldoa daramate,
 Abre, tresna, nekhe, izerdi, guphide deus ez dute.
 Ezta gelditzen xokorik
 Erabili ez dutenik.
 Landak ere, hara bada,
 Doblea eman zuen uzta.
 Bertze tresorik han etzen:
 Trankill hill zen zaharra ere,

Hill baiño lehen halere,
 Irakatsi baitzioten
 Egiazko den tresora
 Lan segituan datzala.

Zertan gan urre-ketara
 Itsasoaz bertze aldera?
 Edo urrungo tokitara?
 Hetan guti da aberatsten,
 Asko ere dire galtzen,
 Asko pobreago itzultzen.
 Emazu tiñki lanean,
 Ofizio edo labrantzan:
 Zuhurki zazu goberna
 Handik billdu dukezuna.
 Zuk hola egiten baduzu
 Tresor handia hor duzu,
 Eta ahituren ez zaitzu.



MENDIA ERNARI

Mendi bat aspaldi lehen
Erdi beharrez zagoen,
Eta emagiñik etzuen.
Haren ay eta plaiñuak
Urrun ziren adituak:
Yendeak ikharan zauden
Zer yalgi behar othe zen:
Orok zuten ikhus uste
Paris oso bat bedere:
Badakizu zer zen agertu mundurat?
Sagu bat.

Horla espantu hainitz duenak ahoan,
Efetu guti du agertzen ondoan:
Obratu gogo duenak,
Elheak ditu bakhanak.

LIBURU BIGARRENA



ARRAIN TTIKIA ETA ARRANTZALEA

Arrain ttiki laite handi
 Utzten balitzaio bizi.
 Baiña utzteko, gero noizbait hartuko delakoan,
 Zentzu guti diduritzait behar dela kaskoan:
 Izokiñ ttiki bat behin mementean sorthua,
 Dosteta urean zebillan, bizitzeaz boztua.
 Arrantzale batek goizik bota orduko amua
 Hor da gaioxoa gerthatzen amu hartan hartua.
 Ikhusi duenean lehen amu-kolpea,
 Huna, diotza gizak frikoaren hastea.
 Dendelako katura
 Bioa otharrera.
 Izokintxoak baderro ahal duen bezala,
 Nitán zer dukezu? ez naiz ahoa bethe ahala:
 Utz nazazu libro, izokiñ naiten egiñ artio,
 Berdiñ gero noiz edo noiz naiz zure amutarako;
 Eta eskabetxero batek nau kario erosiko.
 Aldiz egiteko plat bat,
 Ni bezalako zuk zenbat
 Eztuzu billdu beharko?
 Halere zer plat oraiño!
 Plat deus balio ez dukena;
 Sinhets-azu nik errana.
 Deus ez dukena balio!
 Arrantzaleak diotzo;
 Biz hala, arrai pollitñoa,
 Predikari maltzuriloa:
 Baiña zu gaur arratsean,
 Ganen zare paderara,
 Han frigitua izaitera,
 Bertze askoren konpañian.
 Zeren hobe baidaukat nik nere iduri sinplean
 Handia naskian baino, txikia segurean.

OTSOA ETA ORA MEHEA

Arraiñ ttiki nahiko zen berriz urera yauzi;
 Baiña ez zitzaion komeni gauza arraintzaleari.
 Biek zutela arrazoiña badiduritzait niri;
 Hark bizia nahi zuen alegiñaz luzatu;
 Hunek eskutan zuena gerokoka ez largatu:
 Erran dut arrantzaleak net ontsa egiñ zuela,
 Segura dudakoan truk nihoiz utzteko eztela.
 Bedariak otso batek hau berbera egin zuen;
 Ez dakit haren kaskoan zer iragan othe zen;
 Naski apendiz oraiño ofizioan baitzen.
 Arthaldez-arthalde behiñ zabillala fatxadan,
 Aurki non othe zetzaken artzaia eta ora lotan:
 Herriaren hurbillean ora bat topatzen du,
 Mehe, zimeill, eta egiña xoil hezur eta larru.
 Halarik ere kostumaz zathitzera zaraman,
 Herresaka ora tristeak baldiñ ez balio erran:
 Nausia zer diduritzu?
 Nolaz ikhusten eztuzu?
 Nere xarpanteriatik
 Ez dukezula mamerik,
 Niholere zuk athera.
 Zure ahoa bethe ahala?
 Bizpairur egun indatzu,
 Eta itzuliko natzaitzu
 Egiña gizen-gizena:
 Ezen gure etzekoiauna
 Dioa alaba ezkontzera:
 Behar naiz eztaietara.
 Beraz nahi edo ez nahi,
 Hagitz ondu behar naiz ni.
 Otsoak hau sinhetsirik, utzten dautzu goatera;
 Ez zaitekeien barura.
 Zenean ephea iragan badathor han berera,
 Ikhusi behar zuela zakurraren ardura:



Baiña aurkitzen du kokiña etxe-barne dagola,
Xareta baten artetik erdi-hirriz derrola:

Kide, hor zaren hitzean?
Halaber nago nerean.
Banathortzu mementean,
Athe-zaia sahetsean.
Athe-zain hau ora bat zen
Aspaldi otso despeitzen
Hagitz ohitua zena:
Urrun zoan hunen fama.
Otsoak derro orari:
Seguretik musikari?
Niketuz, bi milla goraiñtzi
Errozu athezaiari.
Zuk begirautzu bidaia,
Non eztuzun athezaia.

Hau erran eta laur atzez laurenka suntsitu zen,
Kskoz bainon atzez hura hagitz hobe zaiten.

Otso gaizo haren pare
Yendetan asko badire:
Hari dire bill eta bill
Nahi dena goseak hill:
Bere seillaru gaindiak
Daozkatela hetsiak?
Egiñ nahiz geroago
Irabazi gizenago.
Baiñan atzemanak dire,
Aldi batzuez bedere
Oxala balire bethi
Nola luketen merezi.

AXERIA ETA ZIGOINA

Murde axerik behiñ, andere zigoiña,
Hauzoan bethitik hantatzen zuena:
Gonbidatu zuen erakada egitera
Eta arrattsa pasatzera.

Baiña gaitztaginak, beretarik bethi,
Egiñ behar, non ez, ez laiteke axeri.
Aphaiñtzen du beraz artha handirekin,
Axixa bat bere dagozkon drogekiñ:
Trentxoiñ barne gabe, ta zabal batean,
Hedatzen du gero molde abillenean.

Bertze platik hark etzuen
Hagitz xuhurki bizi zen;
Zikhoitz aire bat baitzuen:

Hartzera prest bethi
Emaitera nagi.

Madama zigoiña denean ethorri,
Eta mahaiñean direnean yarri,
Saltsaren usaiñak baitu betan boztu,
Nausiari dio hortaz konplimendu;
Gero alaiki dire yaten abiatu.
Baiña mokoa du xorrotx eta luze,
Frikotik har deusik kasik ez dezake.
Mihiz eta ezpaiñez, aldiz axeriak,
Laster ditu billtzen plateko guziak.
Badago zigoiña lehen bezain gose,
Iduririk eztu egiten halere:
Nola baitzen ere hagitz ikhasia;
Erremesiatu ondoan nausia,
Hauzo, diotzo, nik bihar nere aldia?
—Bai andre, gogo onez, ezen ez daukat nik,
Adiskideekin zeremoniarik.
Badathor maistroa biharamunean,
Zigoiña baithara, hartu tenorean;
Badakhar madamak laster mahaiñerat,
Yarro arbasotarik yautsirrikako bat:



Aspiz zabal, gaiñez luze eta hertsi zen,
 Mokoa aise hartan berak zarabillken:
 Halaber bakharrik laster hutstu zuen.
 Aldiz axeriak baitzuen musua
 Hagitz bertzelako amak moldatua
 Eziñ zuen egiñ tristeak bertzerik,
 Kanpotik yarroa milikatu baizik:
 Eta gelditu zen gormanta barurik.
 Etxe alde laster emaiten da abian;
 Baiña damak hauxe derro partiadan:
 Hauzo, barda nere gostuz dostatu zare ederki:
 Baiña orhoit zaite duenak, azken egiten hirri,
 Harrek duela bakharrik hirri egiten ongi.

Ez izan nihoiz trufari:
 Ezen gutien ustean,
 Ahalke handiengan
 Ukhan dezazuke urriki.

Erneak baitu topatzen erneagoa bethi:
 Eta abillagoa abillak bera baiño noiz nahi.

LEHOINA ETA ARRATOINA

Edozeini bethi ongi egiozu
 Gutien ustean ezen
 Zu baiño txarragoaren
 Beharra ukhan dezakezu.

Egia hau frogatzeko badathorzkiz bi fable,
 Gehiago behar balitz oraiño balaiteke.
 Arratoiñ bat illkitzean lur barnetik betbetan,
 Aurkitu zen lehoiñ baten atzaparren artean;
 Ikharan zagon tristea biziaz etsitua,
 Gutia goz ere galtzen askok dute zentzua.
 Hail, diotzo, gaixoñoa! utzten daiat bizia.
 Ez dakit hargatik hura haiñ maltso izanen zen,
 Arratoiñ txarraren plazan asto bat izan bazen.
 Egiñ den ona ezta nihoiz erregretatzekoa,
 On-egiñak noiz edo noiz badu bere pagoa.
 Oihanpetik lehoi yauna zelarikan illkitzen,
 Sare sokazko batean hartua gelditu zen:
 Errabian yalgi nahiz hari zen efortaka,
 Baiñan itzuli guziak alfer gelditzen zaizka:
 Zenbat hark sarea baitu gehiago iharrostean,
 Hanbatez da hartan bera gehiago enbrazatzen.
 Haren plaiñu, orhotara arratoiñ eskertia,
 Herresaka dathor, eta dakharko sokorria:
 Bere hortz xeche-xorrotsez hariz emeki-emeki,
 Maill bat azkenean dio urratzen sareari:
 Bertze maill guziak gero darraizko lehenari.
 Eta librantza bademo bere on-egilleari.

Kolerak eta errabiak
 Dute gaitzten errexena;
 Soseguak eta aztiak
 Errexten aldiz gaitzena.



URZOA ETA XINHOURRIA

Orai dakhart nik agiñdu bigarren etsenplua,
Animale ttipiago batzutarik hartua:

Xirripa baten hegian,
Urzo bat bere egarrian,
Edaten hari zelarik:
Erortzen zaio nonbaitik,
Xinaurri bat aitzina:
Ithotzera zoan hura;
Ez baita omen xinhourria
Igerikari handia:
Urzoak urrikaldurik,
Lasto-izpi bat atzemanik,
Dio botatzen alderat:
Fitsat xinaurriarentzat
Iduri zuen irla bat.
Iganik laster hartara,
Arribatzen da hegira.

Ordu hartan han zabillan eskopeta batekin,
Hauzoko mutill bat zenbait katura nahiz egiñ:
Oinhuks eta buru-arras herresaka yalgia,
Billdu zuken hark nolazpait afaitako yakia.
Duenekotz ur-hegian urzo lainoa ikhusi,
Ah! friko arratsekoa nik, dio, badiat eiki.
Eta miran hartua ya daramala hiltzera,
Xinaurriak ausikitzen miñki dio ondagora;
Uztarko bat eman eta gibela du behatzen,
Baiña oharturik urzoa hegalez da yokatzen.
Mutillaren afaria hegal berek goan zuten.
Xinaurriak ere zorra horla pagatu zuen.
Goarda zaite arbuiatzetik aphalez nihor ere:
Ezen egun aphal dena bihar gora daiteke:
Aldiz gaur goican dena biharkotz eror ere.
Baiña mundu huntan ezta deus arbuiatzekorik,
Khristaudentzat, gaitzkia eta bizio tzarra baizik.

OTSOA ETA AXERIA

Nolaz Esopek othe du egiten axeria,
Ylko maltzurretan bethi bertze ororen nausia;
Oraino eziñ aurkitu dut nik horren arrazoia.

Yaunak behar duenean
Bere bizia salbatu,
Edo bertzena atakatu,
Ez da haiñ yakiñ lanean?
Baita yakiñago ere:
Ner iduriko bedere.
Eta hunen gainean nik,
Kontra egiñ nezoke kasik
Esopo ene nausiari;
Baldiñ baniñteke atrebi.

Huna kasu bat hargatik, zoiñtan axeriari,
Gloria oro emaita legez baita komeni.
Illhuntze batez zagola putzu baten hegian,
Illlari bethea ikhusten du barneko ur garbian;
Itxura biribill hura gasnatzat du hark hartzen,
Enganio hori segur barkha aise zakioken:
Oraino akademiarik axeriek ez zuten.
Ura handik erautsteko, poliatik dilindan,
Aldizka goiti-behiti pusader bi zabilltzan.
Oillo-zalea aldi huntan, gasnaz ase nahia,
Goieko pusaderean paratzen da yarria.
Hau yautstean bertzea da goierat egorria.
Baiña ikhusten du tristeak han bere enganioa,
Segur dauka ere beretzat bethiko ondikoa:
Ezen nola zen lekhitik goiera itzul zaiteken,
Bertzen zenbait gormant hara baldiñ ez bazathorren?
Eta gasnaren itxura berak enganatua;
Yautsirik hara ez bazuen hartzen haren lekhu?
Bi egunez nihor harat ez zen yin urketara,
Bi gau hetan illargiak galdu zuen kantala,
Bere bidaia ohituan arrundan zebillala;



Etsitua zagolarik illhun urari beha,
Hor du betbetan ikusten otso baten mustatxa:
Goiko hegian zagoen egarriz ethorria.
Itzulirik hula zaio mintzatzen axeria:

Oy! nausia, ongi-ethorri!
Huna behar zare yautsi
Nere bizian eztut nik
Egiñ hulako bestarik:
Beha zozu gasna huni,
Zoin den zabal eta yori:
Erregiñak berak ere
Huntaz aise laiste zale:
Nik diot yan kantal hori;
Gaiñerako hortan naski,
Zuretzat badaiteke aski.
Pusader hortan sar zaite,
Berehala hemen zare;
Hortako dut hor utzia,
Ez ukhan deusez antsia.

Nahi bezain axeria zaiteken ongi mintzo,
Hura sinhetsteke otsoa behar zen ongi gaizo:
Yatsten da; eta axeriak iguriki bezala,
Haren kargak egortzen du bera azpitik goiera:
Hargatik hanbat gostarik segurera denean,
Milla esker ere otsoari hark ez zioen erran.

Otso hura bezai tonto
Badire yendetan asko:
Agintzen zaioteneke
Aboro gasna ogi baiño:
Yauzten dire berehala;
Eta itsutuak bezala,
Hek galtzera diazila,
Ez dire ohartzen ondotik
Berandu denean baizik.

Intresezko egitekotan aise ez zaitela enbarga,
Baiña aitzinietik ezazu zuhur zenbait konsulta:
Eta zure iduripenaz zaite mesfida bethi,
Hala nahi laitekena sinhetsten baita errexki.

HERBIA ETA APOARMATUA

Apoarmatuak behiñ,
Herbi zangokariari,
Zoiñek lasterrago kurri,
Desfio zion egin.

Yokatzen dautzut, diotzo, nahi duzun bezanbat,
Zu bezain laster naizela heltzen gaiñtto hartarat.
Herbiak derro, arreba, burutik egiñ zaitzu,
Sangria baten beharra nere ustez badukezu:
Zoiñ lehenka zuk niri! —Bai, oraiño hartan nago;
Goazen bada, dio, horla nahi duzunaz gero.

Hek zer zuten pariatu
Eta yuietzat nor hartu:
Ez dakhar istorioak,
Guti inporta du gauzak.

Herbi ariñak heltzeko aski zuzken laur yauzi,
Nolako behar orduan hark egiten baidaki.
Noizeta ora huiatuez luzaro segitua,
Urrun baitu utzten gibela heien oste unhatua.
Gure burxoroa beraz, baduelakotz asti,
Beha aireari badabill, han alha, hemen yauzi.
Bertzea aldiz partitzen da matrona bat iduri,
Urri daramatza urhatsak, baiña badoa bethi.
Bide-erdian duen arren yadan hunek pasatu;
Koxko-ariñek eztu nahi oraiñon abiatu:
Haiñ aise irabazteaz baita yauna nardatzen;
Parioaz bertzetan da hura oraiño dostatzen.
Ohartu denean noizbait bertzea hurbill dela;
Eta heltzeko laur urhats apenaz dituela:
Herresaka lantzatzen da fletxa ariñaren pare,
Baiña brinko eta yauziak orduan alfer dire.
Urhats-urrik bethi ganez aitzindu du panttupan.
Deskantsatzen dagolarik, baderro ere musikan:

Oh! zangokari handia!
Zuk ere utz niri garaia?



Zer zen beraz gerthatuko
 Ukhan bazindu bidean,
 Nik bezala bizkarrean,
 Etxe bat garraiatzeko?
 Herbi xoro haren pare
 Gaztetan asko badire:
 Izpirituz eta eskolaz orratuak baitire,
 Dosteta eta ergelkeriez baizen ez dakusate.
 Berant hasirik ere ustez dutela hek egiñen,
 Bertzek goiz hasirik ere nekhez dutena egiten.
 Bere adiñik ederrena dutenean gastatu,
 Lothzen dire urthe galduak nahiz erreparatu:
 Baiña ikhusten dute laster, munduan omen ona,
 Prenda orotarik ez dela gutien beharrena.

ASTOA ETA BERE NAUSIAK

Baratze zaiñ baten asto-zahartua
 Bethi bere zorte beraz unhatua
 Munduaren yabeari
 Pleiñtaz zagokion bethi:
 Alba ethorri baiño lehen
 Zutela yaiki-arazten:
 Eta iollarraren kantua
 Bethi zuela aitzindua.
 Eta hori zertarako?
 Ahalik eta goizenik
 Belhar berdez kargaturik
 Merkatura partitzeko.
 Pardi! zer inportantzia
 Hautsteko nik lo ezta!
 Bada zoria unkitua pleiñta samiñetarat,
 Ikhusteko emaiten dio nonbait bertze nausi bat.
 Baratze-zaiñak utzia, kurtidorrak hartzen du,
 Baiña bere erratekoak hemen ere baditu.
 Larruak zaizka pisusko bere bizkarrentzat,
 Urriña eziñ yasanezko bere sudurrarentzat.
 Oxala oraiño banintz ni, ziotzan hark miñekin,
 Haiñ aise utzi leheneko nere nausiarekin!
 Bedere hark zuenean bertze aldera behatzen,
 Aza-osto bat edo bertze, nik arrapatzen nuen:
 Eta kaprixa hori deus ez zitzaitan gostatzen.
 Aldiz deusetako hemen ez duket paradarik,
 Ez biltzeko bertze deusik bastoi kolperik baizik.
 Berriz ere oraiño beraz zaio zortea aldatzen;
 Ikatzkiñ baten arrolan apuntatua da azken,
 Hau ere ez zaio komeni, pleiñtak are darizko,
 Zoria azkenean legez koleran sartzen zaio:
 Zer bada diotza miñki,
 Beharri luze hau xoilki,
 Izan behar da gaitzago
 Neretzat gobernatzeko,



Ehun printze betan baiño?
 Uste ahal du hori baizik,
 Eztela kontent ez denik?
 Eta ene griña bakharra
 Dela yaun horren afera?

Arrazoiñ zuen zoriak
 Oro gare horla eginak:
 Zorte ukhanaz nihoiz ere
 Satifatuak ez gaude.
 Bethi estatu azkena
 Diduritzazu tzarrena:
 Baita hauzoak dukena
 Orotarik hoberena.

Estatu, athorra diña, bagiñdu xanyatzeko,
 Zeruari bethi pleintaz, halere giñaudezko:
 Baduke astoak urus, hemen izan nahia,
 Bizi huntan baidaduka, esperantza guzia;
 Haren filosofia oro, baita hill eta akabo,
 Har ahal bezanbat plazer, hemen hartzera dago.
 Bizi hobe baten usna, khristauak aldiz baitu,
 Hemen urus izaitezaz, hagitx ez dauka kontu:
 Hobe den hura noizbait, dukeien seguratu,
 Den emaille, den eskaille, griña xoilla hura du.

MIGA, AHUNTZA ETA ARDIA, LEHOINAREKIN PARTZUN

Ahuntza eta miga aizpa ardia lagun
 Lehoiñ yaunarekin yarri ziren partzun:
 Partzuner hoberik segur bazuketan;
 Baiña eginak egiñ, gibela ez zoazken.
 Egiñ zuten beraz patu gerorako,
 Kalte, irabaziak berdiñ partitzeko:
 Ahuntzak sarean orkatx bat hartzen du,
 Eta partzunerrer daie egortzen mezu:
 Zathortzen, patuak zakharren bezala
 Katura egiñaren betan partitzera.
 Bateratu direnean, lehoiñak patarekiñ,
 Kondatzen ditu laur parte xuxen berearekin:
 Gero orkatxaren gorphutza egiñ eta laur zathi,
 Laur zathiak partitzea hula zaio komeni.

Hartzen dut nere lehena
 Lehoiña baitut izena.
 Birdena ere badaramat,
 Hortako baitut dretxo bat,
 Eziñ ukha daitekera,
 Naizelakotz hazkarrena.
 Herena ere daukat nere
 Ni bainaiz aithorensese.
 Laugarrenaren hartzera
 Nihor atrebitzen bada,
 Zuetarik, yakiñada
 Bertan ithoko dudala.

Eta ya apetituz ere billkuian nausi baitzen,
 Laur zathiak hexurrekin hark iretzi zituen.

Lehoiñ tiranoak, egiñ yustizia,
 Yende artean ere, ohi da ikhusia,
 Hazkarren denaren fede oneraz gero,
 Nor berearekin, gelditzen da arraro:



Kontzientzia ere bazterrera utzia,
 Tontokeriatzat hurren idukia:
 Giza-artetik goibeldu zen,
 Eta gan zen notarien
 Ez dakit bihotzetara
 Baiña tintatokitara.

ORKATZA BERE BURUARI BEHA ITHURRI BATEAN

Orkhatz bat zagola behiñ ithurri klar batean,
 Bere buruari beha uraren mirallean:
 Bere adar haltoez hagitx zagon satifatua,
 Aliz zangar mehen bistan handizki gaitzitua;
 Apenaz hek aradatzaren baitzuten tamaiñoa
 Heien itzala ere urean iraupen gutikoa.
 Zer diferentzia nitan zangotarik burura,
 Hark zerran auhenez, heien ikhusirik itxura.
 Xara gorenean gaiñetik agertzen dut kopeta,
 Aldiz zangarren moldurak ahalketua nauka.

Hola mintzo dela oraindik
 Herbiko zakur bat yinik
 Yauz arazten du laurenka
 Bere alegiñaz iheska:
 Badoa oihan, xaretara
 Biziaren salbatzera.
 Baiña han edergaillua,
 Berak hanbat laudatua,
 Kaltekor zaio gerthatzen:
 Zeren ordu guzietan
 Xarapeko laharretan
 Baitu tristea enbrazatzen.
 Hunen oiñ leialek ere,
 Eziñ konplitua dute,
 Bere ohitu zerbitzua,
 Hanbat aldi prezatua.
 Orduan miñekiñ dio,
 Zeruak niri zertako
 Daut eman garraiatzeko
 Ondikozko edergaillua
 Kopetako aparailua?



Orkatz hura bezain xoro garela zait iduri,
 Probetxos zaizuna dugu prezatzen ohi guti:
 Kaltekor edo inutillaz, hartuagoak gaude.
 Intres, ospe, edertasunak, lilluratzen gaituzte.
 Berthute, erligioneak, desgustu demaigute:
 Hauk gabe hek bitartean, zer dukete balio?
 Gogoari guk oxala, maiz hori bagiñerro!

IGELA ETA ARRATOIÑA

Badakhar atxularrek,
 Edo bertze norbaitek,
 Orhoitzen ez naiz zoiñek:
 Bertzak hartu nahia,
 Heier hedatu saretan,
 Gutien duen ustean,
 Bera dagola eroria.

Egia hunentzat froga bertze asko baliteke,
 Baiñan ondoko fablea oraingo aski daiteke.
 Arratoiñ bat gordoa eta hobekien hazia,
 Ezzaukana ez garizuma, ez gartha, ez biyilia:
 Intzura baten hegian egun batez zebillan,
 Izpiritua arintzeko bakharrrik pasietan.
 Igel bat dathorko, eta bere erdaran baderro:
 Zatho enekin, eta ederki biak gare askalduko.
 Baietz kuxian baderro arratoiñ jaunak phozik
 Gonbidu lkuzeagoen etzuen hark beharrik.
 Allegatzen zituen bai, eta baino gozoa,
 Eta lurrezko bidaia guziz plazerezkoa:
 Eta hanbat gauza arraro, denak ikhuskariak,
 Intzurak bere inguruan hedatzen zituenak:
 Zer etzuen hark bilduko
 Bere haurrer kondatzeko!
 Bazter heietako xarmak,
 Hetako yenden ohitzak:
 Eta estatu ordukoa
 Erresuma hezekoa!

Baiña pontu batek zeukan gehien huzkurtua;
 Igerika ez baitzen hura hanbatik ohitua:
 Igelak laster horrentzat badu erreparua.
 Zure patta nere oiñari lothurik datxakola,
 Diotzo, eta ihi batek egin zuen afera.
 Dutenean hek konplitu horla malobra hori,
 Intzurako uretan dire enbargatzen braboki.
 Baiña kostatik dire bai zabalerat urrundu,



Bestalea igel banditak ondoratu nahi du:
 Eman fedearen eta lege guzien kontra;
 Ase on bat bata haren mamiez egin-gura.
 Zathia nere iduriko hoberenatarik zen,
 Gormantak ya bi begiez iretsia ere zuen.
 Bertzeak zerua deithzen du tretuaz lekhuko:
 Baiña traidorea orduan aise trufatzen zaio.
 Batek tira, isti bertzeak, horla direla hari,
 Miru batek ikhusten du goietik gudu hori:
 Yan xahar han zebillala arrundaren egiten,
 Barura hautsteko zerbait aurkitu non zukeien.
 Arratoiaren bizkarraz belbetan gurendua,
 Hegal-ukhaldi batez da haren gaiñeratua.

Harturik atzaparretan,
 Badarama gora airetan;
 Baiña denbora berean
 Oro badarraizko betan:
 Ihiarekin igela
 Bi katura egiñik horla
 Miru Yaunaren bihotza,
 Lorian igeri dautza.

Bide hortaz egun hartan, bai zukeien ederki,
 Bazkari on egiteko arraiñ eta haragi.

Gonbidu guzici, bethi ez ihardets,
 Elhe ezti guziak, ez errexi sinhets:
 Ase on baten gatik, etxetik ez yalgi,
 Ez illkiaz nehork eztu ukhan urriki;
 Baiña illki izanaz, askotan bai naski.
 Segurki kanpoan, ezaituzte yanen,
 Baiña yuiatuko, nola duzun yaten:
 Yatera atrebitzen, apenaz bazare,
 Milla eskerka husu, hari bazare ere.
 Peisant gaizotzat, pasatuko zare.
 Aldiz baldiñ haiñitz, zuk yaten baduzu,
 Eta plat bat nekhez, itzurtzen bazaitzu:
 Gormant ospea hor, segura dauzazu.

Segur holako omena
 Ez baita munduan daiten ederrena.
 Behiñ ere beraz, uste ez dezazula,
 Nihor zu beharrez hirritsan dagola:
 Nihoiz ere kasik, ezta gonbidatzen,
 Errefusatuko, delakoan baizen.



HERBIAREN BEHARRIAK

Animale adardun batek egin ziotzan noizbait,
 Lehoiñ soberanoari, mamian uspel zenbait.
 Hunek betbetan kolera handienak harturik,
 Eta ez zakiontzat gertha aboro horlakorik:
 Nola abre eta azinda oren sortzez errege baitzen,
 Bere erresuma langoan publika-razi zuen:
 Bestia edozeiñ adarrak, zakhartzana kopetan,
 Haren lurretarik urrun aldebat zediñ haztan.
 Ordu beretik ahari, ahuntz eta zezenak,
 Suntsitu ziren betbetan, baita orkartz iziperak;
 Konformatzeko ordenari,
 Bat etzen gelditu nagi.
 Herbi batek atherian iguzkitan zatzala,
 Erremarkatzen du bere beharrien itzala:
 Eta zire bezala hek luzexko iduriturik,
 Beldurrak yotzen du zenbait salatari nahasik,
 Erreporta dezan egiñ erregeren gorthean
 Adar egiazko batzu dakhartzala kopetan.
 Harzo, adio, banoazu, diotzo xoxoari,
 Nere beharriek adar lidurikete naski:
 Balire ere laburrago
 Indioilloarenak baino;
 Halarik ere ez ninteke
 Beldurrik batere gabe.
 Nola! horiek adarrak? hori ziñez diozu?
 Xoxoak diotzo: beraz zuiatzat naozazu?
 Ez, ez, beharriak dire, Yainko onak eginak;
 Ordean adartzat dire izanen idukiak,
 Herbiak dio; eta kontra nik nerraken guzia,
 Laiteke zaragozako zoroen erasia.

Egiaz gure herbia,
 Etzen zentzuz bilhuzia:
 Baitzaukan bere iduria,
 Nausi tirano batentzat,

Eztela gaitz den obra bat,
 Behar orduan adarra
 Xanyatzea beharrira
 Edo beharria berdin adarrera:
 Eta egitea lohia
 Inozentzia garbia.



AXERIA BUSTANAZ GABETUA

Axeri zahar bat, baina ernenetarik,
 Nonbre gabe lapiñ eta oillo iretsirik,
 Inguruan urrun hagitz ospatua:
 Fiñean izan zen artean hartua.

Nola ez dakit handik itzuri zen yauna,
 Ez oso, baiñan han utzirik bustana:

Atheraia, diot, gibela motztua,
 Eta afruntu hortaz net ahalkatua:

Nola abilla baitzen, oro ukhайтеko
 Gibel-aldardiaz bera bezalako:

Axeri guziek biltzar egun batez
 Zedukatelarik asko bertze gauzez:

Baderra bere xaindean:

Zertako guk gibelean

Karga alfer hori dilindan?

Zikiñ khentzen hari dela

Ezkartza diduriela?

Buztan hau zertako dugu?

Ez, ez, behar dugu motztu:

Eta segurki nere oldez,

Ez derrake batek ezetz

Batek badiotzo, zure iduripena,

Nere oldez ez laite segur gaitztoena:

Baiñan itzul ziate-ia plazer baduzu,

Errepusta gero adituren duzu.

Hitz hoietarat egiñ zen halako karkaria,

Non buztan-motza nahiz zen ya mintzatu nahia,

Mutu baitzen egon arras, harritia guzia.

Nola khentzeko buztana,

Alfer bai zaiteken lana;

Eta galdua denbora:

Segitu zen moda bera.

Axeri buztan motztuak, egiñ zuena bera,
 Yenden artean hainitzek, dute egiten ardura:
 Berek dutelakotz galdu, yendetan prezioa,
 Zeren duten pratikatzen, haltoki bizioa:
 Bertzeak bere iduriko, billhaka detzaketen
 Beren hitz eta etsenpluez, bethi dire ensaiatzen.
 Eta zoriz urusago, axeri hura baiño,
 Bere ohitza tzarretara, daramate asko zoro:
 Zoiñek heiekin baidute, galtzen bere omen ona,
 Ziñta urreztatua baiño, baliosago dena:
 Galduz gero nekhez baizen, beriz kobra ez daitena.



OTSOA ETA ZIGOIÑA

Otsoak yale tzar dire,
Herresaka iretsten dute:
Gaitz gertha dakiokete.

Hala nola bati behiñ gerthatzer baitzitzaion,
Yoko txar bat hexur batek bada egiter baitzion:
Egun batez bestakari bazkaitan hari zela;
Ohi bezala poxiñak laster zaramatzala;
Bildots hexur bat barnaxko gelditurik trebeska,
Egitera prest zagoen ya bere testamenta:
Hitz bat ere eziñ egiñez, etsitua dagola,
Zigoïña bat han hurbilldik badathor pasatzera.

Kheïnu bat egiten dio,
Hau fite badathorkio:
Nola baita ere zigoïña,
Presunarik hoberena
Bethitik hala izan dena:
Lotzen zaio berehala
Lanari tenore dela.

Mokoa sarturik barna hezurra dio khentzen;
Baiña zerbitzuarentzat saria ere galdetzen.
Zer! dio hark, zu paga nik? badaitekeia hori?
Ene arreba maitheñoa, trufatzen zare naski:
Etzare kontent lepoa baituzu zuk osorik
Athera gibelat nere hortz zorrotzen artetik?
Zoaz, esker gabe bat zare
Eta urrun ni-ganik zaude.
Zigoïñak, eta asko bertze, zigoïñak ez direnek,
Deus egiñ ezdute nahi, saria ez badute hek:
Bertze nihon ez baidute, deusik igurikitzen,
Hemen pagoa ezbadute, hagitz dire khexatzen.
Aldiz khristauak bertzetan, uste baitu saria,
Hemen pagoa ukhaiteaz, hagitz ez dauka antsia:
Hark egiñ ongia gaitzkiz, pagatua bada ere;
Obra on hura galdutz , hark ez dauka halere:
Aitziñat ongiegetetik ez da gelditzen ere.

ZALDIA ETA OTSOA

Primadera sartzerako egun goxo-epheletan,
Zuhaitz, lahar, belhar, oro ernatzen direnean:
Beren egoitzak utzirik animale guziak,
Dabilltzanean non kausi bizitzeko beharrak.
Otso bat negu luzeko dietaz unhatua,
Eta yakituzko yanaz aphur bat herbaldua.
Yautsten da menditik, eta lehen begi-kolpean,
Ikhusten du haraneko phentze gizen batean,
Emana zaldi gaztebat errekeitu hezean.

Pentsa zazu ikhuskaria
Zoin zen loriagarria!
Zer zathia, dio, haxe!
Bahiñdaukat nik oraintxe,
Harahan mendi-gainean,
Nere kroatik dilindan!
Oxala bahintz zikiro!
Nere kontua egiñ hiro.
Hemen hargatik nere ustez,
Yokatu behar naiz artez.
Ez badaite otsoarena,
Dugun axeriarena.

Goazen beraz; eta urhatsak kondatuz astiroki,
Yaunari zaio hurbiltzen gure otsoa maltzurki;
Agur, konpai, diduritzait duzulakotz txar-aldi,
Errekeitu fresko huntan zaituztela libre utzi:
Mediku zelebren baten dizipulu izatua
Belhar suerte guzien puxantzaz yakintsua:
Banathortzu eskaintzera urrik zerbitzua.
Nihaurk erratea ezta edere, baiña ezta izatu gaitzik,
Ibilli naizen tokitan, sendatu ez dudarik:
Ager zadazu laiñoki bada dukezun miña,
Zure sendatzeko egiñen dut segur alegiña.
Abreak baderro atzeko zango baten azpian
Berriki zait handitsu bat athera erdi-erdian.



Ene haurra begirautzu
 Miñ tzarrenetarik duzu;
 Diotzo yaun medikoak:
 Hau dio tokiak berak.
 Hor berean sortzen dire
 Asko bertze gaitz traidore.

Baiña zaldi yaunek ere ni baithan konfiantza
 Badute; ikhasi baitut oraiño nik barbertza.
 Maltzurak bere erasian zuen xede guzia,
 Parada atzematea zen iretsteko eria.
 Zamariak, bere baithan zerbait iduriturik,
 Baderra, eztuk ez egiñen gaur horlako hirririk.
 Eta alegia deusik ez hedaturik zangarra
 Mediku yaunak hurbilldu dueneko sudurra,
 Uztarko sendo batez du hedatzen atzez gora,
 Hortzak bakhanduak, eta odola dariola.

Ederki egiñ zaitak, dio otso gaizoak,
 Bere baithan arras, ahalkeaz yoak:
 Nahi naiz izatu hari, bathikariokoan
 Ongi nahiz ez nakien, baizen karnazerkoan:
 Dagola bakotxa, bere ofizioan.

LEHOIÑA, OTSOA ETA AXERIA

Erromatismaz lothua,
 Eta adiñez eziñdua,
 Lehoiñ batek nahi zuen,
 Baitezpada ziozaten
 Aurki erremedioa
 Adiñaren kontrakoa.
 Gauza dela eziñ egiña
 Hori da gauza samiña,
 Erreger erran eziña.

Deitzen ditu beraz hunek arraza orotakoak,
 Medikuntza eta barbertzan yakiñ direlakoak:
 Badathorz lehiaz, ezen bakotxaren xedea,
 Da errege sendatuazko ardietstea ospea.
 Ethorri ziren yendetan axeria esta ikhusten,
 Baiña buru-kolpe batez etxe-alde da gelditzen.
 Hortaz laster otsoak du mintza-razten gorthea;
 Eta erregeren gogoan beltz en egitatea.
 Printzeak derra, kuxian axeri gaitztagiña,
 Bere egoitzan bedi bertan prisonier egiña:
 Bethorkit gero aitzinera amorez edo bortxaz,
 Berak kontu emaitera haren kontra erran denaz.

Badathor, eta agertzen da:
 Baiña ya yakintsu baita,
 Otsoaren lana dela
 Orduko tretu txar hura:
 Erraten dio erregeri:
 Yauna, zure aldean naski
 Hala ez dena kondaturik,
 Naokakete beltzturik;
 Meziprezioz orai arte
 Zuri homaia egiñ gabe
 Arauz egotu naizela:
 Yauna, gauza da bertzela.
 Beilla bat egiña nuen,
 Arren zu senda ziñtezen:



Hau konplitzen hari nintzen.
 Ditut ere ikhusi nere bidaiean,
 Asko yende aditu sabant medikuntzan:
 Eta orok diote zutan bertze gaitzik
 Eztela odolaren hotzetasuna baizik;
 Dathorrena xoilki zure adiñ handitik.
 Horren erremediotzat huna zer den komeni;
 Zure manuz otso eder bat bizirik larru bedi:
 Eta berehala haren bero-bero larrua,
 Bizkarretik har ezazu zerbaitez tinkatua.
 Pare gabea bethitik izatu da asmu hori,
 Indar ganak itzultzeko natura hebaiñari.
 Otso yauna gisa hortan, hau gaitzi ez bazaitzu,
 Ganbarako soñnekotzat zerbitzaturen zaitzu.
 Gustatzen zaio erregeri
 Errezeta simple hori:
 Murde otsoa da hartua,
 Larrutua, zathitua,
 Laur azpitan partitua.
 Eta monarkak egiten du mamiez afari,
 Eta beroki larruaz gorphutzaren estalki.

Lehoiñaren gorthean, ikhusi izan zena,
 Gorthe guzietan da, maiz ikhusten dena:
 Elkhar eziñ yasana, eziñ ikhusia,
 Elkhar engana, elkhar beltz, da hango bizia.
 Oxala mihi gaitztorik,
 Ez balitz gorthetan baizik!
 Baiñan izurrite hori,
 Alde orotara da isuri.
 Lehoiñaren gorthea aise, korreyitu zaiteken,
 Otsoaren etsenplua, hortako net ona zen:
 Baiña giza-artean egiñ, gauza bera ez baidaite,
 Medisenter gusta-razi, behar litzaiokeke,
 Larrua khenduz ezpada, bertze moldez bedere.

ATSOA ETA BI NESKATOAK

Atso batek bazituen bi neskato berekiñ,
 Iruten hari zitzaizkon, biak abillak berdiñ.
 Heien aldean herriko atso irulle guziak
 Etziren bertzerik baizen liho gaztatzailleak.
 Ema zaharrak etzuen nihoiz berze griñarik,
 Lan eguneko nesker markatzekoa baizik.
 Iguzkia bere arrutan partitzeko aitzinetik,
 Alba agertu baiño lehen lebanteko uhartzetik,
 Ardatz, arrudak zebilltzan yadanik farra,
 farra baratu gabe zuntza bat bill, bertzea tira.
 Oillar diabru batek baitu kantari albakoa,
 Herresaka yauz-arazten atso diabruagoa.
 Hau, amarraturik erdi gerrian zaia tzar bat,
 Lanpa batekin bazoan xuxen xuxena oherat,
 Non, lorik hazkarren eta gozoenak hartuak
 Dohatsuki baitzauntzan bi neskame malurusak.
 Batek begi bat apenaz zuen erdi zabaltzen,
 Bertzeak estiran beso biak nekhez luzatzen:
 Eta biek, gaitzituak, ahopean zerraten:
 Oillar madarikatua! uze ez duk kantaturen.
 Eta erran zuten bezala,
 Egiña izatu zen hala:
 Hegastin malurusari,
 Atzarle goiztiarrari,
 Ixil zakion mokoia hautsi ziten lepoa.
 Hargatik ez zitzaien zortea hobetu.
 Sasitik athera eta baitziren berhoratu.
 Zeren gure atsoa ere oillarra gabe
 Ez baitzen gerthatu hobe.
 Ezen eskapa beldurrez bere oren ohitua,
 Baratzen ez zen iduri arima herratua:
 Gau guzia etxea zena zeukala asaldatua.



Gaitz bati alabaiña egiñ, dionak nahi itzuri,
 Uste ez zen handiago bat, hark du topatzen ohi.
 Gaitzik gabe mundu huntan, izan ez baitzaitezke,
 Ditutzunak pazientki, yasan hobe zintuzke:
 Zure pairuan orhoituz, bakharri ez zaudela,
 Baiña Yainkoa lekhuko, eta lagu duzula:
 Zoiñak haren gatik hemen, dukezuna pairatu,
 Ehunka bertzetan, berak, pagaturen bai dautzu.

ZAPATAINA ETA BANKIERA

Hirur xangok zadukaten alki baten gaiñean,
 Zapataiñtto bat hari zen kantuz bere lanean.

Goiz arrats etzen ixiltzen,
 Othuruntzatzeko baizen;
 Loria zen ikhstea
 Eta areago entzutea:
 Nola zarabillkan boza
 Gora behera itzulika!
 Bethi zagon kontentago
 Ema erdi berria baiño.

Aitzitik hauzoan zuen aberats okhatuak.
 Utziak zeuzkan aspaldi bai loa, bai kantuak.

Eziñ bertzela zaitekekn
 Bankero bat hura baitzen:
 Nihoiz alba hurbillean
 Sarthu nahi bazen lotan:

Zapatai erneak kantuz atzartzen zuen betan,
 Bankero logaleari hagitz zitzaion gaitzi
 Nolaz zeru arthatsuak moda etzuen ezarri;

Yaki eta ogiarekiñ
 Behar zaiteken orduan,
 Zediñ izan merkatuan,
 Loa ere betan sal-kidiñ.

Bere otelera hark deitzen du maistro kantaria,
 Hauzo, errazu zer duzun, urtheko irabazia?

Zapati madreak aldiz
 Ihardetsten dio hirriz:
 Nik eztut horla kondatzen,
 Ez nihoiz ere idukitzen,
 Bi yornal elkharren gainzka:
 Baiña ni kontent naduka,
 Yakiñak ene sabela
 Yanez eskas ez dagola:



Urthe buru batetik dudanean nik hasi,
 Bertze burua atzematen dudala kasik-bethi:
 Biba jaunaren grazia!
 Bada eguneko ogia.
 Errazu beraz egunak zer derautzun emaiten?
 —Gutiago, gehiago, nola ere den gerthatzen
 Makurtzen hargatik nau ni gauza batek halere,
 Han hemenka urthe luzean, asko besta baitire:
 Gure erreterak eztitu ahantzten nihoizere.
 Hauk gure ofiziokoak ohi dituzte galtzen,
 Lan-gabeko egunek zeren bi kalte badakharzten:
 Lehena ez irabaztea,
 Birdena aldiz gastatzea.
 Zapataña ren linguaia phoz eta naturala,
 Gustaturik bankerari, baderro berehala:
 Petan, nahi zaitut egun nik egiñ urusago,
 Thronuan ororen nausi yarria dena baiño.
 Horra ehun luis: goarda-zkitzu behartzen zareneko:
 Maistro Petani ordutik ziñez badiduritzo,
 Hura bezain aberatsik zeru-pean ez dela,
 Peruko urre-miak oro etxean dituela.
 Eta badioa alegera
 Diruaren zerratzer, a,
 Bere kutxa zaharrean
 Giltza herdoillaren pean.
 Baiña han zuen zerratu hark bere umore ona ere
 Adio kantu ariñak: gehiago ez dezake,
 Haren zintzur herstuduan bozak aurki pasaia;
 Loak ere arras utzi du, haren egon-tokia.
 Suspitxa, trantze eta griñak,
 Ditu hark bizi-lagunak.
 Egun guzia zaraman erne bethi begia:
 Gauaz sentitzen bazuen gathu baten yauzia,
 Baziduritzon dirua gathuak ebatsia.
 Giza gaizoa arkenean,
 Karta galtzeko menean,
 Badoatzu otelera

Aboro atzartzen ez zuen diruduna aurkitzera.
 Ori, ori, derro, yauna, horra zure dirua;
 Horren-gatik eztut nahi galdu loa, ez kantua.

Dirukoiak eztu xoilki kant eta loa galtzen,
 Eta gau-egunak oro khexagunez bethetzen:
 Baiña oraiño berthutea zaio egiten gaitzago
 Baita zeruko bidea, hagitx nekhezkoago:
 Khristok errana baidathor, aberats denarentzat,
 Guziz dela gaitz heltzea, zeruko erresumarat.
 Ez baita aise bidaiatzen, haiñbertze kargarekin,
 Ez athe hertsitik sartzen, haiñbertze bagaiekiñ.
 Kablea orratzetik ezen, pastzen da errexago
 Zeruko bortha hertsitik, aberats dena baiño.
 Zer yan, zer yauntz, non bizi zuk, baldiñ segur baduzu,
 Kontent zaudezi: san Pablok, horla erraten drautzu.



ARTZAINA ETA ITSASOA

Athaldearen gozotik itsasoaren hauzo,
Artzain bat bizi izan zen soseguan luzaro:

Fortuna xumea zuen;
Aitzitik hau segura zen.

Egun batez ikhusirik itsas-kosta hegian
Tresor asko zaudezila deskargatuak metan:

Gutizia lotzen zaio,
Bere arthaldea saltzeko:
Eta negoziatzeko
Diru harrek zirauetiño.

Bademo urari beraz zuen diru guzia,
Baiña kosta egiñik galtzen da zaraman untzia
Ordutik berriz hartzen du utzi ofizioa:
Baiña ezta ya zena lehen arthaldeko maistroa;
Aitzitik xoilki Patxiku artzain soldatekoa.
Zenbait urtheren buruan, bere irabazitarik,
Arthalde pollit baten da yabe egiten oraindik:
Eta egun batez haizeak ixilik zaudezela,
Barku betheak kostara plazentki zathorzela
Hola he! barku ederrak,
Diruketara ethorriak?
Dio: zoazte, zoazte, ni ganik bertzerat
Ez nago segur aboro ni nereza emaiterat.

Ez derrat ez hau airerat,
Ezta ere asmu funts-gabe bat:
Baiña esperientziatik, hartu yakitatea;
Hagitzez batik-batean, hobe dela ukhaitea,
Sos bakhar bat eskuetan,
Ezen ez hamar menturan:
Eta batbederak duela egoteko
Bere zortiaz satifo.

Anbizionearen

Eta itsasoaren

Dei inganagarriari,

Ez zaiola behar beharri ideki:

Hek entzun ukhanaz baldin, bat ongi bada heldu,
Hala egiñaz hamar miller, aldiz zaie urrikitu.
Irabazi gizenenak, urak ditu eskaiñtzen,
Baita haze eta tubonez, emanak eramaten.



HAURRA ETA ESKOLA-NAUSIA

Haur bat dostatzen zelarik ibai baten aldean,
 Ur handirat erori zen gaoxoa ustekabeen:
 Zeruak hala nahia, sahalts bat gerthatu zen,
 Zoiñak, esker Yainkari, salba-razi baitzuen:
 Zeukala, diot, tin-tinka sahotsaren adarra,
 Eskola nausi bat handik badathor pasatzera.
 Haurrak oyhu: hel zakizkit, non ez, galtzera noa;
 Oyhu miñetara noizbait itzultzen da maistroa:
 Eta aire idor bat harturik, duriz sasoiñ-kontra:

Ah! diotzo: zithal txarra!
 Ikhus-azue ladrea
 Zertara den funts-gabea!
 Kanailla horiek gero
 Har etzzatzue arthatzeko!
 Ala hoién burhasoak
 Baitire urrikaltzekoak!
 Gaitztagiñ hoiek gogoan
 Bethi behar egon griñan.
 Zer eztute sofritzeko!
 Zoiñ diren urrikaltzeko!

Eta erran gogoak erran ondoan hark astiro,
 Haurra ezarri zuen noizbait ibai-hegian gero.

Baiña o maistro elbatia,
 Utz-ak geroko erasia:
 Duken ondoan salbatu
 Egik orduan prediku.

Hemen ezta kondenatzen errient hura xoilki,
 Baiña oraiño asko bertze presuna hura iduri:
 Erasle eta kritikari, baita hanbat nausitxo,
 Egintza ooren gaiñean dutenak errateko.

Hula egiñ, hala erran bazen, hara gan, honera yin
 Gauza egiñ eta, bethi hek bazakiten zer egiñ:
 Ondotik kritika, abisu, letzioa eztute falta,
 Euskaldunak dioena bethi hill eta salda:
 Edo, hill eta abrea,
 Buztanean zaldarea.
 Holako yenden arraza hanbat da poblatua,
 Non baididuri zeruaz xoil benedikatua.



AGUDEA ETA ASTOA

Agude bat zioala asto baten gainean,
Phentze fresko gizen baten hegitik pasatzean
Abreari bademo han sartzeko lizentzia,
Han laster iñoka dabill alegera guzia;
 Ihauska, itzulika, hatzka,
 Uztarka, irrintziriñaka
Belhar ferdea alha-alditan arraso daramala
Edozeiñek kasu hartan egiñ zuken bezala.
 Baiña guti igurikia,
 Hor agertzen zaie etsaia.
Goazen ihesi diotza ikharan agudeak;
Ha! zertako? ihardetsten dio abre leleak?
Bi basta eta bi fardelez kargatuko naute ni?
Ez, ez, derro agudeak zolarik itzuri:
 Zer zaiket niri inporta
 Nork demadan niri basta?
 Zuhaur bazoaske itzuri;
 Laket-lekhu zait hau niri.
Etsai bakharra berdiñ guk yabea dugu bethi;
Euskara garbienean nik baderraitzut hori.

Gizari astoarekiñ, gerthatu zitzaiona,
Hura bera bertze askori, da gerthatzen zaiena:
Azpikoer baldiñ brida, largatzen badiote,
Nahi orduan alderat, eziñ bill detzakete:
Hunenbertze berek ezen, utzten diotenean,
Haiñbertze haiek diote, hartzen bere xaindean.
Astoari nola, nonbait laketzen bazaiote,
Aitek, zahar hark bezala, behar dute egiñ bide:
Batzuen eta bertzentzat, ez baita hori hobe.

DIRU-KOIA TRESORA GALDURIK

Zertako daite tresora,
Badago baldi alferra?
Bakharrik zurea dena,
Da zerbitzatzen zaitzuna.
Nahi nuke yakiñ beraz hanbat yende zoroek,
Urre, zillarrak metatzen bethi hari direnek,
 Zer duketen gehiago
 Bertzen gizon batek baiño?
Erromesena hek bezaiñ aberats dago obian,
Eta hura bezain pobre bizi dire gaiñ huntan.
Dizu-zale bat Esopok hemen dakhar etsenplu,
Zoiñek gauza net gustoski senti-arazten baitu:
Bere izanez gozatzeko harrek bazidurien,
Birden bizi bat oraiño zuela igurikitzen:
 Zuen urrea etzen haren,
 Bera bai zen urrearen.
Haren gozo bakharra zen bere diru maithea,
Gau, egun, ordu guziez gogoan ibilltzea:
 Eta hartarik hartzea,
 Sakrelio idukitzea.
Zioan edo zathorren, edan edo yan zezan,
Harentzat ustekabea ongi behar zen izan.
Baldin hark bazakharren gogoan fitsatua,
Haren dirua lurpean gordea zen lekhua.
Hainbertze tornu hark toki hartara egiñ zituen,
Non lezoiñgille bat hortaz noizbait ohartu baitzen:
 Eta asmatu rik yokoa
 Miratu zuen zilhoa;
 Eraman han zen dirua
 Eta iduki sekretua.
Gure zikoitza zenean geroago haratu,
Diruaren ohatzea zuen xoilki aurkitu.
 Gaizoa eman zen nigarrez,
 Auhēn eta deiadarrez:



Eziñ zaiteken konsola.
 Horla desolan dagola,
 Norbaitek galdetzen dio zerk duen hortaratu?
 —Ene tresora baidautet, diotza, niri hartu.
 —Zure tresora non bada? —Lauza horren hegian
 —Zer hoiñ urrun ezartzeko gerla dea herrian?
 Ez zinduen bada hobe idukitzea etxean
 Giltza segur baten pean?
 Behar ordu guzietan orduan zuk han aise
 Hartu zindukeien bethi hartarik lanyer gabe.
 Bethi! diotza, ay zerua! hori ere badugu?
 Doan bezañ aise naski dirua dathorkigu?
 Nihoiz unkitzen ez nuen.
 Orduan, bertzeak, arren
 Zer diabrutako zinduen?
 Haren tokian emazu,
 Harri bat nahi baduzu;
 Haiñ baliaturen zaitzu.

YABEAREN BEGIA

Orkhatz bat herio-suhar heia bateratu zen,
 Zoiñtan errara idi batzu hausnarrean baitzauden
 Arrotzari baderrote betbetan xutiturik,
 Bertzen nobait gordetzera doala fite handik.
 Anaiak, derroik hunek, nere bizi az doha,
 Othoiztzen zaituztet arren ez nazazuen salha.

Nik ere zuer ordainez
 Nere ibilliaren bidez;
 Xuxen dautzuet erranen,
 Alha-pide onak non diren.
 Askotan zerbitzuhori
 Balios zuentzat ongi,
 Izan daiteke segurki.

Zer gertha ere daie idiek agiñtzen sekretua,
 Zoko illhun batean laster goibeltzen da billdua:
 Hatsa aise hartzen du eta badago trankilldua.
 Illhuntean ohi gisa manyatera, arrastelak,
 Belhar berde eta zuhaiñez nasai dire betheak:

Sehiak goiti-beheiti,
 Hara-hunat ehun aldi,
 Badabilltza antsiatuak:
 Are etxe-gizonak berak
 Agertze bat egiten du:
 Baina hau ere ezta ohartu
 Zokoluan dagoenaz:
 Hunek salbo dauka beraz,
 Ordutik bere karkasa:
 Ya esker biziak diotza,
 Idien bihotz onari:
 Nahi du xoilki iguriki,
 Yendea oro landetara;
 Doan bere lanetara:
 Lanyer gabe zen tokitik,
 Illki zedintzat gorderik.



Abre batek baderro ere; ederki doa lana,
 Baiña ezta agertu oraino giza ehun begi duna:
 Hunen bisita zuretzat guziz da lotsagarri,
 Han arte, orkatz tristea, ez erran salbo naiz ni.
 Hortan nausia badathor, ikhustera betbetan:

Hau zer da? dio koleran;
 Arrastela, manyaterak
 Zergatik daude erdi hutsak?
 Azpi hauk egiñ beharrak?
 Deithzen tu bere sehiak:
 Hots! laster zuhaiñ tegira.
 Behintzat hemendik hara,
 Aditzen dut ene abreak
 Daiten arthatuagoak.
 Zergatik utz paretetan
 Marbalo lan hauk dilindan?
 Golde eta uztarri hauk ere
 Bertzela arrima ez daitezke?

Begiak darabillzkala heia zoko orotarat,
 Azkenean ikhusten du lehen etzen buru bat.

Orkatza da ezagutua,
 Hilltzera kondenatua;
 Orok zoiñ-gehiagoka,
 Phazota lodi kolpeka,
 Han berean dute ehotzen:
 Deus ez zaizko baliatzen,
 Ez, begitarte ezta,
 Ez nigarrezko isuria;
 Salba ez dezake bizia.
 Andetan badaramate,
 Zathitan gazitzen dute:
 Eta hauzoak billdurik
 Egiten dute ase-onik.

—Bego bethi, derra Esopol nausiaren begia,
 Ikhusteko gauza nehor bertzek ez ikhusia:
 Nik aldiz etsaiarena dadukat haiñ argia.

BURDIÑEZKO ELTZEA ETA LURREZKOA

Burdiñezko eltzeak lurrezko eltzeari,
 Erran zion, goazen biak bidaiari:
 Eskusatu zen hau: zerralarik ezen
 Hobe zitziola hagitz iduritzen,
 Sukhalde xokoa gaordatzea bethi:
 Ezen lukenekotz ber tokia utzi,
 Gauzarik mendrena lizatekela aski

Haren kolpatzeko,
 Baita ehun zathitan bertan ezartzeko.
 Aldiz zuk, diotzo, larrua ez baituzu
 Hagitzez nere bezaiñ delikatu:
 Beldurtzeko estuzu holako deus ere,
 Eta nora nahi zu bazoazke aise.
 Burdiñezko eltzeak ihardetsten dio,
 Lauier gerizean zaitut idukiko.
 Gogorxko zerbaitek yotzeko menean,
 Zu kausi zaitezkenean:
 Kolpea hartzetik zu begiratzeko,
 Artetik naiz pasatuko.
 Eskaiñtza eder horrek dio emaiten gogo;
 Burdiñezko aizpa ere aldera dathorko:
 Eta bi presunak hirurna zangotan,
 Badoaz maiñguka daigiketen gisan.
 Harrixkorik baldin topatzen badute,
 Bata bertzeari yoka hari dire
 Lurrezko eltzeak haiñ patitzen zuen,
 Non hola ehun urhats egiñ baiño, lehen,
 Konpaiak baitzuen puketan ezarri:
 Baiñan ez zaiteken zorte hortaz pleiñi.

Alde-bat xuhur baduzu, zure herrunkan zaude
 Handiago direnekin, ez zaitezela kide:
 Non ez, lurrezko eltzearen, zortea daite zure.



DIRUKOIA ETA URREZKO ARRAULTZE EGILLE OILLOA

Zikoitzak guzia nahiz, guzia ohi du galtzen
 Hala nola gaizo batek behiñ egiñ baitzuen;
 Fable hunek dakarrena baldiñ egia bada,
 Lafontenek edo Esopok gauza kondatua da.
 Egun guziet zioen oillo batek leialki
 Urrezko arroltze bat xuxen erroten yabeari
 Hunek aldiz pentsaturik oillo harrek sabela,
 Tresor oso batez betan bethea zadukala;
 Hiltzen du eta idekitzen,
 Eta harritua aurkitzen,
 Difuntuak etzuela bere barnean deusik,
 Deus ematen ez zioten oilloek ez zutenik.
 Eta bere buruari ziola haiñ zoroki,
 Eguneko errenta ona bethiko gal-arazi.

Zikoitzek nahi badute
 Ezkola hor har bezate:
 Zenbategi gure egunetan
 Aberatstu nahiz betan,
 Daukatena segurean
 Duten ezartzen menturan!
 Nahiz ukhan ez dutena,
 Galtzen dute badutena:
 Eta gaur bizitzekoa, ausarki bazutenak
 Aurkitzen dire biharko, kolpez erromesenak.

LIBURU BIGARRENAREN AKABANTZA

LIBURU HIRURGARRENA



AXERIA, XIMINOA ETA ANIMALEAK

Lehoiñ bat luzaro oraiño bizi ustea hill zen,
Zoiña, bizia zueiño errege puxant baitzen.

Beraz hill zenean, haren peko ziren
Animalek orok billtzar egiñ zuten;
Behar zutela egiñ froga bakhunkoa;
Zoiñi zoakoken hark utzi khoroa;
Errege izaiteko haren pkazajia,
Atheratzen dute khoroa kaxatik
Zointan altxatua baitzagon bethitik.
Aldizka guziek entsaiatzen dute,
Baiñan izariko batek ere ez duke:
Batzuk ttikiegi baidute kaskoa,
Bertzen larriegi hunen tamaiñoa:
Hauk berriz adarrak kopetan goregi,
Beharria astoak guti bat luzegi:
Ximinoak ere hirriz dagoela
Froga bera egiten du bertzek bezala
Eta dostatzeko miratzen tyara.
Badabillzka inguru baillitz inustria,
Milla grimasa, eta ximinokeria:
Brinko zalhu batez khora barnetik,
Pasatzen da hala, nola uztai batetik:
Animalek hori haiñ dute ederretsi,
Non orok baitute printzetzat onetsi.
Bakotxak egiten dio bere agurra;
Orotarik xoilki axeri maltzurra,
Egiñ den hautuaz dago gaitzitua:
Baiña agertzen eztu batere kherua.
Konplimendutto bat hark ere egiñ eta,
Baderro erregeri: beraz yaun monarka,
Toki bat badkit bertzek ez yakiña
Tresor aberats bat gordea daukana.
Bada legea da, horrelako aurkiñtzak
Bere dituela zure maiestateak.

Nihoiz izan diren bertze erregen pare,
Errege berria baita tresor-zale:
Aiphatu lekhura bera da gan nahi,
Ez dadintzat arren trunpatua geldí.
Arte bat zagon han ongi harmatua,
Ximinoa hartan izan zen hartua.
Billtzarraren partez axeriak dio,
Eztutela egiñek deusere balio.

Heronek heure burua gobernatu ezin duk,
Eta hik gobernatu gu guziak nahi gaituk?
Kargu emana kuxian beraz khendu zioten:
Eta oro orduan klaro ikhusi zuten,
Errege izaitea dukenik merezi
Ezdaitekela aurki baizen hagitz guti.

Animaleek orduan zertan egiñ ez zuten,
Gizonen kasu berean ohi dutena egiten?

Khendurik azken monarka
Iphiñtzen errepublika?
Nik ez dakit zeren gatik:
Fableak ez dakhar deusik.
Aitzitik bertzek zergatik
Gauza hura ezartzen dute
Bada oraiño hemen ere,
Berdiñ diot: ez dakit nik.

Zoiñ den hoberena, gauza bietrik
Yuiatzeko dezagun utz, arbola fruitutarik.
Bethiko esperientziak, gauza da irakhatsia,
Bordaria ontzen ezteela, mudatuz maiz nausia:
Ez aberatssten sehia, xanyatuz maiz tokia.
Yendeak ere diduri mudantza husutarik,
Nihoiz guti dakharrela, kargaren gutimenik:
Gutiago onant zaren nihoiz berratzapenik.



GATHU ZAHARRA ETA SAGU GAZTEA

Sagu gazteño bat mundura berria,
Guti ikhusia eta haiñ guti ikasia:
Gathu zahar bati zagokon othoitzez,
Hura ematu nahiz bere arrazoiñ onez.

Bizitzerat utz nazazu
Naizen bezalako sagu
Tiki-tiki pasa-errex, a,
Izan daitekeia karga
Etxearentzat batere?
Baliduritzaitzuke othe
Etxe huntan yaun andreak,
Eta daitezken bertzeak,
Hill detzakela goseak,
Nik yaten dudana-gatik?
Ogi bihi bat bakharrik
Aski da nere asetzeko;
Eltxaur bat ere segurik
Arras ni biribiltzeko

Mehe naiz oraiño: nazazu utz aphur bat;
Errepas hau bego zure ume yaunentzat.
Horla sagu gazte zori-gaitzekoa
Gathuari mintzo zitzaion laiñoa
Trunpatu haiz bada, bertzeak diotzo:
Horlako diskurtsak niri hedatzeko.
Gathu zahar batek nihoiz barkhatzea!
Bertzelakoa dun bethitik legea.

Lege horren arabera,
Hill-hadi, ta berehala
Hail toki goibeletara
Hire arengak egitera
Ene hurrek aski bertze
Errepas ukhanen diñe.

Ez zuen faltatu errana egitea.
Huna fable hunen morala simplea.

Gazteak bere baithan, fidantzia asko du,
Errexki guzietan, du uste azertatu:
Aitzitik zaharra, gogorra da erraiez,
Ez bera, ez unki hau, ez daiteke deusez:
Bi default hautarik, zoin da gaitztoena?
Ene oldez segurik, da zaharrarena:
Ezen gazteenak, erresurtsa badu,
Esperientziak, korreyitzen baitu:
Aldiz zaharrarena, da erresurtsa gabe
Esperientziaz, muda ez baidaiteske.



ORKHATZ'Z ERIA

Orkatzen herrian behin orkatz bat eritu zen;
 Haren etzantzara laster haiñitz kide yñ ziren:
 Ikhustera, laguntzera,
 Bedere kontsolatzera.
 Bethi zaioke eriarri
 Oste hori khexagarri.

Ah! yaunak, utz nazazue, trankill, othoi, hilltzera;
 Eta herioa bertzek bezala segitzera: Ez daritela negarrek!
 Baiñan ez: kontsolariak
 Egiñbide triste hori
 Bethi nahi dute osoki.
 Goan ziren baa azkenean,
 Yainkoak nahi ephean:
 Ez hargatik edan gabe,
 Erran nahi da; egin gabe
 Alha-aldi bat bedere.

Haritztegi hauzokotan denak barraiatu rik
 Alhapideak oro utzi zituzten larrutu rik.
 Errekeitua eriarri zitzaion hagitz motztu,
 Plat onik ya ez zuen zeren ukhaitea pentsatu:
 Gaitz batetik erori zen areago batera,
 Eta azkenean ethorri osoki barurtzera
 Eta goseak hilltzera.

Eriak ezditu xoilki kontuan hartzekoak,
 Mediku, sendagaillutan egiñ diren gastoak:
 Ahal bezaiñ laster diru, onez pagatzekoak.
 Bisitari, kontseillari, eta gua-beillaritan,
 Arno fiñ, likur, xokolot, eta mazapanetan,
 Hanbat aise badoako, nola purga, aiutetan.
 Urus, diotzatenean, erresurtsak gutitzen,
 Hitzketez ez badiote, bere gitza berretzen.

LEHOIÑA ZAHARTUA

Urthez eziñdua zagoen lehoiña
 Oyhanak aspaldi ikharan zauzkana:
 Eta orai galdua balore iragana.
 Azpikoek beraz atakatu zuten,
 Hura ezintzean hek hazkartu baitziren.
 Ostiko batez du yotzen zamariak,
 Adar-ukhaldika sistatzen idiak,
 Otsoak ez daizka guphide ausikiak.
 Lehoiñ malurusak, ezindua, triste,
 Orho illhun bat egiñ apenaz dezake:
 Bere zorteari sumetitzen zaiio;
 Pleiñta alferrik ere batere ez dario.
 Baiña ikhsuten du bai dagoen lekhura,
 Badathorkiola are astoa bera:
 Ay! ay! hau diotzo, zaitak soberaxe:
 Prest nindagoken bai hilltzera hementxe:
 Baiña hire-ganik laido nik hartzea,
 Bietan zaitak hilltzea.

Gazte, sendo, handi denak herbal eta ttipia,
 Munduan ohi dauka deus, gutitzat idukia:
 Tontokeria handia!

Ezen ardura ikhusten da, puxantena bebetan,
 Guzien meneko egiña plaiñu eta auhenetan:
 Eta asto sendoak duke, balio gehiago
 Lehoiñ eri denak baiño.



EDAILLEA ETA BERE EMAZTEA

Badu nork bere defauta
 Zoinetara bihurtzen hura bethi baita:
 Ahalkeak ez lotsak ez dezake aparta.
 Hunen gainean dathorkit kondaira bat gogora,
 Zoiña etsenplu batez orai bainoa finkatzera.
 Bakhusen debot on batek zaramatzen galtzera
 Bere osasuna, zentzua, baita are boltsa bera.
 Ezen holakoak nekhez dire bidez erditan,
 Non ya kausitzen baitire bere sos ondarretan.
 Hunek guziz emaztea zaokan gaitzitua,
 Ahotik baitzaramakon menaiuko dirua.
 Giza korreyitu nahiz asmu hau egiñ zuen;
 Behar bada ema ezkonduak oraindik ez zakiten:
 Ez derrotet nik hargatik hek pratika dezaten.
 Arrats batez bvereziki
 Zitzaionean ethorri,
 Hark nola baitzuen ohi:
 Ezin egongisa xutik,
 Aihen-ysak hartarik,
 Boteillan zentzua utzirik
 Ezartzen du damak tonba orde batean,
 Arno berriaren lainazek koiñetan
 Astiro iraki baitziozaketen.
 Atzartzean kolpez hor da giza ohartzen,
 Hilltzerako tresnez dela inguratua:
 Xirio luze bat aldan phitztua,
 Hill-mihisea ere gaiñetik hartua,
 Eta harako-han ur bendikatua.
 Ay! ay! diotza, hau zer da? alhargun duta andrea?
 Ordu berean da agertzen haren sahets tendrea,
 Estalki luze batean gorphutza trozaturua,
 Maska bat bisaian eta mintzoa mudaturua:
 Alde guziez arima herratu bat iduri,
 Badoako emeki-emeki hurbill hill-ordeari.
 Eskaiñtzen dio saltsa bat satanentzat egiña,

Ordutik senharrak eztu dudarik xumeena,
 Egoitatzat eztuela ifernuko barrena.

Nor haizen erradak, dero fantasmari:
 Erresuma goibelesko despentsaria nauk ni;
 Huna dathorzen orori nik zemetet yatera:
 Gizak kuxian baderra:
 Ez demoten edatera?

Fabletto huni nere ustez, bi gauza badarraizko.
 Bata, edateko ohitzari, darraiona luzesko.
 Haren esklabo dagola, hilltzeko orduraino
 Baita kasik haratago,
 Fableko giza lekhuko.
 Bigarrena, ema ezkonduak, ez dukeiala ondolik
 Moienik, korreyitzeko, senharra biziotik.
 Aitziañetik behar dela, sahets ona hautatu,
 Utzirik gazte deboxa, gazte prestua hartu:
 Eta tristeak hautuan, trunpatu direnean,
 Gozorik ez duketela, baizikan othoitzean,
 Gurutzearen aldean.
 Non ez duten nahiago, senharrekin trinkatu,
 Bi burutan etxeari, biek betan eman su:
 Nola gure tokietan, maiz ikhusten baitugu.



ZUHUR BATEN ERRANA

Gizon bat hari zen
Behiñ etxe egiten
Baiña gizon handi bat zen
Izen Socrate zuen.

Orok kritikatzten zuten haren lana.
Batek zerran, egiazki etxearen barrena,
Holako yaun bati segur ezta doakokena;
Bertze batek aldiz zion: etxe aitzindegia hori,
Ez zait iduritzen ongi ni naizen sinpleari.

Guziek zioten apartimenduak
Hertsi zirela eta hagitzez eskasak.
Zer egon-tokia horlako batentzat!
Bira ere ezin kasik hart eta hunat!

Yaunak, oxala, diotza,
Dena bethe ahal baneza
Adiskide egiazkoez,
Prestu, fiñ eta iraunkorrez!
Zuhurrak arrazoin zuen,
Zenbait frogia egiñ zukeien:
Halakoentzat etxea
Handiegia aurkitzea.

Bethi da bere mihian adiskide nor nahi;
Baiña erhoa da fidatzen, zaiोजना hitzari.
Izena da komunena,
Iana aldiz bakhanena.

ASTOA ERLEKIEKIN

Asto-bat zioalarik
Erlekiez kargaturik,
Buruan ezarri zuen
Hura zutela adoratzten.
Hartua hortaz burua
Bazoan fanfarrundua;
Intsentsua eta kantikak
Zaduzkalarik guziak
Ziñez beretzatekoak.
Nor bait hortaz oharturik
Khentzeko haren kaskotik,
Pentsamendu supher hori;
Baderro abre gaizoari:
Enganatzen zare, beharri-luzea!
Zure idukitzean oraiko ohorea:
Gloria hau oro ez doatzu zuri,
Baiña darama zunari.

Gauza bat da hagitz, maiz ikhustekoa,
Doktor baten balioa,
Dela haren soiñekoa:
Hark duen arropa ez balu,
Nork luke ezen hartaz kontu?



ORKATZA ETA MAHATSTEIA

Ora eta ihiztariz behiñ orkatz bat bortxatua,
 Mahatsti hautiñ batean sarthu zen etsitua:
 Eta hartan edirenik gordetzeko tokia.
 Salbatu zuen bizia.
 Ihiztariek ordutik dute pentsamendua
 Orkatzaren arratoa dutela orek galdua.
 Deitzen dituzte oinetara
 Aphur bat deskantsatzera.
 Eta orkatza lanyeretik itzuria doiean,
 Ongigillari hortzez lotzen zaio gosean.
 Badaitekeia esker eskas beltzagorik lurtean?
 Baiña orek aditu dute,
 Berriz hara billtzen dire:
 Handik dute yauz-arazten,
 Alde orotarik herstutzen.
 Azkenean han berera,
 Tristeia dathor hilltzera.
 Gaztigu hau, dio, legez dut merezi:
 Ingrata, zu huntaz balia zaitezi.
 Erortzen a bertan. Eta orak billdurik
 Asetzen dire hartarik.
 Alfertu ihiztarier erakutsi negarrak,
 Haukien erraiak daude ohi bezaiñ gogorrak.
 Munduan esker eskasa, da gauza itsusiena,
 Gezur eta ohoiñtzarekiñ, berdiñ ezartzen dena:
 Aldiz fedearen bistan, hagitx areago da,
 Khristau baten obenetan, handiena hau baita.
 Gaitzki egillari on-egin behar badio,
 Onegillari hark zor, horlatan zer eztió?
 Esker itzultzeko plazan, laido badu egiten,
 Izen gabeko mustro bat, baizen ezta gelditzen.

LEHOINA ETA ASTOA IHIZIAN

Animalen erregeak behiñ xede egiñ zuen,
 Egiten ihizta aldi bat, bere besta baitzuen.
 Lehoiñaren ihizia
 Ezta ez hegastin ttikia;
 Baiñan edo basurdea
 Edo orkatz har edo emea.
 Bada egitekoa zoakontzat ongi
 Astoa zuen hark hartu zerbitzari.
 Sortzeak emanik hunek nola baitu
 Boz hazkar bat zoiñak parerik ez baitu:
 Beharri-luz beraz kordexazalari
 Zitzaion izatu musde lehoiñari.
 Hunek eman zuen panttupa batean,
 Abar heze meta handi baten pean.
 Erran zion handik orho egiñ zezala,
 Bulharrek eman ahala.
 Hunen arramantzak pentsatzen baitzuen
 Beren etxetarik kolpez eraikiren,
 Zituela trantzituak
 Laur atzetako guziak,
 Gutien iziak berak.
 Oste hau oraino etzen ohitua
 Entzutn haren boz espantagaillua;
 Airetan zebillan trunboiaren pare:
 Oyhantarrak oro lotsa eta herabe,
 Zoazela ihesi, denak bazathorzen
 Toki zorizkora, zointan baitzaogoen
 Ethortzekoaz yakiña
 Ephaitzan gure lehoiña.
 Ez duta egun ederki nik irabazi yornala?
 Dio astoak, gloria oro bere hartzen duela?
 Bai, bai, diotzo lehoiñak, orho egiñ duk gothorki
 Hire eta hire arrazaren ez banakik nik berri
 Lotsa ninteken nerorri.
 Balitz astoa atrebitu,



Koleran zaiteken sarthu:

Nahiz bada burla hori

Legez zoakoken hari

Ezen norik dezake yasan fanfarrandua astoa?

Segur karatera haiek eztute hortakoa.

Handiek duteño, ttipien beharra,

Ezdute guphide, lausengu maltzurra:

Baiña egiñ dute bai, hek bere yokoa,

Aise dute ahantzten, zor duten pagoa.

Lanaren saria, zaie bai eskatzen,

Urus afruntutzat, ez badute hartzen;

Eta laidorekin, gibelat egortzen.

IGELAK ERREGE-GALDEZ

Igelak errepublikaz lehenago unhatuak,

Eta errege batez nahiz izan gobernatuak:

Eman ziren Yupiterri oro betan oyhuka,

Eman zezakoten arren desiratu monarka.

Erori zitzaien lagoa gaiñerat

Zerutik berbetan printze bakhezko bat.

Baiña hanbat hunek erortzearekin,

Intzura guzian zuen azantza egiñ

Non, yende igerikaria,

Arraza ergel eta izia,

Ikharatua guzia;

Suntsitu baitzen iheska;

Edo urpera pulunpaka,

Edo seska eta ihipera

Intzurak zituen zilhoska orotara;

Luzaro ez zirela lotsaz atrebitzen

Printzea ikhustera nolakoa othe zen:

Bonaparte bat zeukaten,

Eta hura laza bat zen,

Zoiñaren bultuak baitzuen harritu

Ikhusi behar zuela,

Xilotik atheratzera

Lehen zena benturatu

Hurbilltzen da, baina ikharan dagola;

Egiten du bertze batek hark bezala:

Ondoan badathorz xinaurrien pare,

Oste ergela gero haiñ da egiten trebe,

Non baidiote erregeri

Gaiñerat egiten yauzi.

Monarka gaizoak oro yasaiten tu;

Sosegutik deusek ez duke mugitu:

Yupiñek laster du burua arraildua.

Oyhuz dagokio berriz populua,

Emaguzu, dio, printze dabillken bat:

Lertsun bat egortzen daie monarkatzat.



Hunek, hill eta banazka,
 Iretsiz badaramatza.
 Igeler hura ere pleiñtak darizkote:
 Yupiñek orduan legez baderroie:
 Zer bada zuen nahien
 Gathibo garela izanen,
 Pentsatu ahal duzue?
 Behar ziñduten atxiki gobernu hastekoa:
 Baiña zindutenaz gero bertzelako gogoa,
 Aski behar zitzaizuen printze hastapenkoa
 Zen bezala zediñ izan eztia eta maltsoa.
 Bada duzuen hau, onhets ezazue
 Non ez, txarrago bat, emanen zaitzue.

OTSOA, AHUNTZA ETA PITTIKA

Ahuntzak, behiñ zoala
 Hauzoko belhar berrira,
 Errapea bethetzea;
 Maatillaz bere bortha
 Hetsi zuen: erran eta
 Pittika bere umeari:
 Behautzu idek nihori!
 Haurra, biziaren penan;
 Non ez dautzuketen erran;
 Adiskide seinaleztat:
 Gaitza dela otsoarentzat,
 Eta haren kastarentzat.
 Hark hiltz hoiek erratean
 Otsoa pasatu zen han;
 Hunek, kontuz billdu eta,
 Gogoan tiñki badauzka.
 Gormanta orduan segurki
 Amak ez zuen ikhusi.
 Hau gantxe deneko handik,
 Hunen mintzoa harturik
 Eta boza meheturik
 Badoako pittikari
 Nahi dion ez ideki;
 Drrolarik seinaleztat.
 Gaitza del otsoarentzat.
 Eta uste zuen zuxean
 Sarthu behar zea etxean.
 Pittikak, beldurti bethi, ttarttetik du behatzen:
 Patta xuria ikhus? non-ez, nik eztut idekitzen;
 Da haren lehen mintzoa.
 Baiña pata horlakoa
 Otsoen artean guti da usatua
 Gauza den bezala oroz yakiñdua.
 Mintzo hori aditzeaz estonitua osoki,
 Otsoa yiñ zen bezala handik goan zen prudenki



Pittika, non izanen zen
 Sinhetsi izan bazuen
 Hitz seiñaletzat emana,
 Lehenago otsoak gerthuz atzema?

Munduko egitekotan, kalte eztela diduri,
 Segurantzaz ukhaitea, baten plazan bahi bi:
 Egundaiño nihork eztu, sobraz gibelat utzi.

OTSOA ARTZAIN BILLHAKATUA

Otso batek ikhusirik gutituaz zoala,
 Inguruko ardiatarik billtzen zuen grabela:
 Gogoratu zuen zela harentzat hoberena
 Egitea kasu hartan hark axeriarena.

Artzaiñ gisa da beztitzen,
 Kapusaill bate estaltzen:
 Bastoi bat ere egiten du
 Xirola ere ahantzten eztu.
 Yokoa zediñ konplia,
 Hark eskribuz ezarria,
 Eman zukien gogotik
 Zariola kapelutik:
 «Ni naiz Manoel artzaiña
 Arthalde handi hunena».

Bere presuna horrela duenean konpondu,
 Eta bastoaren puntan bi patak arrimatu:
 Alegiazko Manoel hurbiltzen da oiñ bat oiñ bi
 Orduan lo zagon tinki
 Manoel egiazkoa
 Sorhopilean gaizoa
 Lo zagon ere zakurra
 Baita xirola meharra:
 Lo zauden ardiak ere
 Gehientsuak bedere.

Madreak utzten dauzkitzu oro diren bezala:
 Baiña ardiak billdu nahiz hark bere korralera,
 Bertze artzaiñak bezala oyhu egiñ nahi izan zuen,
 Komeni hala iduritzen zela baitzitzaioen.

Hementxe ekibokatu zen,
 Yokoa ere agertu zuen:
 Artzaiñak bezala oyhua eziñ egiñ baitzuen.
 Baiña egiñ zuen orhoa
 Oyhana iharrostekoa.
 Hunen hotsera guziak
 Mutill, zakur eta ardiak



Betan iratzarri ziren.
 Otsoak ordutik zer egin bazuen.
 Eziñ itzur, ez defenda,
 Kapotea baitzen traba;
 Bere kontua ukhan zuen,
 Nola merezi baitzuen.

Bere yokoa ez darama hipokritak luzaro,
 Ustekabez prestamuzko maska erortzen baitzaio:
 Eta orduan guzietz da, legez arbuiatua,
 Nola baita izaiten bethi, gezurti frogauta.
 Bakotxa ager bedi beraz, bethi den bezalako.
 Bertze edozeiñ default barkha, dakiokoe aiseago,
 Trunpatu nahia baiño.

HERBIA ETA IGELAK

Herbi bat bere xiloan
 Zagon behi pentsaketan:
 (Ezen zer egiñ zeldetan
 Ezpadago gogoetan!)
 Gaixoa bazagon beraz
 Hartua melankoliaz.
 Animal hau triste da,
 Eta lotsak hiran dauka:
 Yende iziperak hark dio,
 Zoiñ diren urrikaltzeko!

Yaten dutenek ere onik egiñ ez dezokete
 Plazer garbi bat nihoiz ez: bethi trantzean daude.
 Horra nola naizen bizi
 Lotsa ondikozkoak niri
 Loa ere daut ebakitzen:
 Niholere nihoiz ezen
 Har ez dezaket pausurik
 Begiak zabalik baizik.

Korreyi zaitte derrake kasko zenbait zuhurrek:
 Helas! izipertasuna khen dezakeia deusek?
 Are, lainoki derradan, sinhetsia daukat nik,
 Gizek ere badutela nik dudan gaitz huntarik.

Horla zerasala herbi beldurtiak,
 Erne alde orotara zauzkan beharriak.
 Osto bat, haize bat, ez deus, itzal simplea bera,
 Askí zen hari betbetan emaiteko sukarra.
 Amets horietan zagola sarthua,
 Gure azinda triste, melankoliatua;
 Hots ariñ bat zaio beharritaritzen,
 Eta fite zaio ihesari lotzen

Intzura baten hegitik zoalarik laurenka,
 Igelak ikhusten ditu yauzten urera osteka:
 Ah! dio nere beldurra bada norbait duenik,
 Bertzek nola niri, bertzer hala egiten daiet nik.



Naizeneko agertu oro lotsa dire,
 Kanpak ere ikharan daude.
 Zer! animaleka detzadan nik izi
 Gerlako ozpiña bat izango naiz naski?

Alabaiña segur ezta nehor haiñ pultrun denik;
 Kausi ez dukenik bera baiño pultrunagorik:
 Yaunari esker munduan, bada guzietarik;
 Hautarik ez gutienik.

TRESORA ETA BI GIZONAK

Gizon bat zituen oroz gabetua,
 Kreditik gabe eta sakelan diabrua;
 Erran nahi da deusik ez:
 Asmu egiñ zuen ziñez,
 Haren hoberena zela,
 Bertze askok ohi bezala,
 Fiñatzeko atsekabea
 Bere burua ukhatzea:
 Berdiñ hark ez bazen, goseak hau bera
 Laster egiñen zuela:
 Zoiña baita segur heriotze gisa,
 Bizi-gura direnentzat hagitx guti gustosa:
 Badio ordu beretik etxe tzar batetarat
 Bere xede ondikoakoa pratikan emaiterat,
 Daramalarik soka bat.
 Hau nahi du itze batez seguratu paretan,
 Baiña murru zahartua lehen maillu kolpean
 Erortzen da, eta tresor bat dathor harekin betan.
 Biltzen du gure etsituak, badarama boztua;
 Badioa urreaekiñ, utzirik kaprestua.
 Kondatu gabe ere, suma itsura da hartua.
 Galaia doala handik istapeka,
 Yabea badathor tresoraren xerka:
 Dirua aurkitzen du bertzetara goana.
 Zorigaitz hori zen hark ezin yasana.
 Zer! diotza, suma hau ni galdurik nadiñ bizi!
 Eta ez naiz ordu berean urkhatuko nerorri?
 Bai eta hala egingen dut,
 Non ez, soka ukhanen eztut
 Kaprestua han zagoen;
 Xoilki gizona falta zen.
 Hartzen du hau eskutara;
 Egiñik urkha-billurra,
 Tinkatuz hartan zintzurra,
 Badoa bertze mundura.



Eta hunek zeukan naski hura konsolatua,
Bertze batek zuela egiñ, lazearen gastua:
Eta horrela ukhan zuen, gerthuaren drolea!
Diruak bera nola, sokak bere yabea.

Dirukoi giza hilltzean, ez daite negar gabe,
Bere tresora berekiñ, hark ez baidaramake.
Nekhez billdu zituenak, utzten ditu bertzentzat,
Ahaiden, ohoiñen edo bedere lurrarentzat:
Billduez gozatu gabe, den gaizoa miñekiñ,
Bertze aldean agertzen da begi larrituekin
Hemengoa baitu; bethikotzat galdu,
Hango bethikoa, ez aldiz beretu.

XIMINOA ETA GATHUA

Yakot ximinoak eta Mim gathuak lehen,
Etxe bera, mahaiñ bera eta nausi bera zuten.
Aziñda gaitzagiñezko horra ene ustez pare on bat:
Ausart eta maltzur ziren bat bertzea bezanbat:
Nihoren beldur etziren,
Edozeiñ izan zaiteken.
Etxean bazen deus nihoiz eskas edo hasirik,
Akusatzen etzen nihor hauzoko yendetarik:
Yakot zen ohoiña bethi;
Eta bere aldetik Mimi,
Saguer baiño erneago zagokion gasnari.
Gure bi frikun maistroak egun batez zaudela,
Erretzen hautspean zauden gaztaiñ batzuer beira:
Hauien eskamotatzea,
Hek zioten: zer kolpea!
Madreek ikhusten zuten hor abantaill doblea,
Bere ona lehenik, ea gero bertzen kaltea:
Yakotet derro Mimirri,
Bada egun doakik hiri
Kolpe on baten egitea;
Hauts-petik atheratzea,
Bokado gozo horiek:
Ya ezen dantzatu lituzkek,
Yaio izan baninduk ni
Gaztai erreak hautsetik atheratzeko egoki.
Egidak atsegiñ hori?
Lotzeko ez zuken Mimik
Othoitzen luze beharrik.
Erran bezaiñ laster egiñ
Mimik modu haiñitzekiñ,
Hdaturik patta surat,
Baztertzen du hautsa aphur bat:
Eta gibelat erhiak
Badakhartz beroegiak:



Gero berriz luzaturik,
 Badakhar gaztaiñ bat sutik;
 Bertze bat hunen ondolik:
 Hirurgarren bat oraiñdik:
 Yakotek ethor ahal
 Badaramatza tripara.
 Baiña neskatsa hor dathor: adio nere galaiak,
 Penaz utzirik gaztaiak:
 Handik itzuri gan ziren
 Mimi kontent ez omen zen.

Erreboluzionetan horla dire gelditzen,
 Fanfarrun barrikadetan, direnak gudukatzen:
 Gaizzoek egiñ tortilla, baitute abillek yaten.
 Populu soberanoa, den ondoan nekhatu,
 Menbroez, edo biziaz, denean han puntxatu,
 Xarlatanek dutenean, yokoa seguratu;
 Oyhuz diotela: biba nazione handia!
 Elhe ederrez daienean, eman ferekaldia:
 Doble karga bademote, laster abereari,
 Eta baldiñ eziñdua, badago hura nagü,
 Merke bastoi ukhaldia:
 Biba populu handia!

LEHOIÑ ERIA ETA AXERIA

Animalen erregeak
 Zilhoan eri zauntzanak
 Bere azpiko guzieri
 Ordena zaien egorri:
 Arraza ziren guziek,
 Adardun, adargabeek,
 Bidal zetzaten gorthera
 Monarka bisitatzera,
 Deputatu hautatuak;
 Zauzkala segurthatuak
 Berak, baita are segidak,
 Lehoiñ hitzaren azpian;
 Aurkituren zutela han
 Kariño eta begitarte:
 Segurantza ere bertzalde
 Hortz eta atzaparren kontra:
 Ez baitzen hau gauza alferra.
 Pasaporte on bat oraiño
 Trankill bidea egiteko.
 Printzearen dekretua
 Izatu zen konplitua:
 Alde orotarik gan ziren
 Haiñitz yende, zoinak lehen.
 Axeriak ziren xoilki
 Etxe alde egotu prudentki:
 Batek egitate horren
 Arrazoin hau eman zuen:
 Zilhora gan yenden oiñen bideko arrastoak,
 Dire oro haratekoak.
 Aldiz bisitatik nihor gibelat yin othe den,
 Batek ere eztu markatzen.
 Horrek gaduzka beldurti:
 Haren maiestateak guri
 Digula beraz dispentsa:
 Pasaporta goarda beza.



Yauna use dut ona dela:
 Baiña haren gaztelura,
 Ikhusten dut asko sartzen,
 Eta bat ere ez illkitzen.

Behiñere ez balu egiñ, axeriak treturik
 Fable hunek dakharrena, baiño gaitztoagorik:
 Duen fama tzarra segur, ez zuken garraiatu
 Ezen zuhurtzia bera denak erraiten dauku:
 Usoaren pare, izan zaite laiño,
 Zuk nihor ez trunpatzeko:
 Sugearen pare, erne bethi zaren,
 Bertzek engana ez zaitzaten.

ARRATOIÑA ETA ELEFANTA

Frantsesek geure buruak daduzkagu net handi,
 Egun guziek ikhusten den gauza bat da hori:
 Aire inportant bat da hartzen,
 Eta ezta gaizo bat baizen.
 Hau da bereziki Frantziako gaitza:
 Banitate ergela da gure primeza,
 Espaiñolak haidor dire duda gabe;
 Baiña bertzela bedere.
 Heien urguillua niri diduritzait, hitz batez,
 Erhoago hagitz, baiña ez haiñ gaizo haiñitez.
 Emakegun gurearen
 Itxura zenbait bederen.

Ttipienetarikako arratoiñ bat zegola,
 Handienetarikako elefant bati beira:
 Estai haltoko abre hunen ibill-aira torpeaz,
 Laur patta ariñen gaiñetik trufatzen zen hura arras.
 Bertzea bazoan bakhan eskipaia handian;
 Hirur alasetako abre largoaren soiñean,
 Printzesa turko bat hagitz famatua,
 Bere etxadia oro berekiñ hartua
 Gathua, ora, ximinoa,
 Perroketa, baita atsoa;
 Pelegriñ zioan beilla konplitzera;
 Turkoa pendi da romerietara.
 Arratoiña estonitzen zen,
 Yendeak nola zaudezen,
 Fabrika moldegaitz haren bultoaren miretsten:
 Guti edo haiñitz nonbait idukitzeak toki,
 Balemake bezala iñoiz arabera merezi.
 Baiñan, o gizonak, dio, zer duzue
 Bada horren baithan miretsten hoiñbertze?
 Haur-espantagaillu gorphutz larri hori?
 Egia derradan, duzue aski guti.



Garen ttikien guk guhaur gutiago
Batere ez daukagu elefanta baiño.

Aboro ere erranen zuen;

Baiña gathua orduantxe kaiolatik illki zen:

Eta gaiñera yauzirik erakutsi zioen

Arratoiña eta elefanta ez direla igualatzen.

ZAMARIA ETA ASTOA

Mundu huntan behar dugu elkhar bethi lagundu,

Lehen ere hori bere nonbait erran dukegu:

Baiña gauzak hiruretan erraten kalte eztu.

Elkhar behar da lagundu:

Hauzoa hilltzen bazaitzu

Haren karga zure duzu.

Beharri-luze bat behiñ bazioan,

Zaldi guti ikhasi baten konpaiñian.

Hunek bizkarrean basta hutsa zuen;

Asto gaizoa aldiz haiñ kargatua zen,

Non aboro ez baitzirauken.

Konpaia ohoitzten du sokorri dezala:

Heldu baiño lehen non ez hek hirira,

Hill-hotza eroriko zela.

Galde hunek xoka, diotza, ez zaitzake:

Kargaren erdia guk harturik ere,

Zuretzat dosteta laite.

Zaldiak, egortzen du pasaietarat

Botarik oraiño burlaz uztarko bat.

Haiñ ongi non bertan ikhusi batzuen,

Hill-gogorra astoa ezindua erortzen.

Urriki bazuken: ezen mementean

Karga eman zioten zena bizkarrean:

Eta pisa-goiti ona,

Larru difuntu arena.



ORA AHOKOA ITZALARENTZAT LARGATZEN DUENA

Munduan gauza batzuen
Itzalari darraizkonen,
Haiñ da handia nonbrea,
Non gaitz baita kondatzea.

Ziñbitakotan komun da gaizokeria hori:
Utzirik funtsezko gauza lotzea airekoari.
Baiña luar atzetakotan guziz da estonigarri.
Bedariak hala bada Lafontenek derrana,
Haukietan ere osoki guza ezta ezin-izana.

Ora bat, dio, zoala
Haragi zathi bat ahoan zeukala,
Ibai baten bazterrean:
Ikhusi zuen urean
Haragiaren itzala:
Hau ere behar zuela,
Yauzten da laster urera,
Ikhusia atzematera:
Baiña ahokoa du galtzen
Urekoa aldiz ez hartzen.
Betan urak handiturik
Ho ordean ibillirik,
Nekhez zen heldu hegira,
Haiñ gaizoki hark utzira.

Eta gelditu zen ahalkeaz gaiñdi,
Ez zadukalarik, ez itzal, ez zathi.

Berriz ere diot, gauza zait handia,
Orak larga dezan ahoko zathia
Harria non ez den, eta ez haragia.

AXERIA ETA MAHATSMULKOAK

Axeri bat behiñ zaharra eta fiña,
Ezen omen zen Gaskoiña,
Batzuen ustez Normana:
Dena dela hortaz, batetik bertzera,
Hagitz da yauzi laburra.
Trunpatu duela Normanak Gaskoiñik,
Edo bertzaldera Gaskoiñak Normanik,
Ezta nihoiz etsenplurik,
Nik dakidala segurik.
Axeri hau beraz goizeko freskuran
Zagon baztretxe baten inguruan
Oillo zenbaiten ephaizan:
Hartu zuken oillarra ere,
Den zaharrena halere:
Baiña deusik etzen yalgi.
Partiadan handik behatzen du goiti;
Eta ikhusten ditu treillatik daudela
Dilindaka zenbait mulko musketela
Kolorea hagitz eder zeukatela.
Ah! diotza, baldiñ atzeman banetza,
Hoitaz egiñ nire goizeko othuruntza!
Hartako egiten ditu alegiñak:
Baiña alfer ditu guziak.
Bah! dio azkenean, beude;
Oraiño berdesko daude.
Ez dire on bertze iñorentzat,
Baizen mutiko tzarrentzat:
Eta goan zen sereno haiñ
Gardiano aita bat bezaiñ.

Hobeki zukeiena egiñ
Hark aserretzearekin?



SENHARRA EMAZTEA ETA OHOIÑA

Gizontxo bat ezkondu zen,
 Nahitua aspaldi baitzen:
 Lagun zeukan maithea,
 Izanik ere emaztea:
 Hunek aldiz maithe etzuen
 Senharra arauz zeren zuen.

Egundaiño ez zion eman batere seiñalerik,
 Nahiko zuen bezala, maithe zuelakorik;
 Nihoiz solhas goxo, nihoiz hirrittorik
 Nihoiz deus ezkontzan zillegietarik.
 Gaizoak ez zuen are gerorako,
 Esperantza-kidin baizen gutiago.

Ez zuen beraz ikhusten harrek bertze zortetik
 Pazintzia eta barur sekulakoa baizik.
 Horla dagola gau batez, auhen eta plaiñutan,
 Ohoiñ bat agertzen zaie bere gelan betbetan.

Anderea lotsak yoa
 Herresaka badioa,
 Gizaren besoetara
 Lotsan gerize-ketara.

Oy! ohoiñ guziz maithea! dio orduan senharrak;
 Har zatzu, har etxe huntan, nahi tutzun guziak:

Har ezazu etxea ere.
 Ezen enetzat zu-gabe,
 Zen nihoiz eziñ ukhana,
 Orañ dudán zoriona.
 Behiñ erratea aski zen:
 Ohoiñak nola ohi diren,

Yende guti delikatu, malonest eta ausartak;
 Hunek gogara zituen bethe bere atzaparrak.

Hunek erakusten digu daitken klarkiena,
 Pasione guzietan, daiteken gogorrena,
 Izipertasuna dela:
 Ikhusi dugun bezala,

Denaz gero hazkarrago
 Higiñtza bera ere baiño.
 Amodioa baiño ere:
 Yakiñek hala diote.
 Erakutsten du oraino,
 Ezkontza urus izaiteko
 Eztela aski boltsakoa;
 Behar dela amodioa.

Ezen diru gabe ezkontza, purgatori bada,
 Ifernu da amodioa han aurkhitzen ezpada.



ITZAIÑA BASAN GELDITUA

Itzaiñ bat almazenera xistuz zoala behin,
Bezkoitzeko intha urtsuetan, orga bat zuhaiñekiñ:

Bozik zoala gaizoa,
Ikhusten dautzu karroa
Kolpe-kolpez gelditua,
Zilho batean sarthua.
Baserria nola baitzen
Laguntzak urrun zaudezen.

Ez zaiten aurkitu orduko apuroan,
Zen tokian baiño lekhu tzarragoan.

Zorteak nahi izan du bai itzaiñ bat erho-arazi?

Bezkoitzeko mugetara hel-arazi du bethi.

Guk zerua othoitz dezagun
Iduk gaitzan handik urrun.

Ematen zaitzu tristea, burho, yuramentuka,

Madarikatzen tuela bihotz osoz aldizka;

Zilho guziak lehenik,
Bere abereak ondotik,
Gero orga eziñ mugitua,
Azkenik bere burua.
Zakiskien arneguak
Aspalditik yakinduak,
Eta orai egiñ berriak
Erran ondoan guziak:

Arrapoa ahotik, besoak dilindan,
Zerurat oyhuka yartzen da errabian:
O zu! san Isidro santu zelebrea
Labrarien eta itzaïen habea!
Naizen apuroan urrikari nauzun
Ethor bekit zure besoa arren lagun.
Handia txit dago haren podorea,
Haiñ handia nola daukazun ospea:
Ikhus azu nere orgaren zortea.
Hor dago lothua xarma zenbaitekin,
Zilhotik ilkirikegizu gan dadiñ.

Asko lehen ere bertze mirakuillu,
Aditu dudanez, zuk egiñ dukezu.
Orazionea akabatua ez zen;
Hedoipetik horra non aditzen duen,

Boz bat hunela derrona:
Entzun ezak, o gizona!
Isidrok bada dik nahi
Dadiñ batbedera mugi:
Lagun zak heure burua,
Lagun dakiken zerua.
Ikhus-ak nondikakoa,
Den hire traba oraikoa.
Hots! khen zotek arruderi
Mortero diabruzko hori:
Bustiñ-basa ondikozkoa,
Zoiñak bai dauka karroa,
Haxeraiño zikindua
Eta zilhoan lotha.

Hots! hire ond-aitzurra harzak,
Harri hori porroska ezak;
Nibel zak panttupa hori,
Zillhaska hau bethe bedi.

Egiñ duk? —bai: bada oraintxe noakik laguntzera,

Dio bozak: har ezak hik akilloa eskutara.

Hartu dut: zer da hau? orga badoakit gogara.

Biba san Isidro! bedi laudatua.

Eta erremesiatua.

Hemen bozak derro: ikhusten duk horla,
Hire abreak hortik aise irten direla.

Lagun zak heure burua,
Lagun dakiken zerua.



OILLARRA ETA PERLA

Oillar bat kabazka behiñ hari zela,
 Perla eder bat zuen athera argitara:
 Harri preziatu marxant baten gana
 Badoa lasterrez, derrolarik, Yauna,
 Uste dut perla hau dela harri fiñ bat;
 Baiña diduritzait laitela neretzat
 Hagitz habeago bihi xeheren bat.
 Iñorant bat behiñ liburu-gai baten,
 Ondokotasunez primu kausitu zen:
 Inprentariari baderamakio;
 Ona dela hagitz uste dut, diotzo:
 Baiña pezeta bat baizik ez bada ere,
 Nere oldez neretzat nahiago nuke.

Biek nola biek, arrazoïña zuten:
 Bere aurkintzetarik, zer zuketzen ezen
 Athera berentzat, bertze probetxurik,
 Oillarrak perlatik, gizak liburutik,
 Bakotxak zuhurki, zuena egiñ baizik?
 Haiñ da egia beraz, usna eta zentzua
 Direla haiñ dohaiñ onak
 Eta gidari segurak,
 Nola yakitatez garnitu burua.

SUGEA ETA LIMA

Errana da suga batez (berme ez naiz hala dela),
 Lehenago harotx baten hauzoan bizi zela.
 (Segur harotxak hauzoa
 Ez zuen hanbatekoa).
 Sarthu zela beraz haren sutegian,
 Aurkitu zukeien yateko zerbait han:
 Eta ez edirenik han bertze frikorik,
 Lima atzeiruzko bat baizik:
 Huni zitziola lothu karra-karra ausikika:
 Limak ziola aldiz hula trankill egiñ musika:
 Zer iduritzen zaik iñorant sinplea?
 Zer egiñ gogo duk koxko fuiñ gabea?
 Hitaz gogorragoari,
 Hatzaiio enferratzzen eiki!
 Hire hortzak oro lehen tuk hautsiko,
 Ezenez baidautak hik niri khenduko
 Korrado baten laurdena:
 Ergela utzak hasi lana.
 Ez diat beldurtzen hortzik,
 Denbora hortzak baizik.

Hau zuer doakizue, karatera baxoak,
 Gorderik ausikilari, mihi ondikoizkoak:
 Yende on eta berthutoser, yazartzen diozue,
 Egiaz edo gezurraz, berdiñ dadukazue:
 Zuen pozoiña nolazpati, isur badukezue.
 Zuen xedea hargatik, eztuzue ardietsten,
 Zuen fletxa samiñenak, alfer baitire erortzen:
 Eta zenbat ere zuek, heiki yazarriago,
 Hanbatez heien ospeak, du distiatzenago
 Eta ez diozue, khentze gehiago
 Limari biperak, egiñ zion baiño.
 Zuek idurien, yazarmenak zeren
 Denak laudorio, biatire bihurtzen.
 Haiña da ezen bethi, mihiz ausartena,
 Zoiñak baitu bere, linya zikiñena.



OILLARRA ETA AXERIA

Oillar zahar bat luzaro fama handikoa izana,
Basakurteko kargua utzia ya zuena:
Haritz adarrean zagon sentiñel paratua,
Hori da heien artean zaharren enplegua.

Esperientzia handikoa baitzen,
Oillar hau fiña eta den maltzurrena zen.
Axeri bat bada hurbill badathorko
Eta eztituz boza hula zaio mintzo:
Agur, anai, bakhe dugu,
Gerlak akabo ditugu:
Baiña bakhe yenerala
Bethi balirau oxala!

Berri hori zuri nathor emaitera
Yauts zaite arren, zatho ni besarkatzera,
Bakhearen finkatzera.

Hemendik aitzin at asaldurik gabe
Zuen aferer hots demozuekete;
Guhaur ere zuen lagun bagathorzke.
Zatho, zatho deusez ez ukhan antsia,
Hitzaren esklabo bethi da axeria.
Ez nazazun iduk hemen gehiago:
Hogoi-ta-bortz lekua baitut egiteko:

Eta asko bertze egiteko:
Zorion horrentzat egitzue bestak.
Baiña bitartean, baterarik biak,
Nahi nuke ukhan hartua
Zure bakhezko musua.

Kide, derro oillarrak, ez zaiteken deusik
Plazer gehiago zemakidakenik
Berri handi hori baiño.
Baderraket ere oraño,
Atsegiña dela neretzat doblea,
Zure ahotik aditzea.

Baiña harako-han badathorz ora bi
Berri berarekin hek dathorzke naski;

Urhatsa hatte dakharte,
Mementean hemen dire.
Yautsten naiz: eta orok bilduak orduan,
Besarkatuko ahal elkhar dudu betan.
Axeriak aldiz banoa, diotzo,
Bide luzea ezen daukat egiteko:
Plazer eta bestak bertze aldi bateko.
Galaia laurenka badioa itzuri,
Xara, mendixketan gaiñdi;
Gauzaren segidaz kontent hagitx guti.
Eta oillarra haren lotsaz burlatu zen,
Bere baithan asko hirri egiñ zuen:
Arrazoin bazuen, ezen:

Atsegiña da doblea,
Trunparia trunpatzea.

LIBURU HIRURGARRENAREN AKABANTZA



LIBURU LAURGARRENA

MANDOA BERE ETHORKIAZ HARTUA

Abade baten mandoa
 Bere hidalgiaz hazia kaskoa
 Bere ama behorraz baizen etzen mintzo
 Kondatzen zituen haren egiñtza asko:
 Hark hau egiñ, izatu han
 Semeak segura zeukan
 Zela emana izanen istorioetan.
 Ziduritzon aphaltzea.
 Mediku bat ere soiñera hartzea.
 Baiña zenean zahartu,
 Eyharako zuten saldu.
 Orduan zen xoilki bere attaz orhoitu.

Malura ez balitz on, deus bertzetarako
 Baizen gaizo baten, eskolatzerako;
 Hortaz beraz legez, erran ahal laite,
 Zerbaitetarako, on dela halere.



YUPITER ETA BORDARIA

Yupiterrek lehen borda bat bazuen,
 Errentan zoiña eman nahi baitzukeien.
 Publikatu zuen haren etxegizak:
 Bordaria ordutik falta ez zuken bordak.
 Bada agertu ziren baten plazan bia:
 Laburra ez zaiteken heien erasia.
 Borda itzuli zuten alde orotarik.
 Hunek zerran, yauna, klaro ikhusten dut nik,
 Alhor hori dela nekhe handikoa
 Horko labrantza ere gastu bizikoa.
 Harren zion, lurrak hagitx patar daude,
 Hortik egarriak maiz pena detzake;
 Sustraiak bertzalde hurbill sobra eztire
 Horla biek hanbat baiña dute ezarri
 Deusik egiñ gabe non ya baidoazi.
 Batek, nola hura zen bertzea baiño,
 Zuhurrago ez segur, Baiña animosago,
 Azken hitzarentzat Yupiñi baderro:
 Zure borda hartzen dautzut:
 Baiña abantail bat behar dut.
 Erran suma ukhanen duzu,
 Baiña aldiz zuk emadazu
 Aireari manatzea,
 Nere gogara egitea,
 Edo haize, edo uria,
 Gopibela edo iguzkia.
 Tuzkedan arras aroak
 Bethi nahikarazkoak.
 Bademo Yupiñek eskatu duena.
 Horra beraz nere laborari yauna,
 Sasoiñen errege; dakharla gogara
 Ona edo tzarra denbora.
 Aldizka haize, edo uri,
 Orai goibel, sarri iguzki,
 Idor orai, heze sarri.

Eta oro bere izarirat;
 Baiña bakharrrik beretzat.
 Horiek guzietarik
 Hauzoek ez dute deusik
 Probetxurik gehiago
 Amerika-ñoek baiño.
 Hauientzat hobe izatu zen,
 Uzta ederra egiñ baitzuten:
 Bihiz bethe soillaruak,
 Ardoz ere bai guphelak
 Pribiliatuak aldiz
 Billdu zuen ere haiñitz,
 Osto, lasto, korbotx ere:
 Bihirik kasik batere.
 Hurren urtherako plama itzuli zuen,
 Kontrara sasoinak, biratu zituen.
 Baiñ izatu zen fruituez,
 Hazoek bai, hark bera ez.
 Ordutik zer egiñ? desesperatua,
 Yupiñi doako humiliatua.
 Eta kofesatuz bere inprudentzia,
 Othoitzen du barkha dezakon gaitzkia.
 Yupiterrek yabe on gisa,
 Barkhatu zion ofentsa.

 Erragun beraz ausarki
 Probidentziak segurki,
 Gerorrek baiño hobeki
 Duela ikhusten zuhurki
 Komeni zer zaikun guri.



ORA BEHARRIEZ GABETUA

Ora bati beharriak ebaki ziotzaten,
 Nahiz berari trabarik egiten ez zioten.
 Yabeak ber-berak ziotzan pikatu.
 Zer gisa ederrean nauten ni paratu!
 Lagunen artean agertzera oraintxe
 Nondik atrebi naiteke?
 Oy! animaleen errege urguillusak,
 Hobeki derradan, tyrano kruelak!
 Ezta bada izanen nor edo nor behiñ,
 Zaituztena utziko murriztuak berdiñ!
 Ordea hunen sangez,
 Eta marraska miñez,
 Zauden guti beratuak
 Motztaille kostumatuak
 Azorri baziduritzon asko zuela galdu.
 Baiña gero zen ohartu.
 Haiñitz zela probetxatu.
 Ezen nola zuen sortzez ardura bihurria,
 Bere kider zeukatena khentzera net pendia;
 Haiñitz okasionetan
 Etxera zuken eraman
 Menbro erregretatua,
 Dilindan sakaillatua.
 Ora liskartsuak bethi
 Beharria darama eri.

 Gauza da den hoberena
 Ahal bezaiñ gutiena.
 Bertzer lot-bide emaita
 Hartzen da atentziona,
 Toki bat denean xoilki goardatzeko,
 Hura ongi defendatzeko.
 Lekhuko da azor maistroa.

Eta haren itze-puntez garnitu lepokoa.
 Gaiñera, nola buruan, esku-gaiñean baiño
 Ez baitzakarren prudenki, beharri gehiago,
 Otoak berak ez zuken, han biderik lotzeko.



ZALDIA ETA ORKATZA

Mende zaharretan ez ziren zaldia
 Sortzez munduraten gizonen sehiak.
 Giza-kasta ezkurrez zenean neurritzen,
 Mula, asto, zaldia oyhanetan zauden:
 Ez zakiten ere kaprestua zer zen.
 Ez zen ikhusten orduan mende hautan bezala,
 Haiñbertze basta eta zela:
 Hanbat gerlako harnaxa,
 Haiñbertze karro ez karrosa.
 Ez zen ikhusten oraiño
 Haiñbertze ezta eta friko.
 Bada mende hetan zaldi batek behiñ,
 Liskar ukhan zuen orkatza batekin.
 Eta nola baitzen hau oiñkari ona
 Eta zamariak eziñ atzema;
 Hau zaio adrezatzen gizon artexari;
 Gartsuki othoizten du demon sokorri.
 Gizonak brida bat laster dio ezartzen,
 Eta bizkarrean yauziz zaio yartzen.
 Ordutik ez demo puasurik batere
 Non ezten orkatza
 Ahiturik hatsa
 Gelditu bizirik gabe.
 Hau egiñ eta, zaldia esker bihurtzen dio
 Giza ongi-egilleari: gero hunela derro:
 Adio: zure zerbitzari:
 Orai nahi naiz itzuli
 Lehengo oyhanetara ni.
 Gizonak dio: ez horixe;
 Sobera presatzen zare.
 Egonen zare gurekiñ:
 Ezen nik sobra dut yakiñ,
 Zer probetxu zure-ganik dudan athera-kidiñ.
 Zaude beraz, arren, zaude;
 Tratatua hemen ontsa izanen zare

Arrastela bethi berdez fornitua,
 Eta triparaiño nasai ihautua.
 Ah! mantenu onak zer gozo demake
 Bada, libertate gabe!
 Gaizoa izan zela zaldia obartu zen,
 Baiñan ez berantxe baizen.
 Egiña zagoen ya prest ezarria,
 Bizi-lekhutzat hark behar establia.
 Bethi egoitea estekan,
 Zen haren zorrea izan.
 Zuhurrago hagitz zaiteken agertu,
 Huts ariñ bat lehen hark balu barkhatu.

Nahi bezaiñ handia den, bengantzaren plazera,
 Karioegi zait niri, halere erosten dela;
 Harentzat emaiten bada, on preziatu hura
 Zoiña gabe bertzeak deus, segur oro ezpaitira.



GATHUA ETA AXERIA

Gathu bat eta axeri bat alegia bi saildu,
Behin debotki pelegrin biak ziren partitu.

Ay! zer hypokrit pareta!

Zer filur-maistro kublea!

Bere kolpea egiteko denean loth-bidea.

Halaber hek iragaiten ziren inguretan,

Oillo eta gasna askok zuten eskas egin etxetan:

Zoiñ gehiagoka hek hola zituzten,

Bere bidaiako gastuak ariñtzen.

Bidea nola zen luze, horlatan unhagarri;

Unhadura ebitatzeko disputan ziren hasi:

Disputank badakhar hortako sokorri:

Hau gabe ezin loa balathorke bethi.

Gure bi debotek zuten gora-gora,

Larrutu bere zintzurra.

Zutenean biek asko argudiatu;

Nahi izan zitzaizkon lagunari lothu.

Axeriak bada derro gathuari:

Net haizela abilla diduritzatik hiri:

Badakika nik bezanbat?

Asmu badiat zaku bat.

Bertzeak derra, ez segurki;

Nik bakhar bat diat xoilki:

Baiña ausarki derradana,

Milla balio tuena.

Hortan berri-berritan hor dute disputa altxatzen;

Baietzka, ezetzka hek horla zirelarik berotzen,

Ora multzo batek builla fiñarazi zeraien.

Gathuak axeriari:

Hots, mira zak zaku hori.

Hire kasko madre hortan

Billha zak hots! ordu huntan

Ingiñu zenbiat segursko,

Lanyeretik itzurtzeko.

Huna nere bakhar hura:

Iklus-ak zoiñ den segura.

Hau erran eta kokiña badoa herreska,

Han zen haitz batean gora laur atzez zarrapola.

Bertzeak, giñik asko itzuli alferretan,

Yo zilho bat, yo bertze bat, ibilli zen hersturan;

Askotan ere zakurrak zituen enganatu:

Baiña asmuak oro deus ez zitzaizkon halaiatu.

Lurpe batetarik illkitzen zelarik,

Zakur oiñkari bi giñera yauzirik;

Eziñ egiñ gogor, ezin itzuri gan:

Itho zuten han berean.

Zertako asmu haiñitz, egitekoetan?

Edo haiñitz xede, helantza gaitzetan?

Eziñ dezidatuz, denbora da galtzen;

Maiz onena utzirik, tzarrena ere hartzen

Bakhar bat hagitzez, obe baizen ezta,

Hura baldiñ ona bada.



EMAZTEKIAK ETA SEKRETUA

Deusik haiñ pisurik nola sekretu bat:
 Garraiatzea urrun da gaitz andreentzat.
 Baiña lan bereko badakitzat ere
 Bizardun ez guti direnak emazte.

Bere andrea frogatzeko senhar bat gau batean,
 Plañu, deiadarka hasi zitzaion sahetsean.

Ay! ay! ay! zer dut nik-erdiratzen naute:
 Ez dirauket hula leher egiñ gabe.
 Ha!... fiñean bada, soleatu naiz ni:
 Arroltze eder batez oraintxe naiz erdi.

Arroltze bat! derran andreak:

Bai, horra non duzun frogatzen du berak.

Horra, ikhus-azu zoiñ lari,
 Bero-beroa, erron berri.
 Behautzu, othoi, hargaitk,
 Gauza huntaz mintzatzetik;
 Oillo deitha mintzakete:
 Arren beraz ixil zaude.

Nola andrea beri baitzen kasu huntan,
 Baita bertze asko aferetan;

Sinhetsi zuen gauza, eta ziñekiñ promes eman

Ez zuela deusik erranen sekulan.

Baiña ez zuen ziñak irauñ gehiago

Gauaren itzalek baiño.

Agertu deneko albaren argia,

Ema simple, hitzuntzia,

Yauzirik ohetik erdi billhuzia;

Badoa fite hauzorat

Bere komaia baitharat,

Berriaz erdi nahia.

Adi-zan, no, bahakharnat

Hementxe berri handi bat.

Baiña ez tinat nahi erran

Baizen nehorri hik erratekotan.

Ezen bahu publikatzen,
 Senharrak zanpa nintzaken.
 Nere gizak erron zautan arroltze bat,
 Arroltze bat handi bertze laur bezanbat.
 Baiña misterio hori
 Hire eta ene artean egon bedi bethi.
 Nola! hik hoiñbertze, bertzeak baderro:

Egiñ nire gomendio!

Segurki hatzait trufatzen,

Edo ez naun ezagutzen:

Hoa, trankill bahagoki,

Beldurtu gabe deusere.

Erroillearen andrea hortan etxera goan zen:

Bertze aldiz erran nahiz ya hari zen erretzen.

Badoa sei lekhitara

Gauzaren barraitzera.

Arroltze batentzat hirur badiotza,

Baiñan akabatzen hortan ezta gauza

Ezen bertze ema bat doa lauretara;

Eta kondatzen du beharri xilora.

Prekauce haur alfer zen segurki,

Sekretua kanpo ya baitzen aspaldi.

Ahotik ahora nola kurrituz yend-artean,

Arroltzen nonbrea bethi berretuiaz baitzoan

Arratsa ethorri zeneko,

Bazen ehunez gorago.



AGUDEA ETA HIRUR YAUNT'TOAK

Gizon zahar bat hari zen,
Behiñ arbola landatzen:
Laur hogoi urthe zituen.
Etxe egiten paso oraindik:
Zerraten estoniturik,
Yautto hirur hauzokoek beira zagozkolarik.
Baiña adiñ hortan landa!
Segur erhokeria da.
Ezen zuk zuhaitz hoitarik
Zer gozo, othoi, bada dezazuke igurik?
Mathusalen bezaiñ luze bizi behar zintezke
Zertan griña horrenbertze
Gero batez, zoiña ez baita zuretzat agertuko?
Okupa ez zaitela aboro,
Baizen zure iragan hutsez:
Esperantza luze eta obra handiez,
Okupatzea ya ez zaitzu komeni:
Horiek hobeki doazkigu guri.
Ez hanbatik zeuer ere,
Zaharrak aldiz derraie.
Establimendu zoin nahi
Bethi dathor berant eta dirau guti.
Herio latzaren sega
Zuen eta nere egunez orobat yokatzen da.
Gutarik zoiñ daite segur ikhusiren duela
Falta gabe biharamun goizeko argi zabala?
Baduzuia zure bizian ordurik
Ondoko mementaz beraz segurtha zaitzakenik?
Nere illobasoak noizpait itzal huntaz
Izan dakizkiket niri zordun beraz.
Zer! eztuzu nahi bada
Zuhurrak dukeien artha
Bertzen plazera egiteko?
Plazer bat egundik nik hartzen dudana,
Eta bihar ere har dezakedana;

Baita bertze zenbat egunez oraiño:
Ezta ezen seguratzeko,
Zuen tonba gaiñetarik,
Ez ditudala tristerik,
Oraiño asko alba fresko kondatuko.
Zaharrak arrazoiñ osoa ukhan zuen.
Hirur gaztetarik ezen bat itho zen,
Zelarik ilkitzen apenaz protutik
Ameriketara partitzen zelarik.
Bertzea igan nahiz gradu goretara,
Gerlako enplegutuan zerbizatzen zela,
Kolpe ustekabeko batek atzema,
Han zuen kausitu bere egunen fiña.
Hirur garrena erori zen
Bere eskuz xertatu nahi ukhan zuen
Arbola baten gaiñetik;
Eta gehiago ez zen altxatu handik.
Eta gizak nigarretan,
Heien tonba harrietan
Zizelatua gothorki.
Kondaira hau zuen utzi.



ERHO BAT ETA ZUHUR BAT

Erho bat zarraion behiñ harrika zuhur bati;
 Itzultzen zaio zuhurra, derrola: konpai, thori:
 Ongi duk egina
 Hik egiñ dukana;
 Har-zak luis hori.
 Nekhatuz gero hoiñbertze,
 Aboro ere behar huke;
 Ezen errana duk travailluak bethi
 Yustu den pagoa duela merezi.
 Baiña horra-ko hor dathorren gizona
 Duk sakelan diru asko baduena:
 Baieta pagatzaille ona.
 Egorzkion korri hire present berak,
 Falta egiñen ez dauk segur sari onak.
 Irabazi nahiz gure erhoak hemen,
 Laido bera buryes hari dio egiten.
 Baiña etzuten diruz orduan pagatu:
 Mutill on multzo-bat baitze hara billdu;
 Orok harturik artean,
 Zanpatuz tirria onean,
 Eho zuten han berean.

LEHOIÑA GERARA BOAKI

Lehoiñ erregek zabillean
 Xede handi bat kaskoan.
 Iduki zuen hortako gerlako kontseillua:
 Eta gerla izan zenean hartan dezidatua,
 Kurrierez heldu zuen orotara mezua.
 Azpikoak oro ziren sarthu haren xedean,
 Billdu ere egiterako gerla, haren menean:
 Bakotxak bere moldean.
 Elefantak behar zuen bizkar zabalarekin,
 Gudurako behar diren tresnen garraioa egiñ:
 Zla bera gudukatzen ohi bezala berdiñ.
 Hartza asautetarako zen printzeak hautatua;
 Axeria yoko gordez izan zen kargatua.
 Iminoak etsaia aldiz behar zuen dostatu,
 Bere yusta eta grimasez gudutik barraiatu.
 Baiña batek derro yeneral jaunari:
 Asto hau zertako haiñ tonto eta nagi?
 Eta herbi iziper, buru xoro hori³
 Igorzkitzu, yauna, eren etxetara.
 Ez, ez, dio erregek, ez nago hortara:
 Nola astoak duen haiñ larria orhoa,
 Yende espantatzeko nahikarazkoa;
 Izanen da trunpetari.
 Aldiz herbi simple hori,
 Koxkoa izan arren oiñak bezain ariñ,
 Kurrier net ontsa da zerbitzakidiñ.
 Horla printze zuhur batek, erresuman badaki,
 Emaiten diakioken, kargua bakotxari.
 Baldiñ handitari haiñitz, igurikitzen badu,
 Ttipienak horren gatik, arbuiatzen ez ditu.
 Baditu ere hark, handiak gizentzen,



Hortarako ez ditu, xumeak larrutzen.
 Baidaki horla egiñ, duketen guziak,
 Ozatu direla, yendez gaitzetsiak:
 Ordutik direla, segur desmasiak,
 Eta khoroa ebatsiak,
 Baita bur ebakiak.

BUFUNA ETA ARRAIÑAK

Asko badabilltza bufunen ondotik,
 Aldiz nik ihes dut egiten hetarik
 Gaizoentzat ezen dituzke Yainkoak
 Kreatu xoilki bufunak.
 Behar bada fable huntan
 Noa halako bat ezartzera bistrn.
 Behar bada ere norbaiti
 Badiduritzoke dudala egiñ ongi.
 Farra-eragille bat zen behiñ-batean
 Bankero dirutsu baten mahaiñean.
 Etzuen hark bere aldean
 Arraiñ ñimiñorik baizen:
 Larriak urrn zaudezen.
 Xikittoak hartzen ditu bana-bertze,
 Eta beharrira mintzatzen zaiote.
 Alegia gero hark igurikitzen
 Heien errepusta, bazagon entzuten.
 Billkuia guzia zagon harritua.
 Eziñ sumatuz asmua.
 Orduan bufunak, serios yarria,
 Derroie: beldurra zaukala handia,
 Bere adiskide bat, zuela ya urthe bat,
 Fortuna egiñ nahiz gana indietarat,
 Galdua izan behar zela
 Untzia gnik kostara.
 Hortaz zaiela miñtzatu arraiñ gazteño heiki;
 Yakiñ nahi zerbait berri:
 Baiña hek guzien errepusta zela,
 Gauza yakiteko gaztegi zirela:
 Larriek hobeki bazakiketela.
 Nahi nioke orai yaunak, larri bati,
 Galde bera egiñ, ez bazaitzue gaitzi
 Billkuia gustatu tretuaz othe zen,
 Nik eztut seguraturen.



Hargatik gure bufuna haiñ ongi zen yokatu,
 Non arraiñik gordoena baitzuen eskuratu;
 Zoiñak baitzukeien adiñikan aski,
 Ehun urthe hetan,
 Mundu berri-ketan,
 Ibilli izan ziren,
 Eta marrazoen
 Tripartu ziren,
 Guzien zorte eta izenak, yakiteko segurki.

Noiz ere bufun hark, hau egiñ baitzuen,
 Astoek ere ya, hitza bazuketen.
 Orai tretu horlako,
 Xistuz laite yokatua.

ANIMALIAK IZURRITEAZ ERITUAK

Gaitz bat orotarik izigarriena,
 Alde guzietan ikhara demana:
 Zeruak bere koleran,
 Gure obenen kaztigutan,
 Naski kreatu zuena:
 Izurria bada, duen bere izena:
 Erresuma illhuna, egun bakhar batez,
 Pobla dezakena, nasai abitantez
 Gaitz hark abrer gerla zaroen egiten;
 Oro ez ziren hilltzen, bañan eri ziren.
 Etzen ikhusten aboro
 Biziaren luzatzeko
 Moien-keta zabillanik.
 Etzen nihon yanaririk
 Her gura zemoketenik.
 Axeriak eta otsoak ya etziren okupatzen
 Oillo eta arkumeak nondik arrapa zetzaketan.
 Iheska totoila eztiak elkhar ganik zabilltzan;
 Etzen aboro kanturik ez plazerik horlatan
 Oyhanetako ostroiletan
 Astoak etzion kasurik egiten,
 Astakarloari net zale zen arren.
 Lehoi jaunak beraz billtzarra du deitzen
 Eta auaiet hula zaiote mintzatzen:
 Uste dut zeru zuzenak,
 Ikhusirik gure obenak,
 Zigorrada hau duela
 Erauntsi gure gaiñera.
 Ara bada, gure artean abendunena dena
 Bekio ofrei zeruaren kolerari biktima:
 Ardiets othe dezaken ororen osasuna.
 Istoriak ezen badakhar hortako,
 Horlako kasutan, etsenplu horlako:
 Menaiatu gabe, hots, geure buruak,



Detzagun zorrotzki mira gure kontzientziak.

Nitaz kestione, egia bada ere,

Zikiro bat edo bertze,

Gerthatu dakiken inoiz iretstea;

Baita noiz edo noiz, hekien yabea:

Nuharroinsko baitut maiz apetitoa,

Eta yan-xaharra modu gabekoa.

Izanen naiz beraz, ez naiteke duda,

Biktima eskaiña, hjala behar bada.

Baiña diduritzait net komeni dela,

Egiñ dezan nik bezala

Nork bere kofesioa,

Daiteken bezain lañoa.

Ezen da desiratzeko

Yustizia konplitzeko

Obendunen daitekera,

Dadiñ kaztigu dukena.

Axeriak derra, yauna,

Sobera zare errege ona;

Zure eskrupuletarik klarki dugu ikhusten,

Zure kontzientzia zoiñ delikatua dn.

Zer! yatea zikiroki,

Mota gaizo, triste hori,

Nondik daiteke huts handi?

Ez, ez, iretstearekiñ her zuk haiñitz halere,

Egiñ dakozute ohore

Eta artzainaz mintzatzeko,

Edozeinek erran diro,

Eztela gaitz suerterik

Hark merezi ez zuenik;

Zelakotz yende hetarik

Zoinak, bestien gaiñean nausitasun bano bat,

Baitire bere baitharik ausartatzen hartzerat.

Fiñatu maltzurak zueneko arenga,

Lausengari meta hasi zen bibaka.

Etziren izatu sobra barna etsaminatuak,

Trigre, hartz, otso eta bertze puxantzen egindurak:

Ziren arren gutienik barkhakizun segurki,

Ahoak baitziotzaten lotsak orori hetsi.

Gaiñerako oste liskartsu, xakur sinpleak berak,

Hanbat saiñuñotzat ziren izatu pasatuak.

Astoa orduan yin zen,

Hunela zela mintzatzan:

Oraiñtxe zait gogoratzen,

Behiñ batez niñdoala

Phentze bat bera bezala;

Goseak kilikaturik,

Paradak tirriaturik,

Belhar onak tentaturik,

Eta behar bada oraiñdik

Diabruak esku harturik;

Phentzetik hartu nuela

Enpasantean bezala

Mihiz trozatu-ahala:

Hori neretako derrada egia,

Etzen gauza zillegia.

Hitz hauietara, oro hasi ziren oyhuz:

Bedi marka beharri-luz.

Abokat aire bat zuen

Otso bat han gerthatzen zen.

Hunek aise zuen orduan frogatu,

Abre pelatu, zakartsu

Eta galtzki yaio hura,

Heier ethorri gaitzaren zela kausa bakharra.

Bertzen belharra yatea,

Zer oben berdiñ gabea!

Horlako krima bati zor zaio heriotzea:

Hala ukhan zuen zortea.

Zarenaren arabera, aberats edo pobre,

Gorthe eta tribunaletan, hala egiñen zaituzte,

Osoki beltz edo, zuri bethi ere.

Orobat da ikhusten, gaitztagiñ handia,

Karrosan ibilltzen, ohorez gaiñdia:

Urkhatzen aldiz ttipia.



PEISANTA ETA SUGEA

Baserritar batez Esopek derraiku,
Neguko egun batez baitzen atheratu

Etxeko ingurutara
Itzuli bat egitera;
Betan ikhusi zuela
Elhur gainean zatzala
Suge bat hilla bezala:
Hotzak arras pasatua,
Yelatua, gogortua,
Sentimenduz gabetua,
Hilltzeko meneratua.

Peisantak hartzen du badarama etxera,
Su ondoan hedatzera;
Ekharri gabe gogora
Berari fabore horren
Zer pagu kathorkioken.

Berotzen du kontuz eta phitz-arazten.
Eztu haiñ laster bestiak senti berotasuna,
Non baidathorko gibelat arima zoakona:

Harekin kolera miña.

Ezarian hor du altxatzen burua;
Egiten betbetan ohitu xistua.
Ondoan orputza pleguka billdurik,
Abiaduran yarririk;
Yauzi nahi zaio on-egilleari;
Salbatu duen aitari
Ay! haizen eskergabea,
Hill behar haiz, infamea!

Peisantak diotzo furian sarthua.
Pagu hau neretzat haukan gardatua?
Eta harturik haiotza,
Trenkatzen dio gorputza.

Eta haiotz-kolpe bertze bat emanik,
Hirur egiten tu suge batetarik;

Separaturik tronkoa buru buztanetarik.
Yauzika hari da hirur zathietan,
Nahiz hau elkharrri, yntatu berritan:
Baiña finatzen da, eforta alferretan.

Eder da izaitera karitate egille;
Baderraiku christok ere:
Izaitea dela hobe
Hartzaille baiñon emaille.
Baiña, noiz, nola eta nori?
Pontu gaitzena da hori.

Ezen laur alferrer, egiñ dena baiño
Pobre on bti egiñ dena, hagitza da hobeago
Hemengo eta zerurako.
Eskergabeari aldiz, hark merezi zortea,
Falta ez dakioke nihoiz, fiñ gaitzto egitea.



ORA BERE NAUSIAREN BAZKARIA DARAMANA

Gizona maiz galtzen da, bere begietarik:
Haiñ maiz edo maizago, bere atzaparretarik.
Gutik hala tresor bat, ohi dute goardatzen,
Non ez zaien nolazpait, zerbait hartarik lotzen.

Zakur bat bazoan karrikatik behiñ,
Bere nausiaren bazkariarekin.
Kolier bezala zaramala zoan
Dilindan lepotik otharre batean

Sobre zen: sobreago ere nahi zukien baiño,

Bereziki zuenean menean zenbat friko:

Baiña fuñtsean hala zen.

Aldiz gu bagare aurkitzen,

Gauza onen aldamenean,

Hirritsa dugu barnean:

Zoiñ gauza estranioa den!

Ora da moldatzen izatera sobre;

Gauza bera gizak ikhas ez dezake!

Ora hark zuela beraz holakoa,

Karatera sortzezkoa:

Zakur gothorsko bat atheratzen zaio,

Eta otharrekoa khendu nahi dio.

Baiña aurkitu zuen hark egitekoa,

Uste baiño gaitzagoa.

Bertzeak ezen zarea goardatzeko hobeki,

Laster lepotik khendurik aldean zuen utzi;

Traba eta kargatik libre gudu bazemon tinki.

Baiña orduan yinik hara,

Bethi ohi den bezala,

Komunetik bizi diren,

Kolpeen beldur eztiren,

Zakurrezko tropela bat,

Disposatuak yaterat:

Eta ikhusirik ordutik

Ez zezakela bakharrik,

Ororen kontra haririk,

Salba bere haragia;

Erraten diote: Yaunak, dudan nere portzia;

Gero bedi zuendako gaiñerako guzia:

Ez gaitela samur: nik dut aski nere zathia,

Erran eta: herresaka beretzen du puska bat:

Orok zoiñ gehiagoka dute egiten orobat.

Buryesaren bazkaria kuxian suntsitu zen,

Aboro ere izan balitz aise iretsi zuketen.

Bada orai zoinek kondena

Ora hark egiñ zuena?

Badeia nihon dotorik

Hala egiñ ez zukeienik?

Ez diduria oraiño

Zakur harrek ordu hartan

Bazakharrela kaskoan

Zentzu gehiago jabe Yaunak baiño?



HARTZA ETA BI KONPAÑEROAK

Bi konpañero boltsa-ariñ
 Yarri ziren elkharrekiñ
 Ukhaiteko diru nahiz zerbait egiñ.
 Larru-negoziant bati saldu zioten bertan
 Hartz eder baten larrua, zoiña hunek soiñean
 Oraiño baitzarabillkan.
 Hartzen printzea zen: heien arabera,
 Martxanta zioan fortuna egitera,
 Larrua berritz saltzera.
 Hotzik handienez burla egiten zuen;
 Aise espos soiñ bi orra ere zetzaken.
 Pakok ez zaduzkan bere zikiroak,
 Prezio haiñ handikoak,
 Nola hek beren larrua
 Aho betheka ospatua.
 Berzea bai, beren ustez,
 Baiña ez bestiaren oldez.
 Bi egun hetan luzenaz engaiatzen zirela,
 Marxandiza eroslearen eskuetaratzera.
 Akordaturik sariaz,
 Hartzaren billha badoaz;
 Hau laster agertzen zaie:
 Trostean dathorkiote.
 Baiña bi banditak haiñ lotsatzen dire,
 Nola ozpiñaz yoak izatu balire.
 Akabo tratua, ordutik hautsi zen,
 Hek eman erhesak aiphatu ez ziren.
 Bi mutilletarik bat
 Haitz batera herresaka
 Igatu zen zarrapoka:
 Bertzea aldiz haiñ hotz nola
 Izaiten baita marbola:
 Auspez betbetan yartzen da,
 Lurraren kontra kopeta;
 Badago hilla bezala,

Hatsa tiñki dadukala.
 Aditua baitzadukan
 Hartze ez zaiola sekulan,
 Aspertzen gorphutz hillari,
 Ez mobimendu, ez hats ez duenari.
 Izatu zen hartz maistroa
 Astoa bezaiñ gaizoa,
 Sinhetsteko hori hola:
 Ikhusirik geldi gorphutza zatzala,
 Pentsatzen du arras bizi gabe dela.
 Hargatik beldurrez baden trunperia,
 Biratzen du pataz gorphutz eroria:
 Hara-huna badabillka
 Bere bi patez aldizka.
 Eta hurbillduz musua,
 Badauka zelatatua
 Hatsaren yalgi lekhua.
 Baiña hau hilla da, azkenean dio:
 Goazen hemendikan, usaiña dario.
 Eta goibeltzen da hauzoko oyhanean.
 Arbola gaiñeko tratantea orduan,
 Yautsirik, doako lagun gaizoari,
 Eta derro: ongi dela miretsgarri
 Kito baita hura lotsarekin xoilki.
 Eta, anai, gure larrua
 Oixtin haiñ ontsa saldua?
 Baiña zer erran dauk beharri xilora?
 Hurbillsko kabillken hark ezen sudurra;
 Hire soiñ-gaiñean zaukala atzaparra.
 —Erran zautak iñoiz eztela saltzeko
 Hartzaren larrua berak dabillkaiño.
 Hill behiñ, eta sal gero.



HERIOA ETA HILLTZERA DOANA

Herioak eztu nihoiz zuhur dena atzematen,
Bethi partitzera zeren hura prestik dagoen:

Bethi hark bere burua

Bai daduka abertitua,

Azken urhats haren egiteko orduaz.

Ordu hark badauzka, belas!

Bertze denbora guziak,

Egunak, orenak eta mementoak:

Bat ezta tributa zor ez dioenik,

Ez haren dretxotik itzur daitekenik

Erregen umeez munduan sartzeko

Begiak zabaltzen dituzte orduko;

Maiz ordu berean herioak daie

Bekokia itzaltzen urrikaldu gabe,

Mundutik partitzerako

Ez edertasunak, ez handitasunak,

Ez prestutasunak, ez gaztetasunak,

Deusek ez detzake hek salba garabik,

Herio latzaren segaren azpitik.

Noizbait ere mundu hunek den guziak,

Berreturen ditu haren ontasunak.

Hiltzea den baiño deus seguragorik;

Halere derragun, eztela garabik

Gutiago antsia demaikunik deusik.

Urthe ehun bizi ondoan,

Buryes bat hilltzera zoan.

Hau herioari zagokon pleintaka,

Zertan horla herresaka,

Nahi zuen bada eraman lasterka.

Testamenta araoz egiteko utzirik;

Abisatu gabe batere aitzinetik.

Zer! hola, ez bat, ez bi, berehala partil!

Diotza agudeak, aphur bat zaudezi:

Eztu nahi nere andreak hura gabe noan ni.

Badagot illobaso bat oraiño ezkontzekoa,

Etxean ere hegal bat oraiño egitekoa.

Zoin hertxakor zaren nausi barbaroa!

O zaharkitua! herioak derro:

Ustekabetan ez natzaik ni yin atzo;

Ene presaz eztuk hik zeren pleiñitu.

Ez haiza ehun urthe ya bizi izatu?

Paris guzian, hots, dietzadak aurki,

Hire berdiñ zahar agude bertze bi.

Frantzia guzian hamar emadatzik

Baiña abisu zenbait behar hindudan nik,

Eman, huntara hi prepara-razteko!

Orduan nitian xuxen kausituko,

Testasmenta sinatua,

Illobasoa ezkondua,

Etxea ere akabatua.

Zer! hire ezin ibillia,

Zangotako dardaria;

Beharritarik gorthua,

Begietan lanbrotua.

Sudur zilhotarik zikiña darian,

Senti ere hihaurk ez hukeyen gisan;

Zentzua arras flakatua

Memorioa gldua

Galdua ahoko gustua:

Ez haudala gero diok abertitu?

Hauk etziren hanbat hiretzat abisu?

Izate guziak hiretzat ya ziren,

Nola hek batere izan ez baziren:

Iguzkiak berak hiretzat alferrak

Ditik bere artha ohituak.

Balia eziñ dakizkiken

Gauzak tuk erregretatzen.

Nik ikhus-arazi dauzkiat lagunak,

Edo hilltzen, edo hillak, edo eriak:

Hauk oro bada zer dire?

Hainbertze abis ezpadire?

Hots, agudea, hots, iharduki gabe,

Gaurgero parti haiteke.

Egiñ duken edo ez hire testamenta,



Republikarentzat guti dik inporta;
 Herioak segur arrazoiña zuen:
 Hoberena laiteke ezen,
 Goatzea mundu huntarik
 Nola desterru batetik,
 Lehiaz bere herrira
 Sumis eta alegera:
 Arraizia aurpegian
 Bakhea kontzientzia.
 Ezen bada zenbat othe
 Bidaia luza daiteke?
 Agudea, badarasak!
 Gazte hoiek ikhus-etzak
 Hilltzera dioazinak,
 Duda gabe glorioski,
 Askotan ere krueki,
 Baiña bethi kuraioski.

Baiñan alferretan, dut egiñen oyhu,
 Ez duke ene kharrak, ardiets efetu
 Nor ere ezen baita, hilla iduriena,
 Hura ohi da hilltzen bethi bortxazena.

HARITZA ETA SESKA

Haritzak erran zioen lehenago sesari,
 Badukezu bai segurzuk tristea zertaz pleiñi:
 Errege pettitta baduzu gaiñean,
 Aski baduzu zer yasan:
 Eta haizerik mendrenak,
 Apenaz ur-gaiña ximurtzen duenak,
 Gurtzera bura zaitu obligatzen.
 Nik aldiz gothorki hauzoa hedoiñen
 Dadukat nere kopeta:
 Larhunek nola kapeta
 Elhe-arraioak ditut bara-razten:
 Uhar hazkarrenez naiz ere burlatzen.
 Guziak zaikkitzu itsa haize zuri.
 Aitzitik guziak iphar goxo niri.
 Bazinte bedere yaio ordu onean,
 Nere ostroila-zabal puxantaren pean;
 Gaixoa, ez zinduke hanbat pairatzeko,
 Aski bainintze ni zu defendatzeko.
 Baiña ondiko kasik bethi sortzen zare,
 Non ere haizeak errege baitire:
 Badiduritzait zerua
 Zuretzat dela inyustua.
 Zure urrikalpenak, zuhamuxeak derro,
 Bihotza net ona dukezula dio:
 Baiña utz-azu griña hori.
 Haizeek ez dautet niri
 Lotsa emaiten gehiago,
 Zuri zeroniri baiño.
 Doblatten naiz, hautsi gabe.
 Zuk, egia da, orai arte,
 Heien kolpe gogorrener,
 Azpiz sendo, gaiñez fier,
 Iharduki diozute,
 Bizkarra makurtu gabe.
 Baiña gauden, othoi, azkenaren beira.



Hitz hoiek hjark zerratzala,
 Hor dathor furian uhartz urrunetik,
 Nihoiz ere athera bere erraietarik
 Northeak zukeien ume terriblena,
 Haritza iharrotsten hazkarki duena.

Hunek egiten du gogor;

Aldiz seskak badema amor.

Haizeak, kolpeak erredoblatu-
 rik, Bata bertzearen asti gabe ondotik,
 Haritz arguillusa haiñ du tormentatzen,
 Non hedoi-
 en hauzo burua zuena,
 Eta erroak hillen herrian zauzkana,
 Erroz-gora baitu fiñean ezartzen.

Horla ikhusten dire, maisterrak askotan,
 Mendeak irauten, egoitza bertean;

Berthutea pratikatuz.

Eta aldiz ikhusten dire bertze aldera,
 Etxe hazkarrenak, yausten erre-
 kara,

Bizioa gida hartuz

Gauza guzietan bethi,

Bekio beha azkenari.

IHIZTARIA, BELATXA ETA ALLAUDA

Gaitztagiñen obra tzarrak
 Net-ardura dire gureen eskusak:

Lege hori du munduak.

Menaia hazaten bertzen nahi baduk,
 Menaia-
 tu hihaurk bertzeak behar tuk.
 Miraill baten bidez, mutill bat hari zen

Hegaztin xehe atzematen.

Mirailleko itxura brillanta ikhusirik,
 Aillauda ariñ bat zen hurbilldu hartarik
 Belatxa bat fite,

Bisa bis goiean,

Balentzan zagona hegalean gaiñean,

Hura ere ihizitik bethi bizi zena,

Eta oraindik oso barura zuena;

Yautsirik betbetan xori lañoari,

Tonbatik haiñ hurbill, kantuz zoanari

Zaio gaiñeratzen, eta atzapàrretan

Daduka ya segurean.

Hari dela haren gogara biphiltzen,

Hor ditu mutillak sareak zerratzen,

Eta briganta da hartua gelditzen.

Ihiztariari, laster itzulirik:

Utz nazazu, derro, nioan bizirik;

Egundaiño ez dautzut nik egiñ gaizkirik.

Ihardesten dio mutillak ariñki:

Eta xori horrek zuri,

Zer dautzuke bada nihoiz egiñ gaizki?



LEHOIÑAREN GORTHEA

Monarka lehoiñak behiñ yakindu nahi zuen
Zer leiñutarik zeruak sor-arazi othe zen.

Orotara kurrierak
Mezu beraz kargatuka,
Pekoen gonbidatzera
Erregeren gaztelura,
Egorriak izan ziren:
Eskribu harrek zakharren,
Zigillatua fazoiñez:
Illabete bethe batez,
Erregek nahi zuela
Iduki gorthe pleniera.
Hunen hastean banket bat
Izanan zela ororentzat,
Baiña banket bat handia:
Eta gero komedia.

Tretu noble hartaz hark nahi baitzaien
Oror erakhutsi zoiñ betheretsu zen.

Bere yauregia beraz hark nobleki
Emaiten daie bill-toki.
Baiña hura gaztelua!
Hobeki zaiten deithua
Karnizeria-lekhua.

Odol zaflak hemen, hara-han hezurak
Ez osoki garbituak;
Huna-hemen larru-puskak,
Eta urrina ezin-yasana

Sudurretan barna betan sartzen zena.
Phu! dio hartz yaunak han sartzearekiñ,
Tapatuz sudurra bere patarekin:

Hark hobeki egin zuen
Holako sinorik egiñ ez bazuen:
Ezen erregek koleran
Egorri zuen kuxean,
Satanen erresumara,

Miñardarena egitera:
Erran nahi da, itho zuen.
Ximinoari net ontsa zitzaioen
Erregek egin bengantza,
Izanik ere garratza.
Gero lodituz mintzoa
Lausengari gaindikoa,
Eman zen laudatzen yaunaren kolera,
Eta haren atzaparra;
Gero zilloa ere, baita usaina bera:
Zoinaren aldean loren erregeña
Baitzen, zion, xoilki baratzuri miña.

Hunen lausengu soryesa
Izatu zen malurusa,
Eta izatu zuen hartzaren fin latza.
Gure yaun lehoiña nonbait,
Zela niri didurizait,
Robespierren kusi zenbait.
Azeria han hurbill zen:
Erregek erran zioen:
Haugia hi, eta erradak;
Zer zioke hire zudurrak?
Mintza hakit bada oraiñtxe
Itzal eta itzuli gabe.

Bertzeak kuxian: burutik behera,
Mafrundi txar batek daut hetsi sudurra:
Eta khendu baitaut usna,
Erran ez dezaket zer zaitan urrina.
Horla ederki athera zen.
Hau zuri bekizu balia irakhaspen.

Nahi baduzu ukhan, printzeen gorthetan,
Eta bertze yende handien etxetan,
Besta eta ongi ethorri,
Etzaren izan behar, sobra lausengari,
Ez erasle laiñoegi.
Baiñan izan zaite, horlako tokitan,
Ardura zure hitzetan,
Edo gaskoiñ edo norman.



KARROA ETA ULIA

Patar haretsu batean,
 Ekhiaren khalda-pean,
 Karro bat behin zioan,
 Zahar, andere eta frailez kargatua,
 Sei zaldi hazkarrez nekhez tiratua.
 Barneko yendeak oro yautsi ziren:
 Ukho egitera ya zaldia zozazen,
 Hats-hauntuak, eziñduak,
 Izerdiz bokatatuak.
 Badathor uli bat dena aferatua,
 Gan-arazi nahiz karro gelditua.
 Badoakote abrer aldera burrunbaz,
 Animatu-nahiz hauk bere abarrotsaz.
 Husu badabilla hegaztin hattea,
 Ausik bat, gero bertzea.
 Ikhustearekin karroa doala,
 Aira uste du hark demola.
 Yartzera badoa timoiñ muturrean,
 Gero gutien ustean,
 Eragillearen sudurraren puntan.
 Mekanika doanean,
 Yendea ere treiña onean,
 Hegaztiñ antsiatua,
 Bere eginduraz hartua,
 Sartzen da banitatean.
 Hara huna dabill nihon ez dagoke;
 Yeneral on baten pare,
 Zoiña, bere osteak kuraieztatzeko,
 Eta biktoria laster beretzeko,
 Herrunkaz-herrunka khexo bailabilke
 Herstura publiko hartan gure ulia
 Pleiñi da bakharrrik oroz dela utzia;
 Haren bizkar ere dela artha guzia;
 Nehor eztela orotarik
 Zaldiak lagundu nahi dituenik

Uruski yalgiten enpeiñu hartarik.
 Hari zen fraile gaizoa
 Erraten ofizioa:
 Othoitzeko zer aroa!
 Kantuz zagon damatxo bat;
 Zentzu koxkoan hark etzukeien hanbat:
 Zer tenore hauta musika egiteko!
 Gure uli lamera doakote listo,
 Beharri kantaletara
 Bere kantua egitera:
 Eta oraiño egiten ditu
 Asko horlako haur-tretu.
 Haiñitz nekhe iragan eta,
 Kotxea goieratzen da.
 Ha! dio uliak oraintxe,
 Hats handia har daiteke.
 Hanbat egiñ dudanean,
 Huna ene yendeak zelhay ederrean.
 Hola! zaldi, yaunak, nork bere kontua,
 Dudan nik nere pagua.

 Yende artean badire asko
 Uli haren iduriko:
 Noiz nahi bertzeren prest eskolatzera
 Eta afera orotan sudurra sartzera.
 Hastean badkite zer egin behar den,
 Ondoan badakite zer egin behar zen.
 Bertzeentzat bethi dotor handi dire,
 Aldiz beretzat ez xoil apendiz ere.
 Horlakoak etxetik khasatzeko dire.
 Bertzen egitekoez hainitz dakusanak,
 Gaitzki egiten ohi hark ditu bereak.



ARRANOA ETA PHIKA

Hegaztinen erregiña
 Arranoa deithzen dena,
 Eta phika elhati Margota madama,
 Bazoazen paseari,
 Phentze buru bata gaindi.
 Xoko baztertu batean,
 Batzen dire ustekabeen.
 Margota izitu zen: aldiz arranoak
 Ya ontsa bazkaldu zuenak,
 Baderro: Komai, ez izi:
 Goazen biak paseari.
 Yupiter han goiekoa
 Yainko ororen gainekoa,
 Ardura omen da eneatzen,
 Okupatua den arren
 Mundoaren gobernatzen.
 Ni zerbitzari harena,
 Orok ongi dakitena,
 Noiz edo noiz naski enea naiteke
 Nere nausiaren pare.
 Hots! denbora pasa, solhas emadazu;
 Zeremoniak uzkitzu
 Mokolux kuxean lothu zen erasten
 Huntaz, hartaz, oroz; gauza hortan ezen,
 Ezta ema zaharrik, ez eta edanskorik,
 Hari konparatzekorik.
 Etzen gure agasak deus ez zakienik.
 Non zer pasatzen den nahi dio ekharri
 Dama arranoari berri.
 Yauzi motxka dabillala,
 Toki batetik bertzera,
 Espiun paregabekoa,
 Yainkoak badaki helas! nolakoa.
 Eskaintza hau gaitziturik
 Eta koleran sarthurik,

Arranoak derro: Xuhurra baduzu
 Zure etxea goarda zazu:
 Hitzuntzi, Mokoluz, adiu:
 Nere gorthean ez tut nik
 Zaren bezalako hitzkari beharrik;
 Karatera hori hagitz da txarra ezen
 Margotak etzuen bertzerik galdetzen:
 Sobra zen tokian, ez baitzen fidatzen.

Ezta gauza ustetzen den bezalakoa
 Printzen egoitzetan, sartzeko dretxoa.
 Hetan trantze kruelenak
 Estire falta direnak.
 Espiun, erreportarik
 Han dire topatzen, bekokiz arraiak,
 Bihotzez bertzelakoak:
 Gorderik yazarle bata bertzeari;
 Orentzat dire legez higuigarri.
 Urus toki hetan, Margotak bezala,
 Dituena bi yaunkura:
 Bata bere herrikoa,
 Eta bertzea hangoa.



BI AHUNTZAK

Egiñ dutenean beren alha-aldia,
 Lotzen zaie ahuntzer ibilli nahia:
 Gogoz arinsko, eta libertate gura,
 Badoazi kurri fortuna-ketara.
 Hurbill balinbada halako tokirik,
 Ez bide, ez bidexka nihora ez dutenik,
 Ez-ta giza oiñ arrastorik,
 Kaprizak hetara daramatza bethi.
 Arroka-arroka, leze-hegiz-hegi,
 Net artexki badabiltza:
 Aziñda igaillea deusez ezta lotsa.
 Zoazila beraz horrela ahunmtx bi
 Zoiñ bere alde kurri-kurri,
 Biek zutela ere berdiñ patta xuri,
 Urrundu ziren hatterik
 Phentze beherekotarik.
 Zirenean zoiñ bere alde hola aphur bat ibilli,
 Elkhar gana gerthuz zuten bidea hek itzuli.
 Ibai batek ditu biak separatzen;
 Zubitzat han ezta soliba bat baizen:
 Zoiñtan andreier bi soiñez soiñ yarririk,
 Pasa ez bailaizte salborik.
 Bertzalde ibaiak han zaraman gaiak,
 Eta uren ondo handiak,
 Behar zituen izitu
 Eta lotsaz herabetu,
 Gure bi marimutillak.
 Bedariak lanyer hauk guzien bistan,
 Finkatzen dire xedean.
 Batek bi haiña hetarik
 Egiten du bere aldetik
 Zubian sartzeko urhats bat,
 Bertzeak ere orobat.
 Gogoratzen zaizkit niri bada oraintxe
 Betan errege bi puxant eta noble,

Luis hamalaurgarrena,
 Eta Philip laurgarrena,
 Bidasoaren uretan,
 Irlaxka ospatu batetan,
 Elkhar-ganatzen direla
 Ezkontza bat egiñ han behar dutela.
 Hala urhatsez-urhats eta musuz-musu,
 Zubian badoazkitzu
 Gure andre kurritzalleak.
 Baiña nola ziren biak nola biak,
 Ethorkiaz fiertuak,
 Zubi erditsura heldu direnean,
 Biek amaiñatu ez zuten nahi izan.
 Glorios baitzen bat, bere iraganetan,
 Bazuela ahuntz bat, Yupiter haurrean
 Bere errape urusaz bazkatu zuena,
 Amalthea deitzen zena.
 Bertzeak zakharla titulu bertze bat
 Zuena goratzen edozeiñ bezanbat:
 Kopetaz kopeta zubian yarriak
 Gure andere hisitiak,
 Ez beharrez elkhar utzi
 Pasatzera lehenbixi;
 Sobera lehiaturik,
 Biak betan lerraturik,
 Urera ziren erori.

 Hori bera da gerthatzen
 Maiz fortunaren bidean;
 Batak bertzeari zeren
 Irabaz-bide berean
 Nahi baitio yazarri,
 Ez dadiñ yalgi hobeki.
 Etsaiari dio halaber bertzeak
 Egiten bertzen hainbertze;
 Hala non finean biak
 Errekaratzen baitire.



AXERIA, ULIAK ETA SAGARROIA

Axeri bat behin, oyhantar zaharra,
 Nihon bazen eta madre eta maltzurra,
 Ihizariz kolpatua,
 Zatzen basan hedatua.
 Odol-trazak gida laster haren-gana
 Suryitu zen hegaztina
 Ausikilari samina
 Ulia deitzen duguna.
 Pleintaka zerura hasi zen eria,
 Nolaz zuken harrek haiñ etsai zoria,
 Haiñ bertze pairatu behar ukhaiteko,
 Uliez fiñean yana ere izaiteko.
 Zer! hauiek gainera dathorzkidan niri
 Oyhantar orotan bada abillinari!
 Noiztik hunat axeria
 Da poxiñ haiñ berezia?
 Eta buztan hau zertako?
 Badea deusetarako?
 Karga inutil bat ez dea?
 Hoa! animale ladrea
 Dakikela madarika!
 Komunetik hadi bazka.
 Sagarroi bat handik hurbill bizi zena,
 Presuna aipatu nik oriño ez dudana,
 Badathorko urrikaldurik:
 Duela ordu beretik
 Nahi gaizoa libratu
 Oste khexas, ostriñatu
 Haren ausikietarik.
 Ehunka nere sistetan
 Sarthuko ditiat bertan:
 Eta eztuk izanen, hauzo,
 Derra, aboro pairatzeko.
 Ez, bertzeak derro; begirauk ni-gatik,
 Holakori egitetik.

Utz-kik bere othuruntzaren
 Trankill-trankilla akabatzen:
 Hauk asexe dituk: tropela berri bat
 Balathorkiket giñerat,
 Kruel, hamikatuago:
 Ez laitek enetzat segur hobearo.

Yende-artean bethiere
 Falta ezta gose eta yale.
 Gorthetan, tribunaletan,
 Sal-eroslen botiketean,
 Nasai hau aurkitzen dire:
 Sos arrapatzaile, yenden xukatzaile.
 Populuak ere, noizpait unhaturik
 Eta koleran sarthurik,
 Edo xarlatanek, aise trunpaturik
 Dukenean egiñ reboluzioea,
 Gauza da duda gbea,
 Aseak baditu khentzen,
 Goseak tuela hartzen:
 Bere kortea ere batere ez hobetzen:
 Baiña areago bai segurez bihurtzen.



LISTORRAK ETA ERLEAK

Ofizialea zoiñ den,
 Obrak dauku erakhusten.
 Ezti-breska zenbait, utziak debalde,
 Bazauden yaberik gabe.
 Ethorririk listor batzu,
 Nahi izan zuzten beretu.
 Erlek egiñ zuten kontra:
 Eraman izan zen gauza yuietara:
 Hartu zen ere yuietzat
 Hartako zen listafin bat.
 Yuiatzea gauza etzen errex hanbat.
 Baziren bai lekhukoak
 Haltoki bazerratenak,
 Ikhusi zirela airetan
 Ibiltzen luzaro, bresken ingurutan,
 Halako animale batzu
 Hegaldu, ta burrunbatsu,
 Luzesko gorphutzez, kolorez ubelak,
 Erleak ziduritenak.
 Baiña zer! listorrek ere
 Marka hauk badozkote.
 Arrazoiñ horietara,
 Gure listafin lamera
 Atrebitzen ezta deliberatzera.
 Eta nahiz ukhan argi gehiago
 Ankesta berri bat behar dela dio.
 Deitzen dute lekhukotzat
 Xinaurrieria oso bat.
 Baiña pontua halere
 Argitzen ezta batere.
 Orduan, yendeak, hauk oro zertako?
 Erle zuhur batek dio.
 Sei illabete ya baduke nonbait han,
 Gauza ezin yuiatuz dagola dilindan.
 Ikhus-azue garela

Hastean bezain gibela.
 Horla doala denbora
 Eztia doa galtzera;
 Yuieak, klaro errateko,
 Ordu luke khexatzeko.
 Ala, oraindik ez othe du,
 Aski hartza milikatu?
 Hanbat ankesta eta palabria gabe,
 Ponderu hau trenka daiteke.
 Lanean loth gaiten, gu gure partetik,
 Eta listorrek beretik.
 Horla da ageriko ezen,
 Zoinek dakiten egiten
 Yusa haiñ gozo batekin,
 Breskak hanbat antzerekiñ.
 Desafio horlakoa
 Etzaiten listorrek izan gustukoa.
 Eta errefusatuz, erakutsi zuten
 Antze horlakotik hek zoiñ urrun zauden.
 Eta erleen faboretan
 Yuiamendua zen eman.

Hauzi guziak oxala
 Balire yuiatzen fablean bezala!
 Eta kausa orotan segi
 Turkoen moda baledi
 Ez laite bertze kodarik
 Zentzu naturala baizik:
 Ez eta haiñbertzen gastatu beharrik.
 Baiñ orai gaituzte biphiltzen, iresten,
 Luzamenez arruinatzen.
 Fiñean, hanbat da egiten,
 Non ostria bethi baita yuiearen,
 Koskoak xoilki partiden.



EMAZTE ITHOA

Nik ez nerrake: Ezta deusik,
 Ema bat ithotzen baizik.
 Ezen ezta guti hori:
 Zor zaio ere setsoari
 Dadiñ erregretatua;
 Delakotz giza-kastaren erdi preziatua.
 Ez derat hau funtsik gabe:
 Denaz gero kestione
 Ema batez fable huntan,
 Ibaso baten uretan,
 Ondiko lastimosenaz,
 Bere fiña ukhan zuenaz:
 Erran nahi da, itho zenaz.
 Senharra zabillan gorphutzaren billha,
 Nahiz, komeni bezala,
 Egiñ azken ohoreak,
 Frogu, orazioneak.
 Hala beharra ere, orduan
 Ondikozko ibaso haren hegietan,
 Yende bazabillan gerthuz pasaietan,
 Gerthatu zenaren berri yakiñ gabe.
 Senhar hunek beraz galdetzen diote:
 Ea ikhusi duten
 Haren andrearen
 Nihon trazarik batere?
 Ez, derra batek hetarik;
 Baiña beherago ganik,
 Segituz uren yautspena,
 Dukezu ediren xerkatzen duzuna.
 Bertze baek aldiz baderro kontrara:
 Hobe da itzul zaiten gibekeko aldera,
 Gaiñ-aldean xerkatzera.
 Zenbat nahi gaiak deraman beheiti,
 Emen ohizko hisiak,
 Eta kontra egiñ nahiak,
 Segur da gorphutza daramala goiti.

Aski sasoiñ kontra hemen
 Haiña hura zen burlatzen.
 Kontra-egiñ beharraz bada kestione,
 Arrazoiñ zuen-ez nik aise ez nerrake.
 Baiña emaren baithan, defaut horlakoa
 Dadiñ edo ez dadiñ baitezpadakoa
 Gauza da den segurena,
 Harekiñ sorthuren dena
 Berarekin hillen dela:
 Eta kontra-eginen hark bethi duela
 Hill eta ere ahal bada.



SABELA ETA MENBROAK

Behar zaiten izan erregetasuna

Nere obraren hastapena:

Alde gisa batetarik

Konsideratuz gerostik,

Gaster jaunak dakhar haren imayina.

Deusik harrek badu falta,

Gorphutz guzia pleiñi da.

Harentzat bethi lanean

Haritzeaz, azkenean

Aseak menbroak, egiñ zuten xede,

Elkhar aditurik, deusik hari gabe

Nor bere alde bizitzeko

Ale aithorenseme, lazo,

Harrek, zerraten, gu gabe,

Airez bizi behar luke.

Kargako abreak iduri,

Nekhatzen gare net, darigula izerdi.

Eta guzia norentzat?

Bakharrik alfer horrentzat:

Deusik ez dathor guretzat.

Egiten du har eta eman;

Dathorkiona zergetan,

Badoako faboretan:

Gauza berdiñ da horlatan.

Harentzat guziak travaillatzen dire;

Haren ganik xaindez, orok hartzen dute

Bere mantenimendua.

Hark langille penatua

Bizitzeko du laguntzen

Negozianta aberasten,

Yuieak hark ditu, oneski pagatzen,

Laborariari hark nekhea ariñtzen,

Soldadua sariztatzen:

Fiñean, emaitzak ehun tokitara

Barraiatzen dituela,

Arrimu onean harrek ezarria

Daduka estatu guzia.

LIBURU LAURGARRENAREN AKABANTZA



LIBURU BORTZGARRENA

ERHOA ZUHURTZIA SALTZEN

Zaude urrunsko bethi zoroen menetik,
Kontseillu hoberik ez demaitzuket nik.

Zuhurrena daite bethi
Ihes egitea kasko arrailduari,
Aire sartzen zaionari:
Erhoekin trebe izan nahi denak
Ez duke kaskoa betheena berak.

Erho bat zabillan karrikaz karrika
Zentzua saltzeko bazuela oyhuka.

Eta yendea ostez,
Erosi beharrez,
Bazoakon herresaka.
Lehenik bazuten asko yasaiteko
Erhoaren eskarnio
Bazaraman gero bakotxak berekin.
Behar zena pagturik,
Erho marxantaren eskutik harturik,
Mazelako fin bat hari bi brazekin.
Gehienak segur aserretzen ziren:
Baiña her bala zer zakioleten?
Burlatuenak hek zauden.
Hobe ere zuketen egitea hirri,
Eta ixil-ixila goatea itzuri
Bere zaflako eta hari.
Gauzari zentzurik billhatu nahia,
Zaiten agertzea bere inorantzia,
Meezitza ere guzien hirria.
Zentzua ezen nondik izan ahal daite
Erho batek egin dukenaren berme?
Zer nahi daiten iragan
Kasko nahasi batean,
Haren kausa ezta zentzua,
Baiña bakharrrik gerthua.
Trunpatu bat, bedariak,



Zartako erosia eta hari brazak
 Ez baitzetzaken hark ahantz niholere,
 Ez utz esplikatu gabe,
 Zuhur baten ganat egun batez gan zen,
 Argi zerbait hortik bill othe zezaken.
 Eta erran zioen hunek berehala:
 Hyeroglifak zirela.
 Eta gauza aphur bat esplikazerako,
 Erran zion hula gero:
 Yende ongi kontseillatuek
 Edo zentzuari bethi darraizkonek,
 Bere eta erhoen artean,
 Ahal duketen guzian,
 Baitezpada dute emanen
 Zuk erosi hari horren
 Luzetasuna bederen.
 Non ez, igurik bezate
 Zenbait holako atsekabe.
 Etzare ez neganatua:
 Erho hark segurki saltzen du zentzua.

EYHARAZAIÑA, HUNEN SEMEA ETA ASTOA

Ororen gogara nahi bada egiñ,
 Oro gaitzituak uzten dire berdiñ.
 Frogatzeko erran hau zoiñ den egia,
 Ondoko fable hau daiteke balia.
 Asto bat zioan behiñ,
 Eyhara bateko aita-semeekiñ:
 Aita zen zaharra,
 Semea aldiz haurra:
 Ez hargatik haiñ haurra ere,
 Orhoit banaiz ontsa, bazituzken urthe
 Hamabortz bat edo hamalaur bedere.
 Biek zaramaten feriara astoa,
 Hau ongi saltzeko zutela gogoa.
 Salgai eta fresko zedin izan arren,
 Laur atzak amarraturik,
 Haga gothorsko batetik
 Dilindan ezarri zuten:
 Eta gero biek zaramaten horla,
 Lustra bat ziduriela.
 Zer yende iñorant, bastoak,
 Konpaiñes simple, tontoak!
 Zerran batek gelditurik,
 Hirriz zabaltzen zelarik.
 Zer komedia hau othe
 Yokatu behar daukute?
 Hirur hoitan astoena,
 Ezta segur uste dena.
 Agude gaizoak hitz horietara,
 Laster ikhusten du iñorant bat dela.
 Aparailua urraturik,
 Abrea ezartzen du xutik.
 Beharri-luz nola baitzoan gogara
 Lehenbiziko gisara,
 Miñki bere erdaran errenkuratzen da:



Nagusia ordean kau hari ezta:
 Yauz-arazten dio semea gaiñera,
 Darraiola ondotik bera.
 Eta gerthuz, orduantxe,
 Hirur tratulari hor agertzen dire:
 Ikhuskari hura gustatzen etzaie.
 Zaharrena mutillari
 Alegiñ guzian oyhuz zaio yarri:
 Hola he! yauntto hauts bazinte hortik?
 Segur ez zinduken nik erran beharrik;
 Etzare egiña ukhaiteko
 Bizar zuri bat lekaio!
 Zaharrari igaitea,
 Morroiñari segitzea.
 Yaunak, dio cihara zainak,
 Duen konplimendu zuen nahikarak.
 Mutilla da yautsten, agudea igiten,
 Hirur neskatala pasatzen baitziren,
 Nola, ohi bezala, mokoluze ziren:
 Zer ahalkeria! batek derra oihuka,
 Doan nerhabea horrela mainguka!
 Aldiz lele handi hori,
 Abade yaun bat iduri,
 Dioan abre gaiñean
 Morgarik handiengan,
 Egiñez xokorrarena,
 Bere ustez den zuhurrena!
 Ezta, gizak dio bere asto gaiñetik,
 Nere adiñeko xokorrik
 Neskatxa, sinhez nazazu,
 Zoazi aitzina, xuhurra baduzu.
 Oh! baiña hirur mokoak
 Eztire hoiñ labur ez gelditzekoak.
 Asko bertze ditxo oraiño
 Zaharrari badoazko;
 Bera ere ixilik ez dago.
 Baiña uste du are huts egiñ duela;
 Hartzen du semea bere gibelera.
 Zenbait urhatsen buruan,

Pasatzen baitzen orduan,
 Hirur-garren tropela bat,
 Hauk ere azkeneko malobra hortarat,
 Kausitzen dute errateko.
 Yende hauk erhoak dire, batek dio.
 Ya, ya ez doake abrea;
 Ukhaldien pean hillen da tristea.
 Zer! karga hoiñbertze borriko maltsoa!
 Hoiñ gogorki sehi trata adiñekoa!
 Duda gabe hoiek doaz merkatura
 Horren larrua saltzera.
 Ya, ya eyharazaiñak samiñki badio,
 Ongi behar dela segur izan erho,
 Nahí duena egiñ orenen gogara;
 Eta bere aitarenera!
 Halarik ikhus dezagun
 Ea nolazpait nonbaitik,
 Bie bertze bat harturik,
 Azerta ahal dezakegun
 Yautseten dire biak: beharriluz phozik
 Badoa aitzinean, hutsik.
 Handik aitzinaaxeago
 Topatzen dute hulako
 Hunek, moda dea, dio:
 Asto yauna doan ariñ,
 Eyharazaiña aldiz inkomoda dadiñ?
 Yabea ala astoa daiteke egiña othe
 Garraiatzeko, eta yasaiteko nekhe?
 Kopa eder batean,
 Espres eginean,
 Zerratzen nolaz ez dute?
 Bere oiñetakoak dituzte higitzen,
 Astoa aldiz menaiatzen!
 Manexek aldiz bertzela,
 Yoana ikhustera doala,
 Abreari zaio yauzten;
 Nola ere koplek dakharten.
 Zer asto trikun ederra!
 Miñki agudeak orduan baderra:



Asto bat naiz, egia da,
 Segur da, ez dezaket ukha:
 Baiña gaurtik hara, nazaten kritika,
 Edo nazaten aproba:
 Erran dadiñ zerbait, edo ez dadiñ erran,
 Nere eta eneen gaiñean,
 Nere buruz xoilki naiz ni yokaturen.
 Hala zuen egiñ, eta ontsa egiñ zuen.

Zoazi soldadu, zaite egiñ abokat,
 Har zazu andre, edo zoaz komenturat.
 Edo seminariorat;
 Zoaz, zatho, zaude, herritik ez mugi,
 Edo hiriz-hiri zoaz kurri kurri:
 Yendek erasiko dute zutaz bethi.
 Baiña zuk eginen duzu denez hirri,
 Baldiñ badaukazu bethi
 Sano kontzentzia, xedea ere garbi;
 Bi gauza horiek falta badituzu,
 Bakhea alferretan xerkaturen duzu;
 Ez deusek emanen dautzu ere asaldu.

GAIZKI EZKONDUA

Ona bethi balitz ederraren lagun,
 Nor ez ezkon bihar baiño lehen egun?
 Baiña nola aspaldi dibortzatu ziren,
 Eta gorphutz eder hagitz guti baizen
 Ezbaita, arima eder bat aloyiturik,
 Gauza biak betan yuntatzen tuenik:
 Ez aipha ezkontzea niri;
 Nahi duena ezkon bedi.
 Ikhusi izan ditut nik asko menaiu;
 Ez zait zalegarri xoil bat iduritu.
 Halere gizonen hurren laur laurdenak,
 Lotsatu gabe lanyerak,
 Barku hortan phozik enbargatzen dire;
 Hurren laur laurdener dolutzen zaie ere.

Badakhart bat, zoiñak, dolutu ondoan,
 Deusik ez baitzuen hoberik atzeman
 Kasatzea baiño etxetik andrea.
 Ema moker, zikoitz ta mokoluzea,
 Deus etzen hunen gogara,
 Ez deus behar zen gisara;
 Berantegi yaiki, goizegi ohera,
 Hau xuri, hori beltz, gero bertze hura:
 Erhotzen ziren schiak;
 Ez zirauken ya nausiak;
 Yauna deusez ez ohartzen,
 Yaunak oro despendatzen;
 Yauna kurri dabill, yauan ezta mugitzen.
 Hanbat harrek erran zuen,
 Non fiñean yaunak, eziñ yasanez ya
 Duende haren erasia,
 Baitzuen egorri fite baserrira,
 Bere burhasoetara.
 Horra bada non den etxeko andre ohia,
 Neska antzara-zaiñ batzuen



Eta mutill urde-zaiñen
 Konpainian ezarria.
 Ephe bat gan den ondoan,
 Aphur bat mudatu daitekkelakoan,
 Senharrak berriz hartzen du.
 Ea bada! zer diozu?
 Han nola zare bizitu?
 Kanpainako bizi laino eta inozenta
 Zure gustukoa othe da?
 Bai bada, diotza; baiñan ikhustek,
 Zirela hango yendeak,
 Gureak bezain alferrak,
 Hagitz ninduen kexatzen:
 Ez nik erran faltaz, ezen
 Ederrik aditzen zuten.
 Baiñan irabazten nik ez nuen deusik
 Lazo hek orenen etsaikoa baizik.
 Hola! andrea, dio senharrak kuxian,
 Baldiñ karaktera zuk zorigaitzean
 Haiñ txarra baduzu, non, istant bat xoilki
 Goizean apenz zurekin daudenak,
 Arratsean gero bihurtzen direnak,
 Bakhean zurekiñ eziñ badathorzi:
 Zer eginen dute horlatan sehiek,
 Egunak dituen ordu guzietan,
 Hekien kontra furian
 Ikhusiko zaituztenek?
 Eta zer eginen du zure senharrak,
 Zure aldean gau-egunak
 Goan detzan nahi duzunak?
 Zoaz, bihur zaite baserrira: adio.
 Baldiñ nik hatsa dudaiño,
 Bazaitut berritan deitzen huna handik,
 Badathorkit ere horlako gurarik,
 Tuzkedan hillen herrian,
 Nere obenen kaztigutan,
 Bi sahetsetan nik bethi,
 Zu iduri emazte bi.

UZKINAXO PAONAREN LUMEZ BERREGINDUA

Sasoiñean paona bati
 Lumak zitzaizkon erori:
 Uzkinaxo batek, oro billdu eta,
 Hetaz zuen egiñ bere tualeta.
 Gisa hartan aphaindurik,
 Anpurus eta haidorrik,
 Gan zen fite morgatzera
 Paona hatzuen baltsara:
 Uste baitzuen hark hala
 Personaia eder bat zela.
 Batek ezagutu zuen:
 Eta bertan izatu zen,
 Burlatua, xistutua,
 Trankatua, yokatua,
 Bai eta yaun Paonek zoiñ gehiagoka,
 Furian moko-kolpeka,
 Biphildu zuten ederki.
 Gan zenean gero ihesi,
 Handik bere kidetara,
 Hauk fite eman zuten borthatik kanpora.

 Uzkinaxo horren pare
 Munduan asko badire:
 Bertzerena hartuz, hek ondu baitire.
 Zer othe zen yuiatzeko.
 Hauk erran zuten hasteko:
 Segurez gauza ikhusia
 Zela gerlako untzia,
 Eta beere fragata;
 Handik laster etzen baizikan brulota,
 Geroxeago kanota,
 Oraiño gero balota:
 Azkenekotzx etzen deusik
 Haga zamaxea hat baizik.



Ah! mundu huntan zenbatez
 Ez daiteken erran legez:
 Zerbait diduri urrundik
 Eta deus ezta hurbildik!

ANDREIERRA SOILHARU BATEAN SARTHUA

Behiñ andreier madama,
 Gerri luxe-lerden-duna,
 Xilo hertsiaño batetik,
 Ez guti eforta egiñik,
 Sarthu zen bada azkenean
 Granera aberats batean:
 Eri-ondo, onera zen emana doiean.
 Han bere gogara poxiñ on-zaleak
 Egiñ zituen aseak.
 Haritu zen yan eta yan;
 Yaiñkoak daki orduan
 Zer bizi zuen egiñ han:
 Eta zingar gizen zenbat zen suntsitu!
 Baiña zer zitzaion damari gerthatu?
 Betan zen loditu, gizendu, zabaldu;
 Kortzetarik etzen oraindik asmatu.
 Aste oso-bat gan zenean,
 Bazkaria akabatzean,
 Abarrots bat aditurik,
 Izialdurak harturik
 Badoa fite xilora,
 Athera nahiz kanpora.
 Bainan ez daiteke pasa niholere:
 Hau zer da? diotza, trunpatzen naiz othe?
 Eta itzuli zenbait egiñ duenean
 Bira-bira granerean:
 Xilo hura, dio, zen hemen berean!
 Bortz edo sei egun duela bakharrrik,
 Iragan nintzen hemendik.
 Arratoiñtto batek ikhusirik horla
 Net penatua zagola;
 Orduan, diotzo, ez zaiten, andrea,
 Zure pantza haiñ bethea:
 Nola zaren mehe ethorri:



Mehe behar zare yalgi.
 Hemen orai derradana,
 Da bertze baiñitzer erraten zaiena.
 Baiña sobra barna huntan sarthu gabe
 Zure egiekoak eta hekienak
 Nahastatu gabe beude.
 Erragun hemen hargatik,
 Fableak gogoraturik:
 Mundura mehe eta, billhuz dena ethorri,
 Nola yin den, hala behar dela yalgi.
 Baldin anbizione ohore, ontasunez,
 Zuzen kontra ardietsiez,
 Edo zikoitzki idukiez
 Hartu badu hemen, andana bandia,
 Irragaitekotzat goiko athe hertsia
 Behar du utzi guzia.

IGUZKIA ETA IGELAK

Printze baten eztaietan
 Oste handi bat hari zen,
 Bere penen lorietan
 Pitzar-arnotan ithotzen.
 Esopo xoillari hemen diduritzo
 Yende hek direla segur ongi gaizo
 Agertaz hartaz hanbat bozkario.
 Beraz hark erran ioten:
 Ekeak aspaldi lehen,
 Ezkontzeko gogo zinez hartu zuen.
 Entzun ziren berehala
 Elkhar hartuak bezala,
 Intzuretako egoilleak
 Oyhuz pleintaka guziak.
 Helas! zer eginen dugu
 Haurrik hark ukhaiten badu?
 Hek zerroten zoriari.
 Iguzki bat ere xoilki,
 Apenaz daiteke sofri:
 Dotzena erdi batek itsasoa ere aise,
 Ezarriko du ur eta abitant gabe.
 Adios, ihi, adio intzurak:
 Ez dirauke gure arrazak
 Behar gaitu egarriak
 Finatu garen guziak.
 Animale pobre, igelen partetik,
 Nere iduriko segurik;
 Arrazoin igurik, zaiten txarragorik.
 Reboluzione bat, egiterakoan,
 Eta republika, iphiñtzerakoan,
 Oxala osteak hau, balauka gogoan!
 Errege bakhar batekin,
 Nasai badugu zer egin:
 Errege multzo bat, gainean badugu,
 Kargaren azpian, nola irauenen dugu?



LEHOISAREN OTSEKIAK

Lehoisa madama hill zen;
 Laster lehiatu ziren
 Yendeak tropan gorthera
 Printzeari doluz bisita egitera:
 Hobeki derradan miña berretzera.
 Probintzier mezu egorri zioten.
 Otseki, froguak, nola eginen ziren,
 Hulako egun, eta hulako tokitan:
 Izanen zirela haren prebostak han,
 Zeremoniaren erregelatzeko,
 Eta nori bere plaza erakutsteke.
 Pentsa zazue hek ea
 Faltatu zuten goatea!
 Izkolaka eman zen errege gaizoa
 Bethe aradak zuen lamia zilhoa
 Eliza bertzerik lehoiñek eztute.
 Haren etsenplura fite,
 Aditu ziren marrumaz
 Batbedera bere erdaraz
 Yaun gorthesanoak oro.
 Gorthea ezen, hemen klarki errateko,
 Herri bat da, zoiñtan alegera, triste,
 Gauza orotaz antsikabe,
 Prest egitera zer nahi
 Yendeak baitire bethi;
 Printzeak zer duken nahi.
 Edo ez badukete ziñez hau guzia,
 Egiten dute alegia.
 Populu mudakor ximinozko ostea,
 Bere nausiaren imitatzailea:
 Milla gorphutz betan dabilzkala, xoilki
 Arima batek diduri;
 Segur ere erran daiteke
 Yende hek direla menanika simple.
 Baiñan emogun hots gure xedeari.

Orkatzak etzuen negarrik isuri.
 Nondik hori egiñ zuken?
 Heriotze harrek mendekatzen zuen;
 Erregiñak aspaldisko
 Semea eta andrea baitziotzan itho.
 Bada nigarrik hark eziñp egiñ zuen.
 Salatzer a fite gan zen
 Lauisengari tzar hat: oraiño zerrala:
 Are egiten hirri ikhusi zuela.
 Errege baten kolera
 Salomon zuhurak derraikun bezala;
 Terrible da segur: eta terriblena
 Errege lehoiñarena.
 Baiña orkatz hunek etzuen
 Libururik erakurtzen.
 Erregek erraten dio.
 Zithal txarra! hirriz ago!
 Eta eztuk kanpoz bederen
 Auhena hau orotan hik parterik hartzen!
 Gure behatz sakratuek
 Unkituko ere ez ditiztek
 Hire menbro profanoak.
 Zathozte zuen, otsoak,
 Zuen erregina mendeka zazue:
 Taidore hau ezazue
 Sakrifika hemen bertan
 Haren orhoitzapenetan.
 Orkatzak aldiz orduan:
 Yauna, dio iragan da
 Nigarretako denbora,
 Eta dolua alferra da
 Hemendik ez urrun loretan yarria,
 Agertu zait niri zure andere ohia:
 Eta erran darot, o kide!
 Ahokuba hunen gatik
 Begietarik nigarrik
 Isur ez bedi batere:
 Lekhu urusetara ni nioanean.
 Phentze loretsu batzutan



Hemen nabillk loreitan:
 Urus, eta elheztakidiñ
 Ni naizen bezala saindu direnekin
 Utzak ene sahets noblearen miña,
 Den nahi bezaiñ samiña,
 Denborarekiñ hixtera:
 Gutia eztuk horrek demaitan plazera.
 Apenaz da hau aditu,
 Non orok biatute betan egin oyhu;
 Mirakuillu! mirakuillu!
 Orkatzak kaztigu beharraren plazan
 Sari handi zuen ukhan.

Errege eta bertze, yende handieri
 Egiotzue amets-kondairak-ausarki:
 Flata, lauda, intsentsa, zatzue gizenki.
 Zuen kontra aserre
 Balin badire ere,
 Laster dire egiñen, zuen adiskide.

DIRU-BILLTZAILLEA ETA XIMINOA

Gizon bat hari zen bill eta bill diru,
 Baiñan orok badakigu
 Enganio hau ardura,
 Furaraiño doala.
 Hunek etzuen pentsatzen
 Karraka eta otxiñez baizen.
 Izantza horiek alfer daudenean,
 Deus eztire nere oldean.
 Segurago bere tresora ukhaiteko,
 Gure dirukoia bere egoitzarako,
 Toki bat hautatu zuen
 Zoiña itsasoak baitzuen
 Inguraturik osoki
 Ohoiñ orotarik salboan ezarri.
 Han haren plazer guzia,
 Nere oldez hagitx gutia,
 Bere ustez hagitx handia,
 Zen diru biltzea bethi eta bethi.
 Gau-egunak zaramatzen
 Konda eta erreconda, bethi karkuletan:
 Karluka eta konda, erreconda bethi,
 Yornalean hartu tatsa bat iduri:
 Bere karkuletan zeren
 Bethi zerbait eskas baitzuen aurkitzen.
 Etzen gauza miretsgarri;
 Zimino handi bat batzuen presiski,
 Zoiñak, hagitx zuhurrago
 Nere ustez segurik bere yaunak baiño;
 Otxiñ zenbait bethi, dostetaz bezala
 Baitzuen botatzen leihotik kanpora;
 Eta nausiaren nahasten karkula.
 Ganbara zelakotz ontsa gakotua,
 Aise zaiteken utz libroan dirua.
 Egun batez don Beltrani,
 Gogora zitzaion yausti,



Zenaz egiteko ofrenda urari.

Nitaz den bezanbatean
Erkatzen ditudanean
Ximino haren plazerak
Eta dirukoia renak;
Nik ez nakike egiazki,
Nere hautua eman zoiñi:
Izpiritu batzu laiste
Naski don Beltranen alde.
Baiña erratea zertako,
Orai laiteke luzesko.

Egun batez beraz gure animaleak
Bidegabe egiten net laket duenak,
Harturik metatik, orai dukado bat,
Karraka bat, edo Luis bat orobat,

Geroxeago ontzako bat.
Bere adrezia eta ahala
Frogtu nahiz bezala,

Etxatzen zituen gero beso-gaiñka,
Hark leihotik bederazka,
Metal-zathi hek guziak;
Gizon gaizook bethitik
Gauza guzien gaiñetik,
Desiratzen dituztenak.

Baldiñ ezbalu hark aditu fiñean

Giltza sartzen sarraillean:

Dukado guziak, bide bera-gaindi
Zorte berarekiñ zitzaitezken geldi:
Eta oro Beltranek, azkenekoraiño,

Itsasoaren zolara

Hanbat kosta-egitez hain aberatstura,
Zuzken hegaldaraziko.

Fable hunek demaizkigu

Begitara bi etsenplu:

Zointarik bata ez bertzea

Zuhur ez baita hartzea.

Dathorlakotz segur, bata erhoa ganik,

Bertzea bestia-ganik.

Zer da pratikatu, beraz behar dena?

Bien erdian datzana,

Eta biotrik, berdiñ urrun dena.

Dirua ezta behar, metatua iduki;

Haiñ guti leihotik, kanporat aurtiki.

Nola behar tutzun, sobrak gobernatu,

Ebanyelioan, ikhasiren duzu.



OILLARRA, GATHUA ETA SAGU T'TIPIA

Sagu gazteino, eta deus guti yakin bat,
 Erori zen behiñ arte txar baterat.
 Huna nola amari kondatu zioen,
 Zer gerthatu zitzaioen
 Iragan eta mendiak
 Erresuma hunen mugarri direnak,
 Nindoala lastereari,
 Bere burua erakutsi
 Nahi arratoiña iduri.
 Agertzen zaizkit betbetan
 Bi animalia hurbill aitzinean.
 Bata arrai zen eta goxo
 Bertzea harro eta khexo:
 Hunek boza gogor eta klara zuen;
 Buru gainean bazuen
 Haragi puska bat: bi besoz bezala:
 Airetara altxatzen abiatzen zela;
 Plumaia eder bat bezala
 Bustana zarabilkala.
 Gure sagiñoak hemen
 Oillarra zuen pintatzen,
 Amerikatik honera
 Ethorririkako gauza bat bezala:
 Yotzen zuen, zion, hark gorphutza kolpez,
 Bi aldetan bere bi beso zabalez,
 Hanbat hots eta azantzekin
 Non, goiko graziarekin,
 Falta ezdudan arren kuraia segurki,
 Ikharan bainintzen gan handik itzuri:
 Bihotzez egin ahala
 Madarikatzen nuela.
 Haren-gatik ezen, ezagutzak aise
 Egiñ nituzken nik animale hertze
 Haiñ goxo iduritu zitzaitan harekin.
 Belusatua da gu bezala berdín,

Pinkardatua, eta buztna luzea,
 Modest bekokia, humilla portea;
 Arratoiñ yaunekin nere ustea laite,
 Laster laitekela kide;
 Ezen ditu beharrik
 Formaz guren iduriak.
 Baniñoakon aldera,
 Noiz eta bertzeak, botarik airera,
 Izkola miñ bat luzeki,
 Egorri bainau ihesi.
 Sagu-amak derro hemen:
 Haurra, gathua zinduen;
 Arpegi hypokrit, faltso haren pean,
 Harrek bere bihotzean,
 Zure kasta guziari
 Gaitz nahi izan dio bethi.
 Bertze animalea aitzitik,
 Hagitz urrun guri gaitzik egitetik,
 Egun batez gure othuruntzetako,
 Yaki izan daite oraiño.
 Aldiz gathuari, gauza da yakiña,
 Gure arrazak dio fornitzen koziña
 Egosia edo errekiña.
 Haurra begirautzu duzuño bizia.
 Arpegitik yendez yuia.

Maiz bekhurundea, duenak beltzena
 Harrek berak duke, arima ederrena.
 Aldiz hirria ezpaiñetan
 Eta arraizia kopetan,
 Dathorkizun hura
 Bera duzu etsai, handiena ardura.



HERBIA ETA EPHERRA

Malurusez inoiz ezta burlatzeko,
Nork ezen derrake naiz urus bethiko.
Herbia ea epherra lur berean lehen
Harturik egoitza, hauzo bizi ziren.

Bizia zaranaten han
Idurik gozo onean.
Baiñan egun batez, kolpez hurbildurik,
Ora multzo batek egortzen du handik
Herbi gaixoa lekhora,
Ihes-lekhu xerkatzera.
Xilora itzuri badoa.
Gal-arazten ere diote arrastoa.
Milor ernea are da bera trunpatzen.
Baiña berak bere burua du galtzen.
Gorphutz berotutik darizkon lanhoak,
Azor zaharraren sudur filosofak
Estudiatu baititu;
Eta laster bere herbia ezagutu.
Khartsu badarrio: eta tanbur finak
Hala eztenik nihoiz erran eztuenak,
Seguratzen du, herbia
Aspaldi dela yalgi.
Eta miserable hura
Badathor bere xilora
Azken hatsa botatzera.
Epherrak, tronko-gaiñetik,
Bere ustez net seguretik,
Burla egiñ zion; erranik:
Haiñ abill hintzelakoa!
Non tuk hire oiñak, gaixoa?
Horla hirriz dagolarik,
Bere xaiñdea ethorririk;
Atzemana da betbetan.

Bere gagoan hark segura zadukan,
Bere hegalez noiz-nahi,
Lanyer orotarik zaitekela yalgi.
Baiña egitean kontuak
Ahantzi zituen berak
Buzoka jaunaren, atzapar krudelak.



ARRANOA ETA UNTZA

Arranoak eta untzak
 Utzirik bere kereillak,
 Bakhea elkarrekin haiñ ontsa egiñ zuten,
 Elkharri musu non eman baitzioten.
 Batek eman zuen hitza erregerrena;
 Bertzeak ere untzarena;
 Etziotzatela aboro
 Umek elkharri nihoiz iretsiko;
 Batere ez guti, ez asko.
 Ezagutzen othe dituzu nereak?
 Derra hemen xori olio zaleak.
 Ez, derra arranoak: hanbat gaitztoago,
 Bertzeak aldiz baderro:
 Heien larrua horlatan
 Sobra ez daukat segurean.
 Ustekabea izanen da
 Hetarik batere kontserbatzen bada.
 Nola errege zaren, zer, ez nor daiteken
 Eztuzu konsideratzen:
 Errege puxantek bethi,
 Derrakioten zer nahi,
 Guziak bere oldean
 Dauzkate lerro berean.
 Nere ume gaixoak adiu!
 Atzematen badituzu.
 Errazu nolako diren,
 Hemen arranoak derra, edo bederen
 Erakuts dietzadatzu:
 Hau aise egiñ dezakegu.
 Ez ditudala unkituko,
 Hitz dautzut, bizi naizeño.
 Untzak aldiz: nere haurrak
 Hagitz dire gisakoak,
 Ongi-egia, eta ederrak
 Bere kide orotan askoz pullitenak.

Seiñale hortarik aise
 Zuk ezagut detzatzuke;
 Ahantzetik begirautzu:
 Gogoan haiñ ontsa emazu
 Non, zure bidez malura,
 Sarthuren ez baita nihoiz ene etxera.
 Bada untz damari zeruak
 Eman ziotzan premuak
 Eta illhunte batez zelarik illkia
 Familla emearen billha hazkurria:
 Gure arranoak goietik
 Bertzerik gogoan zarabikalarik,
 Begi-kolpe batez ditu ustekabea
 Ikhusten zori-gaitzean
 Arroka-xoko batzutan,
 Edo pareta tzar baten zilhoetan
 (Hoiek bietarik ez baidakit zoiñtan)
 Mistro ttiki batzu hagitz itsusiak,
 Tratxu eta moldegaitzak,
 Ema zahar boz batekin.
 Hark bere buruarekin:
 Hauk eztire, derra, umeak
 Gure adiskidearenak:
 Detzagu klika direnak.
 Galaiaren othuruntzak
 Eztire ez erdizkakoak.
 Untza zenean itzuli
 Kausitu zituen xoilki,
 Ume maithen atxaparrak:
 Gaitiko guziak, belas!
 Suntsituak ziren arras.
 Samiñki da errenekuratzen,
 Zerua duela othoitzen
 Puni dezan brigant hura,
 Haren gaitzaren autora.
 Orduan untzari hemen
 Dio norbaitek erraten:
 Zertarako duzu pleiñta?
 Zerorrena duzu falta:



Hobeki derradan, lege komuna da
 Kausi dezan bethi, nork bere duena,
 Eder, maithagarri, eta ongi-egiña.
 Zuk ziñon portreta hori,
 Zure hurrez eman, arrano jaunari.
 Hunen zaitekena falta
 Faltsoa bazen portreta?

Aita-amen artean, ahal da untza franko
 Bere umen gaiñean, direnak itsusko:
 Hauk badire itsusisko
 Heier zaizkote gisako;
 Eta gisako badire,
 Ederrago deus ez zaie
 Ume gisako hek baiño;
 Nahiago dute oraiño
 Aditu bere umez, hauk direla gaitzto
 Itsusi direla baiño
 Nahiz izaita hobe den segurki,
 Eder gaitzto baiño, berthutos itsusi;
 Egiazko edertasuna
 Baita berthutearena.

PAONA YUNONI PLEINTAKA

Paona lehen behiñ Yunon Yainkosari
 Pleiñi zitzaion samiñki.
 Pleiñitzeko, zerron, bai eta erasteko
 Segurki badut motibo.
 Eman zaitan kantua
 Yende guziez da net mezprezatua
 Aldiz Roxiñolet xirtxilla horrena,
 Bere tornutan da zuffle eta ozenena;
 Bera da ohorea primaderarena.
 Yunonek koleraturik,
 Erraten dio goietik:
 Xori haizen bekhaitztia!
 Ixil hobe huke atxiki mihia.
 Hiri badagokikea
 Roxiñoletaren bozaz yelostea?
 Ez hauguia ezarri hiri
 Inguru lepoan oltzadarra iduri
 Xerrenda bat ehun koloretakoa?
 Eta gibleko hire abenikoa
 Haiñ aberatsa, eta lilluratzekoa,
 Perlazko uztaia iduri,
 Guzien begien legez xoragarri,
 Astiz dukela zabaltzen,
 Eza haiza morgaz hanpatze?
 Zeruaren pean badea xoririk
 Bistako hi bezain agradagarririk?
 Animale batek berak
 Ez ditik dohaiñ guziak.
 Eta guk inobre donu,
 Partitu dauzkitzuegu.
 Batzuer zaie eman tamaiño larria,
 Bertzer indarra handia.
 Belatxa airean duk hate,
 Arranoa animuz bethe:



Belea egiña duk orakletarako;
 Aldiz Bele emea gaitza anontzatzeko:
 Eta guziak musikaz
 Kontent kaudek zoiñ bereaz.
 Ixil-hadi beraz errenkuratzetik;
 None ez, nik orai beretik
 Hire punigarri,
 Yauntzkura eder hori,
 Khenduko daiat soiñetik.

Horla handi nahi denak
 Duenaz satifo, nihoiz ez dagonak,
 Eta eztuenaren, bethi gura denak,
 Lehen zuena ere, galtze du maiz haiñak.
 Eta nahi dena, bethi gan gorago
 Ardura da geldituko
 Aitzinean zagon, beño beherako.
 Horla gazte asko, Parisat doazi,
 Plaza edo diru han, nahiz ardietsi;
 Duten ondoan hek, luzaro iguriki,
 Pobreago handik, dire maiz itzuli:
 Lehen zituztenak, baidituzte iretsi.

SUGEAREN BURU-BUZTANAK

Sugeak baitu bi parte
 Zoiñak gizonaren etsaiak baitire:
 Buru-buztanak hek dire.
 Biak nola biak dire ospe gorean
 Erresuma goibelean.
 Halako gisaz non lehen
 Disputa handitan izatu baitziren
 Aitzinean zoiñ ganen zen
 Burua orduraino bethi
 Zen izan aitzingidari.
 Eman zen buztana pleiñtaka zerura,
 Hunela mintzatzen zela:
 Lekua asko eta asko ditut egiten nik,
 Nausitxo hunen ondotik,
 Herrestan narraiolarik.
 Uste duia horla bethi
 Nahi naizela ni bizi?
 Mafua! horren zerbitzari!
 Yainkoari esker ezen egiñ naute
 Horren aizpa, ez segidante.
 Odol ber-beretik biak nola garen,
 Berdiñ gaitzatzu trata arren:
 Nik ere dudan pozoiña
 Da horrena bezaiñ lasterra eta fiña.
 Ez naiz aboro hedatzen:
 Horra zer dudan eskatzen.
 Oraí, zuri manatzea
 Dukedan nere xaiñdea
 Aizpa buruaren abrean gateko,
 Haiñ ongi dut gidatuko,
 Non, ez baita izanen deusik errateko.
 Entzun zituen zeruak
 Ondikoz hunen botuak.
 Maiz haren konplasentziak
 Badiut segida txarrak:



Galde itsuer bethiere
 Egiñ gorrarena behar liokete.
 Hala egiñ etzuen hemen.
 Buztana aitzinean ezarria izan zen.
 Eta gidari berriak
 Eguerditan gehiago
 Labe beltz batean baiño
 Deus ikhusten etzuenak;
 Yotzen zituen aldizka
 Zioala itsu mandoka,
 Gauza topatu guziak
 Marbola bat hemen, bideante bat han,
 Gero haritz bat hara han:
 Etzuen hark onik ukhan,
 Non etzuen aizpa bertze aldera eraman.

Zorigaitz beraz segurki!
 Yende edo populuari,
 Buruaren plazan, buztana gidari,
 Nihoiz hartzen duenari!
 Falta ez dakioke hari
 Trunbilka itzuliz-itzuli,
 Ondikoz-ondiko bethi,
 Goatea airski beheiti;
 Duken artio azken, lezea ardietsi:
 Itsua eman baitu, argien gidari.

MIRUA ETA ROXINOLETA

Miru larroiñ famatuak,
 Lotsatu ondoan urrun inguruak
 Has-arazi ere oyhuka
 Herriko haurrak murruka:
 Zoriz atzaparretarat
 Erori zitzaion roxiñoleta bat.
 Primaderaren xantria
 Dagoko galdez bizia.
 Berdiñ zer khen ahal yaki
 Soiñu baizen ez denari?
 Entzun ezazu hobeki
 Kantatzera noatzuna:
 Hura da Tereo, eta hirritsa harena.
 Tereo zer? hura dea zenbait yaki
 On zaiena mirueri?
 —Ez, baiña errege bat zoinek
 Pasionen tzarrez, su likits batzuek
 Baitzauzkidan erakutsi,
 Filomela deithzen nintzenean niri.
 Kasu hortaz nahi dautzut,
 Aspaldi ikhasia baitut;
 Istorio bat kantatu
 Zoiña entzun nahi baduzu,
 Xarmatu behar baitzaitu.
 Ezta animale, ez yenderik
 Nere boza entzuten laket ez duenik.
 Miruak orduan zion ihardetsi:
 Hau ederra dugu, pardi!
 Barur gaitzean nagola,
 Hathorkit musikaz niri mintzatzera!
 —Mintzaten nitzaian segur printzeeri.
 —Alta bada: errege bati,
 Bethi ase denari,
 Eskutara hauenean



Egizkok asti-onean
 Hik hire kondaira ederrak.
 Baiña hoietaz miruak,
 Burla egiñen baizen eztk.

Sabel gose denak eztk beharrik.

ANDREIERRA, LAPINA ETA GATHUA

Andreier madama Yanot lapiñaren
 Yauregiar egun batez yabetu zen.
 Melezia baita dena,
 Aise egiñ zuen hark lana.
 Yabea behiñ etxetik
 Illkia zela goizetik
 Sorropill loretsutara
 Albari gorthe egitera:
 Orduan zuen kuxian
 Bere menaiua hark harat eraman.
 Alhatu zenean phozki
 Hara yauzi, huna yauzi,
 Eta bere yustak oro egiñ ondoan,
 Etxeko alde Yanot kontentik zen eman.
 Hurbiltzean bada etxera
 Andreierraren sudurra
 Agertzen zaioi leihora:
 Oy! zeru yustua! zer ikhusten dut nik?
 Bere arbasoen etxetik
 Kasatu bestiak dio.
 Hola! andereñua atxatxo
 Tokia huts baziniro?
 Non ez, mezu daiet egorriko laster,
 Herriko arratoiñ guzier.
 Andere sudur xorrotxak
 Ihardetsi zion, lurrak
 Etzuela bertze yaunik
 Lehen hartzaillea baizik.
 Arrazoiñ ederra, pardi!
 Gerla emaiterako niri!
 Egon-toki bat zoiñtara
 Sar erbaidaiteke bera,
 Baizen lurrean herresta!
 Erresuma balitz ere,
 Mafua, yakiñ nahi nuke,



Zerran, zoiñ legek dioken
 Bethikotzat eman haren
 Yabetasuna Yoanesi
 Pitre edo Gillenen seme edo illobari?
 Eta ez Yani edo niri?
 Yanot lapiñak orduan
 Allegatu zaizkan betan
 Kostuma eta usarioa:
 Horra, dio, bide net zuzenezkoa
 Nauena egoitza horren ni
 Bihurtu yaun eta nausi:
 Segidan pasa-razirik
 Haurra-ganat aita ganik:
 Peillok emanik Simuni
 Gero hunek ni Yanoti.
 Lehen arrapatzailea,
 Legea hobea dea?
 Bada orai mokoka hemen hari gabe
 Bedi gure artean yuie,
 Diotza, Raminagrobe.
 Gathu famatu bat hau zen,
 Ermitaua iduri zoiña bizi baitzen,
 Gathu santanituxa bat
 Idukia oroz saindutzat:
 Belusapean sarthua
 Gizen, yori, maltsatua,
 Kausa orotan espert hagitz aditua.
 Yanek onhesten du yuietzat kuxean.
 Biak billdu direnean
 Maiestate orratu haren aitzinean;
 Gripaminok baderroie:
 Zathozte, haurrak, zathozte,
 Othoi, hurbillago yar zakizkidate
 Urthek arras gorthu naute.
 Eta biak badozko
 Ezdutelakoan deusik beldurtzeko.
 Ikhusi orduko menea partidak,
 Minotz apostolu onak,
 Etxaturik patak ezker-eskuiñ betan,

Net akort zituen eman:
 Bata eta bertzea klikaturik bertan.

Halatsu zaiote, gerthatzen askotan
 Printzexka batzuer ere,
 Zoiñek bere disputetan
 Erregeak hartzen, baidituzte yuie.
 Ez nahiz elkharrri, barkhatu gutia,
 Galtzen baitute guzia.



BELEA, ARRANOA IMITATU NAHIA

Yupiterren hegaztina,
 Hedoietakoa erregiña,
 Behiñ bele batek bada ikhusi zuen
 Zikiro bizi bat goiera eramaten.
 Herbalago erraiñez, gormant hura bezain,
 Hark bezala nahi ukhan zuen egiñ.
 Bada arthalde baten badabilla inguru:
 Ehun burutarik begiz hautatzen du
 Ederrena, gizenena,
 Sakrifiziotan ofrei zaitekena,
 Aho saiñduentzat berexia zena.
 Bele fanfarrunak xitatzen bezala
 Bi begiez zadukala:
 Etzakiat, zerran, lehen hik nor othe
 Izatu duken unhide.
 Baiñan orai nere ustean
 Hire gorphutza duk ardura ederrean:
 Ase-on baten gaia neretzat menean.
 Hori zerralarik, abre maltsoari
 Hirritsan gaiñera laster zaio yautsi.
 Zikiroki kreatura
 Aurkitu zuen hark zela
 Aphur bat pisuxecago
 Denborako gasna baiño.
 Haren illea oraiño
 Baitzen lodi izan ahala;
 Eta nahasia hala
 Ema hordi baten bilhoa bezala:
 Izan ziren hartan haiñ engaiatuak
 Belearen atzaparrak,
 Non xori tristeak ez baitzuen handik
 Eskapatzeko lanyerik.

Badathor artzaiña: harturik, kaiolan
 Zerratzen du segurean:
 Ea ematen daie laster
 Dostagaillu bere haurrer.
 Hasi baiño lehen lan egiñ beharra,
 Izar beza beraz, nork bere indarra:
 Ez erran: bertzek egiña
 Ezta neretzat eziña.
 Listorra iragan tokian
 Badago ulitxa askotan
 Eziñ iraganez bertan.



ORA-EMEA ETA BERE LAGUNA

Egiteko umeak ya muga ethorria,
 Eta ez yakin non utz karga haiñ yoria:
 Ora batek bada haiñ ontsa egin zuen,
 Non erakharri hark laguna baitzuen
 Prestatzera bere etxola,
 Zoiñtan baitzen gerosarthu berehala.
 Zenbait denbora gan eta,
 Prestatzailea itzultzen da.
 Ora-amak galdetzen dio
 Hamabortz bat egun demotzan aboro.
 Umeak ez zabillzkoken,
 Zerran, hagitz nekhez baizen.
 Beraz ardietsi zuen,
 Birden tremio hau iragan deneko,
 Berriz galdetzera hura badathorko,
 Bere etxea, bere gela,
 Ohea, ziren bezala.
 Oraikoan amak hortzak agerturik
 Baderro fier barnetik:
 Nere troparekiñ illkitzera nago,
 Baldinzu bazaen gai ni kasatzeko.
 Haurrak ya zituen egiñak gothorsko.

 Tzarrer emanikakoa
 Bethi da urrikitzekoa,
 Non ez dadukazun xedean Yainkoa.
 Billtzeko hetarik, zaiena prestatu,
 Maiz ukhalditara, behar da pasatu:
 Behar da eman hauzi, behar egin gudu.
 Utz-atzu etxean, esku bat hartzerat
 Laster dute berek, hartuko bertze bat.

OTSOA ETA ARTZAINAK

Otso karakteraz hagitz ezti batek,
 (Halakorik baldin badu mundu hunek)
 Zuela egun batez gogoan ibiltzen
 Zoin kruel hura agertzen zen,
 Beharrak bakharrrik zarabillkan arren;
 Sarthu zen barna ezarian
 Meditazione huntan.
 Aborritua naiz, diotza, eta nortaz?
 Oroz eta batbederaz.
 Otsoa etsai publiko da:
 Billtzen dire nere kontra
 Zakur, ihiztari, herritar guziak:
 Yupiterrek beharriak
 Gorthuak ditu gain hartan,
 Hauien haroaz betbetan.
 Angeletarretik bide hortaz ere,
 Gure anaiak oro suntsituak dire.
 Gure buruak ziren han
 Ezarriak preziotan.
 Baserritan ezta noblexea sinplerik
 Husu gure kontra bandoa ez demanik:
 Haur bat bada oyhuz hasten
 Amak otsoaz du fite mehatxatzen.
 Eta hauk oro zergatik?
 Zikiro usten zenbaiten,
 Asto zaragartsu baten,
 Edo ora eihar baten gatik,
 Zoiñen gostuz iñoiz, derradan egia,
 Baiduket pasatu nere fantesia.
 Eh bien! dugun ez yan aitzina hemendik
 Bizia duken gauzarik.
 Gaiten haz belharrez, eta gaiten alha
 Zikiro kasta bezala;
 Edo lehenago, gaiten gosez fiña;
 Gauza dea haiñ samiña?



Eta oraiño hobe dea
 Guzien higuintza bere-ganatzea
 Hitz horiek erratean,
 Ikhusten ditu hara-han
 Artzaiñ batzu bildots baten
 Gerrenean birakatzen,
 Gero hartarik asetzen.
 Oh! dio hark horren bistan,
 Senti dut nik eskripula,
 Arraza horren odola
 Isurtzen dudalakoa.
 Horra hoien goardariak
 Hoitarik non diren asetzen guziak
 Berak eta bere n orak.
 Eta otsoak, nk gaizoki
 Beharko tut guphidetsil
 Ez alafede hargatik,
 Nitaz holako hirririk.
 Mattiñ arkume yoria,
 Iduriz guri-guria
 Despedituko dut fite,
 Gerrenean izan gabe:
 Ez bakharrrik hura, baiña
 Errapea demon ama,
 Baita are aita dukena.
 Otsoak arrazoin zuen.
 Gu beraz gare ikhusiren
 Hartzen yateko zer nahi
 Abere, azinda edo xori;
 Eta hek nahiko tugu
 Alegiñaz obligatu
 Yanari simple hetara
 Urrezko mendekotara!
 Eta egon beharko dire
 Kroka eta tupiña gabel!

Artzaiñak, artzaiñak, hor ikhus-azue;
 Otsoak bada eztu, nihoiz ere obenik
 Gaiña ez duenean baizik.
 Ala nahi zindukete
 Bizi lediñ bethiere
 Ermitaiño baten pare?



TRESOR GORDETZAILLEA ETA BERE KONFIDENTA

Sos xikitatzaiole tratulari batek
 Billdu zuen diru haiñ bertze, non harrek
 Ya non gorde ez baitzakien:
 Abarizia nola den
 Inorantziaren aizpa eta laguna;
 Hark zuen gure gizona
 Griña handian ezartzen,
 Bere sosak nori fida ziotzaken:
 Nonbait seguratu nahi baitzituen.
 Eta arrazoiña hau zuen:
 Gauza da hagitz tentosa;
 Baldiñ nere etxean hek iduk banetza,
 Nere ontasunaren laster ebatstaille
 Nihaur billhaka ninteke.
 Zerorren ohoiñ! zer! beretik hartzea
 Izan daiteke ebatstea?
 Adiskide, zaitak net urrikalgarri
 Enganio handi hori
 Nahi deraiat nik orai irakatsi,
 Eztuela urreak nihoiz baliorik
 Batetik bertzera dabillala baizik:
 Bertzenakz, ez on bat, baiña gaitz bat dela.
 Ala nahiago duk gardatu hura,
 Urthe eta egun hetarako
 Zoiñetan deusetarako
 Ez baitzaik baliatuko?
 Billtzerako hartu behar den nekheak,
 Eta goardatzeko griñak,
 Khentzen zaiek urreari,
 Haiñ baitezpadako didurienari,
 Bere prezio guzia.
 Bere buruari lan horren antsia
 Lanyer gabe khentzerako,
 Erreki zituzken hark ediren asko

Yende segur hortarako:
 Nahiago izan zen lurrari fidatu;
 Eta hortarako konfident bat hartu:
 Hunek bozki laguntzen du.
 Enterratzera badoaz
 Tresora lurpean beraz.
 Iragan denean aphur bat denbora,
 Giza badioa hara
 Bere urrea ikhustera:
 Baina eztu kausitzen ohatzea baizik.
 Bere konfidanta legez suspixturik,
 Erratera badoako:
 Prest zaude, manex, biharko;
 Bertze zenbait sos oraiño,
 Baditut han ezartzeko.
 Konfidanta berehala
 Badoa toki hartara
 Ebatsi dirua haratz itzultzera:
 Zeukala ordutik gogoia,
 Lehengoa eta oraikoa
 Goratzeko meta osoa.
 Baiña oraikoan hargatik
 Bertzea izatu baitzen abillenik:
 Guzia baitzuen eraman etxera,
 Deliberatua han idukitzera,
 Eta hartaz goatzera.
 Ez aboro metatzerik,
 Gutiago enterratzerik
 Egon zen larroin gaizoa
 Ez edirenik magoa,
 Net illundua bekhoa.

 Eta erakutsten daukula
 Gauza bat haiñ gaitza eztela,
 Batzutan trunpatzaillea
 Bere saretan hartzea.



GATHUA ETA ARRATOIÑA

Piñu zahar baten trunko hutsaldua
 Zen laur animale motez hantatua:
 Zoiñek berdiñ turnatua
 Baitzuten izpiritua.
 Untz olio-zale zen goiko estaiean,
 Gathu gasna-zale zen goiko estaiean,
 Gathu gasna-zale beherbeherean;
 Andreier gerri-lux gathuaz gorago,
 Hortz-xorrotx arratoiñ, untzaz beherago
 Arrats batez oro billduak zaudela.
 Giza bat gan zen, arbola
 Sarez inguratzera.
 Gathua illki zen ixillik
 Yaki xerka goiz-goizetik.
 Nola ez baitzen arras argi
 Sarea ez zuen ikhusi.
 Tristeia sartzen da hartan
 Hilltzeko lanyer handitan
 Hasten da laster oyhuka:
 Arratoiña fite badathor lasterka.
 Bat dago desolatua,
 Bertzea aldiz net boztua
 Ikhustearakiñ sarean zatzana
 Bere etsaik handiena
 Gathuak humill baderro:
 Ene maithea, on nahizko
 Badiat hi-ganik yadan froga franko.
 Athorkit bada arren,
 Lagun nazak yalten
 Sare hunen kartzelatik,
 Zoiñtan ez-yakiñak sar-arazi bainaik.
 Titxaz eta legez oraidiño haut nik
 Hire kidetan bakharrik
 Amultsuki menaiatu;
 Begi-ñiniaren pare ere maithatu.

Hortaz dolurik eztiat,
 Zeruari ere eskerrak ziotzat.
 Egitera nindoaken
 Gathu debot orok nola usatzen duten,
 Nere goizeko othoitza ni:
 Sare hunek ez tik nahi.
 Hemen nagok preso eziñ itzuria;
 Hire eskuetan duk bada ene bizia.
 Athor, korapillo hauk, othoi, urraz-kik.
 Eta emanen dautak hortako saririk?
 Erraten dio arratoiñak.
 Bai, segur derro gathuak.
 Patu eternal bat oraitik hirekiñ
 Egiñen diat ziñekiñ.
 Nere atzaparra bethiko
 Dadiñtzat hire meneko:
 Eta hortaz segur ago.
 Andreierra nere zintzurra behera
 Ganen duk, baita untza bera:
 Hire etsaiak dituk biak nola biak.
 Tontoa! derro arratoiak:
 Hi bai nere aldekoa!
 Ez nauk eiki haiñ astoa.
 Badoako gero handik
 Bere etxera doalarik,
 Kausitzen du andreierra
 Xikotik hurbill errara:
 Gorago badioatzu
 Aldiz han untza aurkitzen du.
 Alde orotarik lanyerak:
 Badarama herstuenak.
 Matxika-belari bihurtzen da fiña
 Gathu presunera-gana.
 Eta hariz-hariz hautsten du saretik
 Maill bat: eta laster bertze bat ondolik;
 Eta hortz xorrotxez haiñ traillaillatzen da
 Non libratzen baitu bada hypokrita.
 Giza agertzen zaie orduan yustuki:
 Patu egilleak badoaz itzuri.



Denbora bat gan denean
 Gathuak ustekabeen
 Urrundik bere arratoia
 Zagola ikhusten du erne eta atzarria.
 Oy! anai, athorkit, dio, besoetarat;
 Hire mesfidantza laido duk enetzat:
 Patuz elkharrekin kidegurik ere
 Etsai nadukak halere!
 Pentsatzen duka nik ahantzi dudala,
 Yainkoaz gerostik hiri zor haudala
 Izaitea orai bizirik?
 Arratoiñak aldiz: eta uste ahal duk hik
 Dudala nik arras gogotik galdua
 Nolako den hire tenperamendua³
 Badaitekeia paturik
 Gathu bat eskerti bihur dezakenik?

Eta errateko fiñean,
 Nihork othe du kondatzen
 Eziñ bertzez egiña den
 Akordu baten gaiñean?

GATHUA ETA ARRATOIÑ ZAHARRA

Gathu famatu bat bazen
 Rodilardo zen deithatzen,
 Gathuen Bonaparte zen.
 Arratoiñ burreu handia,
 Gaitza zen hark desmasia
 Heien artean egiña.
 Munduaren azken-fiña,
 Zadukaten ethorria.
 Taula pisu altxatuak
 Doiean xotx batek airean dauzkanak,
 Pozoindatu yanariak,
 Bertze arte gisa guziak,
 Etziren dosteta baizik
 Harekiñ konparaturik.
 Ikhusirik beraz saguak zaudela
 Bere xiloetan presuner bezala
 Agertzerat xoil bat etzela atrebitzen
 Ihizira zela alferreta illkitzen:
 Nola baitzen maltzurrena,
 Egiten du hillarena.
 Goiko soliba batetik
 Buruaz behieti dilinda yarririk:
 Aziñda frikunak kordel buztan bati
 Oiñ bat zion iratxiki.
 Arratoiñen populuak
 Pentsatzen du han gathuak
 Aurkitu duela bere kaztigoa,
 Egiñ duelakotz ohi ebatskoa
 Gasnatik edo errekitik:
 Norbaiti xarrapo egiñik,
 Edo bidegabe zenbait kausaturik,
 Han dela fiñean gaitztagiñ handia
 Ontsa urkhaturik utzia.
 Orok, diot, dute berdiñ
 Uste hirriz leher egiñ



Haren enterramenduan
 Aspaldi desiratuan.
 Sudurra xilotik erakutsten dute:
 Gero aphur bat burua ere,
 Gero barnat sartzen dire,
 Gero illkirik oraiño ere,
 Urhats zenbait bademate:
 Baina hemen besta xanyatzen zaiote.
 Urkhatua zaie phitzten,
 Laur atzen gaiñera yautsten,
 Eta nagienak ditu arrapatzen.
 Badkigu holako asko
 Yaten hari dela, dio;
 Bego gerlari zaharra:
 Zuen xilo hutsetara,
 Ganen zarete alferretan,
 Han salbo zaitelakoan:
 Huntaz net segur zaudete
 Oro eskurako zarete
 Egia erran zuen: badu antzea asko
 Gure yaun Mitisek, bigarren aldiko,
 Hek yoka eta trunpatzeko.
 Ihausirik iriñean,
 Zuritzen du soiña hartan;
 Eta arras desgisatua,
 Zena biriblkatua,
 Maira zabaldu batean
 Emaiten da erdi-erdian.
 Oste urhats xehetakoa
 Badathor den buruxorua,
 Bere maluraren billha.
 Arratoiñ bat da xoil-xoila
 Ez doana ingurutura
 Sudurraz travaillatzera:
 Parratxiku zahar bat zen;
 Asko itzuliren hark berri bazakien:
 Are batailletan buztana utzi zuen.
 Iriñez estali bula zuri horrek,

Derro urrundik oyhuz harrek
 Gathuen yeneralari:
 Deus onik ez zautak erran nahi niri.
 Beldur nauk hor ere oraiño
 Badela zenbait arteiño.
 Alfer duk izaitea iriñ:
 Zaku bahinte ere egiñ
 Ez nitzaikkek hurbill berdiñ.
 Hark ederki erran zuen;
 Haren prudentzia dut net aprobatzen:
 Zuhurtzia falta etzuen.

 Eta bazakien segurantza dela
 Mesfidantzaren alaba.



LEHOISA ETA HARTZA

Lehoiñaren damak lehen
 Bere umea galdu zuen;
 Ihiztari batek eraman zioen.
 Ama malurusak orho haiñ handia
 Egiten zuen, non oyhan zen guzia
 Bai zeukan iharrosia.
 Gauak, ez hunen goibelak,
 Ez hunen ixiltasunak,
 Ez bertze dituen xarmek
 Etzezaketan guziek
 Bara araz garabik
 Azantza egitetik,
 Oyhanetako erregiña:
 Haiñ zuen dolu samiña.
 Etzen animaliarik
 Begirik hets zezakenik.
 Hartzak finean baderro:
 Komai, hitz bat, ez aboro:
 Ume maite hek guziek,
 Zure hortzetarik iragan direnek,
 Bazutena aita eta amarik?
 Bazuten, ezta dudarik.
 Bada hori horla bada,
 Eta heriotze hek guzietarik
 Xoil bakhar bat ere ezpada
 Burua hautsi daukunik,
 Hanbat ama egotu badirade ixilik;
 Ixilik zu ere zergatik etzaude?
 —Nagon ixilik ni! belas! ez nagoki:
 Naizen burhaso tristea!
 Galdu dut nere semea!
 Zahartze titxakabena
 Da iragan behar dudana!
 —Errazu, eta zerk hortara zaitzake?

—Zoriak segurez ere;
 Etsai baitut bethiere.
 Orok mende guzietan
 Hitz horiek berak dituzte ezpaiñetan.

Giza-ume miserableak,
 Hau zuer doakizue:
 Pleiñtarik funtsgabeenak
 Bethi badarizkitzue.
 Zuen maluretan ere
 Kontsola eziñ zaitezketel,
 Fedea, zentzua, lagun ditutzeu,
 Halere gaitzetan kharrik ez duzue:
 Hanbat argirekin bethi itsu zaudete,
 Hanbat laguntzekin herbal bethiere:
 Bertze bizitze bat sinhetsten duzue.
 Nola ezpalitz bezain lurkoiak zarete?
 Zer balio zuen ez sortzea abere?



ARTZAINA ETA ARTHALDEA

Zer! bethi faltatuko zait
 Oste ergel huntarik zenbait!
 Eta otsoak bat edo bat
 Eramanen daut triparat!
 Zertako ditut kondatzen?
 Millez gorago baziren,
 Eta guziek halere
 Galtzera utzi dautet Pette:
 Pette xikiro maitheña,
 Ongi-axal baten-gatik
 Hirian bazarraitana,
 Munduz-mundu ere phozik,
 Segituko ninduena.
 Ay! ay! nere Pette xikiro maithea!
 Gillenek hola hill-orazionea,
 Zuenean akabatu,
 Eta Pette gaixoaren
 Orhoitzapen maithearen
 Iraupena seguratu,
 Mintzatu zitzaion bere arthaldeari,
 Aitziñdari, oste, bildotxei bereri;
 Zituela othoitzten gogor egiteaz:
 Hori bera askiko zutela egiaz,
 Otsoak oro urruntzeko
 Hauk populu ohorezko
 Baten hitza bademote
 Orok segur eta firme;
 Segurki hek mugituko
 Ez direla gehiago
 Muga-harri batzu baiño:
 Ithoko ere dugu, derrate, gormanta,
 Pette gaixoaren eramaille ausarta.
 Badema fiador nork bere burua;
 Gillotek sinhetsi zuen populua!
 Eta egiñ zioten besta eskerrezkoa,

Naski belhar fiñezkoa.
 Hargatik arratsa yin zen baiño lehen,
 Otso bat agertu baitzen,
 Arthaldea ihesi gan zen:
 Otsoa etze: etzen itzal xoilba baizen.

Soldadu txarrei harenga egitea,
 Ikhatz ethenduer da haize emaithea.
 Lanyeretik urrun fanfarrunen deun,
 Bethi da kasuan soldadu txarrena.



APOARMATUA ETA BI AHATEAK

Apoarmatu bat zen koxko ariñekoa;
 Eta unhatua bethi zaiñtzeaz xilhoa:
 Ikhusteko mundua hartzen du gogo.
 Toki arrotzak bethi dire gustagarri:
 Nahi hori hebainek etxea utzi nahi:
 Ahate biek, zoiñer komaiak baitzaien
 Erran zer gogo zukeien;
 Ihardetsi zioten, hek haren afera
 Egiñen aise zutela.
 Ikhusten duzu hor bide zabal hori?
 Biek ramanen zaitugu hor gaiñdi,
 Ameriketara airetan:
 Eta denbora berean
 Ikhusiko duzu republika franko:
 Erresuma eta yende asko:
 Eta hetako usantzez,
 Ikhusiko ditutzunez,
 Zare zu probetxaturen.
 Kolombok hala egiñ zuen
 Etzaiteken hanbat igurikitzeke
 Segur aurkitzea hementxe Kolombo.
 Apoarmatuak proposizioa
 Aurkitu zuen net azetatzekoa.
 Tratua egiñ eta, hegaztinek bertan,
 Trabaillatuz herresakan,
 Mekanika abill bat laster dute egiñña
 Airetan goateko gure pelegriña.
 Emaiten diote trebeskara ahoan
 Zaro bat hortzen artean:
 Tinki, derrote, atxik-azu,
 Utz izurtzera behautzu.
 Gero bi ahateek elkhar aditurik,
 Hartzen dute zaroa buru banetarik,
 Eta apoarmatua denean goiera;
 Yendeak oro daude harrituak beira,

Gisa hortan yoaiten ikhustearakiñ
 Animale nagia bere etxearekin.
 Hau zer da! zioten guziek oyhuka:
 Zathozte ikhustera, zathozte lasterka,
 Apoarmatuen andere erregiña
 Dioana airoski hedoietan barna.
 Erregiña bai segurki,
 Hala naiz ere egiazki;
 Zuek burlatzea ezta azki.
 Hark hobeki egin zuken
 Bere bidean gan bazen,
 Deusik ez zuela erraten.
 Ezen hortzak idekirik,
 Zaukan basotia itzuririk,
 Erortzen zaie, begira
 Zaudezener oiñetara:
 Eta du ement berean
 Leher egiten han bertan.

Inprudentzia eta banitate ariña
 Hitzketeria eta kuriostasuna,
 Ahaide hurbillak dire:
 Haskasi bereko haur dire bedere.
 Ixilik egonak nehor eztu galdu,
 Baiña erasteak bai husu.

LIBURU BORTZGARRENAREN AKABANTZA



LIBURU SEIGARRENA

GIZONA ETA SUGE ITSUA

Gizon batek suge itsu bat
 Ikhusi zuen behinbat.
 Haizen gaixtagiña, dio, ni hementxe,
 Noak egitera oraiñtxe,
 Obra bat laudatzekoa,
 Ororen gogarakoa!
 Hitz horietara animale tzarrak,
 (Sugeaz naiz hemen mintzo
 Ez gizonaz: aise trunpa laitezke asko).
 Hitz hoetara sugeak
 Bee burua uzten du atzamatera;
 Gizak hartu eta sartzen zakura,
 Eta zerratzen zakua:
 Areago den kasua,
 Eman da sententzia
 Hill behar dela bestia;
 Duen oben edo ez duen:
 Baiña gauza horri arren
 Zemon aphur bat kolore,
 Arenga hau zion hark egiñ halere:
 Hail eskergabeen modela haizena!
 Gaitztoen aldera on dena
 Duk beretzat gaizoena.
 Hill behar haiz. hire kolera eta hortzek
 Daiñurik egiñen nihoiz ez zautatek.
 Suge malurusak aldiz bere erdaran
 Ahal bezaiñ molde onean:
 Baderro: baldiñ munduan
 Ingrat laitezkenak oro
 Balituk kondenatzeko,
 Nori laitek barkhatzeko?
 Hihaurk heure buruari
 Demok legez hemen hauzi;



Ni nagok herorren lektionetara:
 Itzulz kik begiak herorren gainera.
 Eskuetan daukak hik nere bizia;
 Trenka zak haren haria.
 Plazera, intresa, nahia,
 Horra hire yustizia.
 Lege hoiien arabera,
 Kondena nazak hiltzera.
 Ez bekik hargatik gaitzi,
 Fiñatzean hoiñ tristeki,
 Derraiadan nik frankoki,
 Eskergabeen modela
 Segurez sugea ezteia;
 Aitzitik gizona dela.
 Aditzean hori, giza da trikatzen,
 Urhats bat ere du gibelat egiten.
 Baiña azkenean baderro:
 Illhaunak dakhartzak arrazoiñak oro:
 Dezida ahal nirok: badiat nik dretxo,
 Baiña emagun norbait yuie:
 Bai, dio bertzeak ere.
 Behi bat han zagon: deitzen dute bertan,
 Eta badathor kuxean.
 Hedatzen zaio kasua;
 Gaitza etzen hunen trenpua.
 Balio zuena, dio, horren gatik
 Deithzea ni hara-handik?
 Sugeak du arrazoiña:
 Disimula da eziña.
 Ya urthe asko baduela,
 Guti gizentzen naizela,
 Hari naiz hunen neurritzen:
 Egunik ezta iragaiten
 Non ez diodan nik on zenbait egiten.
 Guzak horrentzat dire,
 Nere esnea, haurrak ere;
 Merkatutik horrek bethi,
 Eskuak dakhartza betheak ederki.
 Osasuna bera nik diot bihurtu

Urthek zutenean tristea herbaldtu:
 Eta ene pèna guzien,
 Xede bakharra da, horren
 Plazera prokuratzea
 Edo beharra estaltzea.
 Baiñan orai zahartua
 Naduka abandonatu
 Zokoluan, belhar gabe:
 Uzten baniñdu bedee
 Nihaur alhara nioan!
 Baiña han naduka estekan.
 Eta izan banu nausitzat,
 Horren plazan nik suge bat,
 Hau nihoiz haiñ eskergabe
 Zakikedana ager othe?
 Adiu: nik erran dut nere iduria
 Gizak miretsirik hagitz sententzia,
 Sugeari derro: behar da sinhetsi
 Elhe-zaku handi hori?
 Ez dakike zer darasan;
 Zentzurik eztu kaskoan
 Dezagun sinhets hobeki
 Hor dathorren idi hori.
 Sugeak derra: biz hala:
 Egiten da erran bezala.
 Idia badathor urhats bakhanetan:
 Gauza duenean ibilli kopetan
 Laster baderra: guretzat
 Urthek dirauten bezanbat,
 Bethi urthe oroz orobat,
 Nekhe handienak badaramatzala:
 Erlaxarik gabe kurrutzen duela
 Pena dorpheenen saillik luzeena,
 Bururat orduko berriz hasten dena;
 Zoiñen bidez gure hildo aberatstuek,
 Bertzela huts lagozkenek,
 Gizoner baitaie emaiten,
 Kario aldiz hoier saltzen;
 Nekhe hoiek ororentzat



Hoiek diren guzientzat
 Ez dela saritzat deusik
 Ukhaldi, sistako nasaienak baizik:
 Aldiz eskerrik batere.
 Hargatik gero, halere
 Aski hoientzat ohore
 Zaikula, gizendu ondoan aphur bat,
 Merkatuz-merkatu goatea mustrarat;
 Gero karnizeriara,
 Finean handien estomaketara.
 Horla idia mintzatu zen.
 Gizak hemen erran zuen:
 Dugun erasle unhagarri,
 Frasa eder egille hori,
 Ixil-araz nozpait: ezen intsolenki,
 Hartu ginduen a yuie
 Itzultzen da akusatzaile.
 Hori ere ez dut onhetsten.
 Yuietzat zuhaitza dute beraz hartzen.
 Baiña areago izatu zen
 Hunek prestik bethiere,
 Beroaren, uriaren,
 Eta haize furiosen
 Kontra bazeman gerize.
 Hunek, alhor, baratzeak
 Guretzat bakharrrik daduzka edertuak;
 Kargatzen da fruituz ere.
 Hoien pagutzat halere,
 Peisant batek du pikatzen
 Edo erhotik atheratzen.
 Horra zer duen hark sari.
 Nahiz urthe orotan bethi,
 Bademaizkun yeneroski
 Loreak uda hastean,
 Fruituak negu-sartzean;
 Egun berotan itzala,
 Hotzetan behar bezala
 Su-phazterreko plazera.
 Zergatik ez ixadarra

Hartu gaberik haizkoa?
 Berenaz oraiño zen bizitzekoa.
 Gaitzitua gizonttoa
 Erran zitzaikon egiez
 Eziñ ukha zetzakenez;
 Nahi izan zuen hauzia,
 Baitezpada irabazia.
 Ongi naiz, dio, sinplea,
 Nik horiek entzutea!
 Harturik zakua barnekoarekiñ
 Emaiten zaitzu harekiñ
 Ukhaldika paretari;
 Eta horla hill-arazi
 Sugea zuen kruelki.
 Handiak holako dire;
 Egia gaitzitzen zaie.
 Buruan hartua dute,
 Guziak heientzat, yaiotzen direla
 Gizak, bestiak bezala:
 Baita are sugeak ere.
 Baldiñ badu nihork atheratzen hitzik,
 Asto bat da: aise dut, aithortzen hori nik:
 Baiña zer egiñ ordutik?
 Eras urrunskotik, edo egon ixilik.



ALHARGUN GAZTEA

Ezta alharguntzarik nihoiz auhen gabe;
 Egiten da abarrots behiñ bethiere:
 Baiña hixten da halere.
 Denboraren hegaletan
 Xangriña badoa airetan:
 Denborak badakhartz plazerak berritan.
 Orai urthe bethe alhargundu zena
 Eta atzotik hala dena,
 Hagitz dire diferentak;
 Ez laite erran haiña bat direla biak
 Hunek tu egortzen yendeak ihesi
 Harrek bere xarmez deithzentu arraiki:
 Badu hunek auhen asko
 Alegia edo ziñezko:
 Bethi musika bera da,
 Bethi bera da hitzketa;
 Ezin daiteke kontsola,
 Bedere erraten da hala.
 Baiñan ezta holakorik,
 Ondoko fable huntarik,
 Are esperientziatik,
 Ikhusiko den bezala.
 Dama eder baten senharra
 Bazoan bertze mundura.
 Aldean zagokon sahets penatuak
 Oyhuz zerron: Igurk-ak.
 Ni ere hirekin betan banioak;
 Eta nere arima, hirea bezala,
 Zagok ziñez bere ohatzea uztera.
 Senharra bakharrrik gan zen.
 Damak aita bat bazuen
 Net prudenta eta zuhurra.
 Utzi zuen pasatzera
 Dolu miñezko ibai hura.

Alaba azkenean nahiz konsolatu,
 Baderro: Auhena uz-kitzu;
 Negar aski egiñ duzu.
 Zer duke probetxu difuntu gaixoak,
 Ithorik ere zuk horla zure xarmak?
 Badirenaz gero oraiño biziak,
 Ahanztera uz-kitzu hillak.
 Eztut erran nahi orai berehala,
 Zorte hobe batek eztei berritara
 Xanya dezan zure dolua betbetan:
 Baiña ephe yustu bat denean iragan,
 Proposa dakizun ez bekizu gaitzi,
 Zure ona-gatik segurki,
 Espos bat izandun, gazte, gisakoa,
 Gan dena ez bezalakoa.
 Ah! diotza hark samiñki:
 Ya komentu bat zait espostzat komeni.
 Utzten du bruma hau aitag pasatzerat.
 Hola iragaiten da ill bat.
 Bertzea aldiz da pasatzen
 Egun oroz zerbait khentzen,
 Soiñari, linyari, baita kofiari:
 Aphañdura laster doluak diduri.
 Dostetak eta hirriak,
 Dantzak eta erhokeriak,
 Egundaiño bezaiñ billhatuak dire:
 Goiz-arrats maiñatzen gare
 Yubantziako uretan.
 Aita onak ere eztu yadan
 Difuntu haiñ maithe zenaren beldurrik:
 Baiña ez baitzerron hark deusik
 Aboro gure ederrari;
 Baderro berak aitari:
 Eta non duzu gizona
 Gazte, eder eta izan duna
 Agindu ziñautazuna?



OTSOA ETA AXERIA

Nolaz ezta nihor kontent mundu huntan
 Ez nihor satifo duen estatuan?
 Batek soldadu gan guziz nahi liro:
 Aldiz soldadua haren yelos dago.
 Axeri bat lehen, omen,
 Otso egiñ nahi izan zen.
 Ha! eta nork ahal erran
 Eztela izatu sekulan
 Han edo hemen otsorik
 Desiratu dukeienik
 Zikiro ofizioa?
 Baiña dezagun has gure istorioa.
 Axeriak zion erran otsoari:
 Maithe, yakitzat ya eztiat aspaldi,
 Oillar zahar edo oillasko txar baizik:
 Yaki hunek unhatu naik.
 Bizi hatzait hobeki hi
 Gutiago lanyer dukala segurki:
 Hurbiltzen nauk etxetarik;
 Bahagoke hi urrundik.
 Erakuts dezadak beraz, o kide, arren,
 Hire ofizioa nola den egiten.
 Bihur nazak nere kastako lehena
 Zikirorik gizenena
 Kroatik dilindan ukhanen duena.
 Ez nauk segurki beharko
 Eman ingraten nonbreko.
 Biz, dio otsoak: hill zaitak anaia bat,
 Goazen hura den tokirat
 Haren larrua biltzera:
 Hau harturen duk soiñera
 Yoan ziren: orduan otsoak baderro:
 Huna zer den egiteko
 Ora arthaldekoak urrun-arazteko.

Axeriak zuenean
 Eman larrua soiñean;
 Kontuz bere nausiaren
 Lektioak oro xuxen,
 Zituen ahalaz hartzen.
 Hastean lothu zen gaitzki,
 Geroxeago hobeki
 Gero ongi, gero perfetki
 Ikhasi zitueneko,
 Arras ezpada, ongisko
 Hark yakitekoak oro;
 Arthalde bat agertzen da.
 Fite otso berria badoako bada:
 Inguru guziak betan
 Tuela ematen ikharan.
 Oste marrakariari
 Hain izipera denari,
 Badirela diduritzo
 Bedere berrogoi otso.
 Zakur, artzaiñ eta ardiak
 Hirirat ihesi badoaz guziak.
 Eta ezta bahi gelditzen
 Ardi golatu bat baizen
 Brigantak hartzen du fite.
 Handik hainitz urhats gabe,
 Aditzen du kantaz oillar hauzoko bat:
 Berehala haren ganat
 Yauzten da dizipulua,
 Aurtikirik kapa, eskolan hartua:
 Ahantzirik zikiroak
 Eta hartu lektioak,
 Bai eta jaun errienta,
 Urratsak hatterik, goan zen herresaka.



Zertako desgisa nork bere arpegia?

Zertako har bertze baten iduria?

Hau ezta enganio baizen;

Luzaro ez baitu irauten:

Lehen urhatsean ezen,

Aitziñean zena, da bethi agertzen.

LANGOSTA ETA BERE ALABA

Zuhurrek askotan, iduri langosta,

Kurritzen dute gibelka:

Portuari itzultzen ere maiz ezpalda:

Mariñel abillen usaia hori da.

Hori da oraiño asmua

Bertze askok pratikatua,

Nahi dutenean etsaia enganatu,

Eta kolpe handi zenbait seguratu,

Pontu batetara etsaia deithzea,

Eta aldiz bertzetik yokoa egitea.

Egiten da askotan isti

Saltatzekotzat hobeki.

Baiña lot gakizkon gure fableari.

Langosta amak behiñ zerron alabari:

Neska, zer dun planta hori?

Zerua! zer! hori dun bada ibiltzea?

Hobekixeago zer! ez habilkea?

Ama, derra alabak, nabill zu bezala;

Eztut ikhusten nik ibilltzen bertzela

Nehor gure famillatik:

Oro hartan oker dabilltzan pontutik

Nahi duzu bada ni nabillan xuxen?

Neskak arrazoiña zuen.

Etxeko etsenpluak ahal handia du:

Gazteak segurez hark egiten ditu

Zuhur edo zoro, debox edo prestu.

Aita hordi batek, seme arloteari,

Ama lele btek, alaba ariñari

Nondik egiñ erreprtxu?

Edo erreportxuak nondik duke efetu?

Seme arloteak baderroke aitari:

Erratea deusik ez doatzu zuri;

Zaitudaneko nik ikhusten hordia,



Ya gangan dut egarria.
 Alabak aldiz amari:
 Zer! zuk erreportxu niri!
 Ez ahal ziñen zeroni
 Ni bezain ariñ gaztean?
 Etzare ere kasik hala zaharrea?
 Nola xitoek amekiñ
 Kabazka duten ikhasten;
 Hala umek burhasoekiñ
 Ikhasten dute bizitzen:
 Xuxen edo oker ibiltzen.

XIMINOA

Ximino bati Parisen
 Andre bat eman zioten:
 Ximinoa zenaz gero
 Bertze asko senharrek bezala egiteko
 Andrea zanpatzen zuen.
 Andretxoak hanbt nigar isurtzen du
 Non leher egiten azkenekotz baitu.
 Semea pleinitzen zaio harrigarri:
 Bainan aitak hortaz egiten du hirri:
 Emaztea ezen hil zaio
 Ya bertzetara ere gura badoako.
 Har ahalak oro tuela yo gogo
 Alabaiña dabill ostatur-ostatu,
 Horditzen ere da husu.

Ximinoaz bertze askori,
 Hau badoakote ederki:
 Othe da nihon herririk
 Ema yotzaille gaberik?
 Erran ez nezake baietz nik segurik.
 Eta nondik dathor hori?
 Zeren gizak kasik bethi
 Baidohaz etxera ostatuetarik
 Tripa ontsa bethea, aldiz bolttsa hutsik:
 Boteillaren zolan zentzua ahantzirik.



AXERIA, OTSOA ETA ZALDIA

Gazte izana-gatik, maltzurrenetarik
 Zen axeri batek, mundura gerostik,
 Zuen lehen aldikotzat
 Ikhusten omen zaldi bat.
 Oraino berri zen hauzoko otso bati
 Badiotzo: zatho, zatho laster kusi,
 Abre bat bada alhan gure phentzeetan
 Ederra, larria; oraino ordu huntan,
 Nere bi begiak dauzka xarmatuak
 Ikhusiaren itxurak.
 Otsoak baderro hirriz: sendoago
 Othe da hura gu baiño?
 Egidak bada, othoi, yaun haren portreta.
 Pintorea baniñtz edo estudianta,
 Derro axeriak, eman nezazuke,
 Hagitz gogotik halere,
 Aitziñetik atsegiña
 Bistk emanen dautzuna.
 Baiña zatho zuhaur; ezen, behar bada
 Hor guretzat zenbait bada
 Ustekabeko katura.
 Badoaz; eta zaldiak
 Ferdean zadukatenak.
 Halako bisita segur-gura etzenak,
 Ya, ya ateka yauziz nahi du pasatu,
 Eta hetarik urrundu.
 Yauna, derro axeriak,
 Gu, zure zerbitzariak,
 Zure izena yakiñ nahiak giñtezke.
 Zaldiak, ez baitzen arras fuiñik gabe,
 Baderroie: Yaunak, erakur-azue
 Zeuek nere izen, badaidikezue,
 Ner zapataiak eskribus eman du
 Nere zapatako zolaren inguru.
 Eskusatzen da axeria,

Allegatuz hemen bere iñorantzia:
 Nere aita-amek, zioen,
 Edukatu ez ninduten:
 Pobre ziren: eta etzuten
 Munduan deus ontasunik
 Garabik, zilho bat baizik.
 Baiña otsoarenek, buryes aberatsak,
 Eman diozkite letrak.
 Hitz hoietaz gure otsoa
 Balakatua gaizoa,
 Hurbilldu zen: baina orduko urguillua,
 Gosttu zitzaion laur hortzen kontua:
 Uztar bat zioen zaldiak igorri,
 Haidor altxaturik bi zangarrak goiti.
 Horra gure otsoa etzana lurean,
 Estatirik txarrenean
 Ehoa, odola darian.
 Anai, derro axeriak,
 Oraiko gerthakariak
 Klarki dauku erakusten
 Persona izpiritutsuen
 Errana, zoiñ egia den:
 Abere horrek derautzu
 Matrailletan eskribatu:

 Zuhurra zaiola bethi
 Mesfida yende arrotzari.



GAU-AIÑHARA ETA BI ANDREIERRAK

Gau-aiñjara bat betbetan
 Sarthu zen ustekabetan
 Andreier zifera baten ohatzean.
 Hau, nola aspaldi baitzuen
 Herra handia saguen
 Kontra bere bihotzean
 Yin zen hura iretsi beharrez kuxean.
 Zer! dio, zaren ausarta,
 Zu nere etxean present!
 Zure arrazak hanbat duen arren egiñ
 Egiñ beharrez niri miñ!
 Etzare sagua? mintza zaite klarki:
 Bai, hala zare segurki:
 Non ez, andreier ez naiz ni.
 Oh! barkha zadazu, tristeak diotzo,
 Ez naiz estatu hortako
 Ni sagua naizen! mihi
 Tzarren errana da hori:
 Eskerrak guziz-gorari,
 Xori naiz; huna hegalak
 Biba, biba yende ariñak
 Airetan bizi direnak!
 Eman zuen arrazoia,
 Izatu zen onhetsia
 Baitzidurien egia;
 Eta egiñ zuen haiñ ongi,
 Non libro baitzuten utzi.
 Handik biharamunean,
 Gure, xoroa, illhunpean,
 Sartzen zaitzu tipustean,
 Hegaztiñen etsaia zen
 Andereier bertze baten
 Egon-toki trankillean.
 Horra berritan non den gure xoria

Hurbill galtzetik bizia.
 Dama muttur luxe-dunak
 Yan-xahar aurkitzen zenak
 Tirria hoberenean
 Berehala bazeraman
 Hegastina zelakoan.
 Baiña oyhuz da abiatzen;
 Laido zaiocla egiten:
 Zer! horlako iduk ni!
 Ez duzu beiratzen ongi:
 Zerk du egiten xoria?
 Lumek: gauza da ageria.
 Sagu naiz: biba arratoinak!
 Yupiterrek betza konfundi gathuak.
 Artexki horla lenguaia
 Mudatuz, gure xoriak
 Bi kasutan hill beharrak,
 Salbatu zuen bizia.

Illhunbeko xori haren iduriko
 Ikhusten da bertze xarlatana franko:
 Xanyaturik mugaz xarpa edo kokarda,
 Kantatzen ahotaraka,
 Zirkonstantzien arauka,
 Biba onarka! edo Biba republika!
 Lafontenen arabera
 Yende horlako da guziz zuhurra:
 Aitzitik nere oldez badaiteke abilla,
 Baiña ageria da dela ere kanailla.



EPHERRA ETA OILLARRA

Oillar guti ikasi, nahasi batzuen
 Bere artean bethi liskarra zutenen
 Lagun, ephertto bat emana zen izan
 Aphur bat pensioean.
 Oillar haukien partetik,
 Oste emekoi hunen ganik,
 Ziduritzon epher hari,
 Behar zuela iguriki
 Kariño eta tratu ona,
 Eme eta arrotzeri bethi zor zaiena.

Duda gabe egiñen zuzten ohoreak
 Hek menaieriakoak.
 Baiña populu harroa
 Eta neurri gabekoa,
 Maiz furiak zoratua,
 Etzen izatu net errespetutsua,
 Gure andere arrotzaentzat;
 Etziotzan ezen guphidesten hanbat
 Moko-kolpe kruelenak.
 Hastean net zuen penatzen tretuak:
 Baiña ikhusi zuenean
 Oste hura phernesian,
 Batek bertze atakatzen,
 Zauritzen eta odolstatzen,
 Egon zen konsolatua:
 Arauz hauk bizi modua
 Dio, hau dute ohitua.
 Ez ditugu nahi yuiatu segurki,
 Urrikaldu bai hobeki:
 Model beraren gaiñean,
 Yupiterrek mundu huntan
 Egiñ ez ditu guziak.
 Badire naturalezak
 Oillaren eta epherrenak.

Ah! nere oldez duda gabe
 Bizia nik neramake
 Billkuia hobe batean:
 Baiña ene zorigaitzetan,
 Toki huntako nausiak
 Bertzelako ditu bere fantesiak.
 Harrapatzen gaitu bere sareetan,
 Aloyitzen gero oillarrekin betan,
 Motzturik hegalak bertan.
 Ez, ez, gizonez segurki,
 Dugu pleiñitzeko xoilki.



BORDARIA, ORA ETA AXERIA

Otso eta axeri, biak nola biak
 Hagitz dire hauzo txarrak.
 Ez nuke egiñen etxerik
 Hurbill heien egoitzatik,
 Xedea banu segurik
 Hazteko nik han oillorik
 Edo orobat zikirorik.

Bigarrentto hori ordu guzietan
 Zagokioren zelatan
 Borda bateko oilloeri,
 Eta nahiz zen segurki
 Kastan abillenetarik,
 Etzion egiñ oraiñdik
 Oilladiari daiñurik.
 Batetik apetituak,
 Eta bertzetik lanyerak
 Bazemoten maistroari
 Griña eta enbrazo ez guti.

Zer bada, diotza, philteria hori
 Deusen beldur gabe trufatzen zait niri!
 Banoa, banathor, hartzen dut travaillu,
 Egiten ditut milla asmu:
 Eta peisant gaizo hori,
 Dagola etxean trankilki

Guzietaz diru da hari egiten;
 Moneda ditu bihurtzen
 Oillasko eta gapoñak:
 Baitu ere krokan dilindan dauzkanak.
 Aldiz ni, maistro xefoa,
 Baduket seguratua
 Oillo eihar baten trunkoa,
 Banago gaiñdiz boztua!
 Murde Yupiñek zertako
 Axeri ofizioko
 Egin ninduen bada ni?

Ez, lepoa falta niri,
 Aditzen ezpada laster zerbaite berri.
 Bere mendekuak horla
 Kaskoan zarabillzkala;
 Hautatzen du gau illhun bat,
 Zoiñak nasai orotarat
 Baitu ereiñ lo-belharra.
 Aurkitzen zen batbedera
 Yadan loan egoitzia:
 Toki hartako nausia,
 Sehiak, oilloak,
 Gapoñ, oillaskoak,
 Baita ora bera: fiñean,
 Denak zauden tieso lotan.
 Bainan etxeko nausia
 Izatu zen gaizo askia,
 Bere oillotegia uzteko idekia,
 Inguru larroina hanbat ibilli zen,
 Non zitadelara noizbait sarthu baitzen.
 Despoblatzen du tokia,
 Egiten du hagitz masakre handia:
 Lurra estalia da dena gorphutz hillez,
 Trenpatua odol ibaiez.
 Haren furiaren trazak
 Agertu zituen albak:
 Ya, ya ikhaskari hortarat
 Ekia zihuan lazturik gibelat.
 Axeriak badarama
 Berekiñ har dezakena.
 Badago eziñ eramana
 Lurrean zabal ereina.

Yabeak ezduke bertze erresurtsarik
 Oyhuka egotea baizik
 Bere yenden eta zakurraren kontra:
 Usaia bethi horla da.
 Ay! haizen bestia zorigaitzekoa!
 Urera botatzekoa!
 Nolaz eztuk eman seiña,
 Masakre hasiarena?



—Zeronek nolaz eztuzu
 Hasi gabe gibelatu?
 Lana lasterrago zaiten egiña.
 Zer! zu yabea zarena,
 Eta gauza doatzuna,
 Antsikabe lo bazaude.
 Bortha hetsi den-ez yakiñ ere gabe;
 Nahi duzu ni zakurra
 Nerea ez dela aferu,
 Lorik gbe nagon erne?
 Zakurra ederki mintzo zen:
 Arrazoiñatze hau net ona zaiten
 Nausi baten baithan baldiñ izan bazen.
 Baiña baitzen ora simple baten-ganik,
 Eman zen balio etzuela deusik.
 Eta ora arrazoiñatua
 Egon zen bereak ederki hartua.

Famillako aita, nor nahi haiteken,
 (Eta ohore hortaz ez natzaik yelosten),
 Hire ontasunen gaiñean
 Bertzeak atzarri daudezelakoan,
 Trankil lotara goatea,
 Duk enganio tristea.
 Habill oherat azkenik,
 Eta hihaurk bortha hesten ikhusirik.
 Eta dukenean zenbait aferu miñ,
 Bertzez hobe duk ez egiñ.
 Ezen holako kasutan
 Otso yaunak ere ez dikek sekulan
 Atzeman mandataririk
 Bera den baiño hoberik.

YUPITER ETA PASAIERA

Baluke ontasun zeruak
 Lanyerean egiñ izatu botuak
 Balire oro konplituak.
 Baiña iragan da lanyera,
 Aise utzten dire ahantztera
 Zeruari eman hitzak:
 Lurrean tzukeygun zorrak
 Dire unkitzen gituztenak.
 Yupiter hartzdun onak han goietik
 Egortzen eztu huxerrik.
 Oy! haizen buru eria!
 Zer duk bada ihurtzuria?
 Eta abisu hoier erradak bada harren,
 Zer izen daiek emaiten?

Pasaier batek ikharan
 Tenpesta baten erdian,
 Ziotzan agiñdu behin ehun idi
 Titanen garhaileari.
 Bakhar baten yabe ere etzen.
 Haiñ aise erran zituzkeien
 Hark ehun elefant idi heien plazan.
 Leihorreratu zenena,
 Hezur zenbait suan erre izan zituen;
 Zoiñen lanhoa igan baitzen
 Yupiterren sudur-pera.
 Yupiñ yauna, dio, horra
 Nere botua; har zazu;
 Idi urriñ hutsa hor badathorkizu:
 Khea zuretzat bakharrik,
 Zor ez dautzut bertze deusik.
 Yupiterrek tretu horri
 Egiñ zion bada alegia hirri.
 Baiña egun batzuek ziren bai iragan,
 Ontsa atzeman zuen hark bere xaiñdean;



Egorririk ametsetan
 Abisu, bazela hulako tokitan
 Gordea tresor handi bat.
 Gure botu-koia herresaka harat
 Goan zen nola su hilltzera.
 Batzen ditu gerthuz ohoiñak bidean:
 Eta nola orduan ez baitzuen boltsan
 Luis bakhar baten erresurtsa baizik,
 Agiñtzen daizkie ehun otzako urre
 Bat eskas gabe halere;
 Bertan hartzekoak diru hulakotik,
 Hulako herriren hulako partean
 Ehortzia lurbarnean
 Aspaldi zagoenetik.
 Lekhua zaie ohoiñeri
 Iduritzen suspitxgarri:
 Eta hortan gure agiñtzaillari
 Batek baderro: hi hemen
 Konpai, duda gabe haiz gutaz trufatzen;
 Hil hadi bada, eta hail Satanen ganat
 Ehun ontzez hari dohaiñ egiterat.

ULIA ETA XINAURRIA

Ulia eta xinaurria,
 Net pare elkhar iduria,
 Behiñ bat disputan ziren
 Gehiago zoiñek balio othe zuen.
 O Yupiter! zerran lehen aiphatuak:
 Amodio propialak
 Badaitekeia itsu detzan
 Manera haiñ terriblean
 Guzien adimenduak?
 Bestietan xirtxillena
 Lurrean herrestan nekhez dabillana
 Atrebi dadintzat erratera niri,
 Airearen ume brillant, ariñari,
 Berdiñtzen zaitala niri!
 Palaziotan banabilk,
 Mahaiñean yartzen natzaik,
 Iñoiz zaikenean idi bat ofreitzen,
 Dastatzen hartarik diat hitaz lehen.
 Aldiz hunako hau, xirtxill, miserable,
 Noiz-nahi biziko duk laur egun bethe,
 Etxera herrestan eraman nonbaitik
 Duen izpi batetarik.
 Baiña, mamiñuna, errazu,
 Nihoiz kanpatzen zare zu,
 Printze edo enperadore
 Edo are zenbait andre
 Ederren buru-gaiñean?
 Ni banaiz: eta are nahi dudanean,
 Nerorrek nahi tokian,
 Pot ere bademot gorphutz eder bati:
 Baieta oraiño noiz nahi
 Andreen bilho-bukletan
 Banabilla ni dostetan.
 Orai, zathorzkit laiñoa,
 Zure soillaruez haustera kaskoa!



Erran ditutzu guziak?
 Derro aldiz menaierak.
 Bazabilltza gaztelutan!
 Baiña aztio zaituzte han.
 Eta orok baiño lehen
 Baliñbaduzu dastatzen
 Yainkoer ofreitutarik,
 Uste duzu deus hoberik
 Badathorrela hortarik?
 Lekhu guzietan bazare zu sartzen,
 Yendetzarrek ere berdiñ dute egiten.
 Errege eta astoen berdiñ buruetan,
 Zare plantatzen askotan;
 Akort naiz zurekiñ hortan:
 Baiña badakit hau ere,
 Ausartzia hori net fite halere,
 Herio-kolpeaz punitua dela.
 Aboro banta ez zaitela
 Hoik oro zuretzat balire bezala
 Haiñbertze merezimendu.
 Guzien buruan, orok badakigu,
 Deneko ekea gan erregiñatzera
 Munduaren bertze aldera;
 Laster zarela akabatzen:
 Gosea eta hotza tristeki pairatuz;
 Nihondik zure flakia
 Eta ororen eskasia
 Eziñ erremediatuz.
 Nere nekhe ganez aldiz orduan ni
 Gozaturen naiz trankilki.
 Ibilliko ere ez naiz ni segurki,
 Yozak haran, yozak mendi,
 Burutik gan bat iduri,
 Dela haize, dela uri.
 Biziko naiz ni holaxe
 Melankoliarik gabe;
 Lehen hartu nuen griñak
 Khenduko derauzkit oraiko guziak.
 Fiñean, laburzki zuri errateko,

Zertan aurkitzen den ospe egiazkoa,
 Eta aldiz zertan faltsoa,
 Dazut horla irakatsiko.
 Adiu: badoat denbora:
 Utz benaza ene lanera:

Nere soillarua eta banka, hemen
 Elheketa egonez etzaizkit bethetzen.



EGURGILLEA ETA OYHANA

Egurgille batek, zukeien baxharra,
 Galdu zuen behi haizkora giderra,
 Edo hautsi behar bada:
 Guti du gauzak inporta.
 Ordaiña egiñ baiño lehen,
 Ephe aphur bat iragan zen;
 Eta oyhana oso zagoen.
 Azkenean gizak humill du othoitzten
 Haritz adar baxhar baten
 Utz dezan arren hartzerat
 Egiteko ber harmari gider bat.
 Goanen zela bertzetara
 Bere ogia irabaztera:
 Eta utziko zituela
 Xutik, zaudezen bezala,
 Ametz eder eta haritz hek guziak;
 Zoiñen adiña eta xarmak
 Baitziren guziez errespetatuak.
 Bada oyhan laiñoak hartzerat utzten du:
 Baiña izatu zuen dolu.
 Egiñ dioneko bere haizkorari
 Giza txarrak gider berri.
 Hasten da ebakitzen on-egillari,
 Adar tuzken ederrenak:
 Husu dire aditzen haren plaiñu miñak.
 Bere emaitza bera zaio
 Billhakatzen suplizio.

 Hola-holako da treiña
 Munduan ikhusten dena.
 Ongi egiñaz ezta baliatzen ohi
 Baizen laido egiteko on-egillari:
 Hortaz mintzatzeaz unhatua naiz ni.
 Baiña yazar dakioten
 Itzal goxo bat dematen

Zuhaitz maithe batzueri!
 Barbaria hortaz nor ez laite pleiñi?
 Helas! debalde naiz oyhuka hariko,
 Guziak unhatzeraiño:
 Eskergabe izigarrika
 Eta moldegaitzkeriak
 Ez dirade gutiago
 Izanen bethi modako.



LEHOIÑA, XIMINOA ETA BI ASTOAK

Lehoiñak bere erresuman,
 Nahiz baitezpada gobernu ona eman,
 Nahi izan zuen zuhurki
 Moral puska bat ikhasi.
 Hortarako beraz ordena eman zuen
 Guxian deith-ziozaten
 Gaztelura ximinoa
 Nausi pare gabekoa:
 Animateetan dotor ospatua,
 Zelakotz batxiller yadan pasatua.
 Yaun errientaren lehen lektioa
 Izatu zen hulakoa:
 Monarka handia, printze
 Guziek nahi baituzte
 Ikhusi bere estatuak
 Zuhurki gobernatuak,
 Bihotzean behar dute
 Garriatu bethiere
 Barnenik sentitzekoa
 On komunaren zeloa.
 Eta egin ezeztatzerat
 Bertze sentimendutto bat,
 Orok dakiten bezala
 Amodio propiala
 Bethitik deithatzen dena:
 Ezen gauza da klarena
 Kasik xoilki dela hura
 Animalia guzien
 Artean ikhusten diren
 Defauten aita eta autora.
 Baiña zure ganik sentimendu hori
 Athera dadiñ osoki,
 Ezta xede haiñ ariña,
 Ez egun bateko lana:
 Guti ere ezta segurki

Yabaltzea aphur bat amodio hori.
 Zure maiestateak, bide hortaz ezen
 Eztu nihoiz onhetsiren
 Deusik hirrigarri denik,
 Edo zuzen kontrakorik.
 Errege baderro hemen:
 Baten eta bertzearen
 Etsenplu zenbait indatzik.
 Dotorak baderro phozik:
 Bai yauna, mota orotarik,
 Eta hasten naiz guretik.
 Estatu bakotxa bere begietan
 Dago estimu handitan:
 Bertzeak dauzka aldiz den iñorantenak,
 Funtsik batere ez dutenak:
 Eta bertze asko holako
 Erraten diren aisesko.
 Amodio propialak
 Kontrara, bere kideak
 Ahal bezain gora daramatza bethi
 Hek goratuz bera baidioa goiti.
 Oraí arte erranetarik
 Ausarki yuiatzen dut nik,
 Beher huntan talendua
 Dela grimasa purua;
 Banderiza, edo halako
 Nork bere burua balia-razteko
 Dukeien antze artetsua:
 Iñorantez bethi yakiñtsuez baiño
 Hobeki pratikatua.
 Aitziñ hortan behiñ, arrastoa segi,
 Banindarraioten asto bi ederrei,
 Zoiñak, zoiñ gehiagoka
 Hari baitziren xaiñdezka
 Batek bertzea intsentsatzen,
 Nola bethi baita usatzen.
 Bata aditu nuen zerrola anaiari:
 Etzaitzuia, yauna, iduri
 Gizona, animale haiñ perfet den hori,



Dela inyustu eta gaizo segur ongi?
 Gure izen noblea gaizki darabillku,
 Net profanatzen derauku;
 Astoa ezen deihatzen du
 Yende yakintsu eztena
 Gaizo eta pobre izpirituz dena:
 Bertze hitzkuntza bat ere
 Usatzen du gaizki maizegi halere:
 Guk dugun miñtzoa baieta hirria,
 Haren oldez dire orho izigarri.
 Istorio ederra, pardi!
 Badagokote bai segur gizoneri
 Gu baiño hobeak daiten izan nahi!
 Nork ez egiñ hortaz hirri?
 Ez, ez, mintzatzea zuri dohakizu:
 Heien oradorer egotea mutu:
 Hauk dire egiazko marruma egilleak:
 Baiña begotz apart holako yendeak.
 Konprenitzen nauzu,
 Baita nik ere zu.
 Aski bedi; bego hortan.
 Eta zure kantaz den bezanbatean
 Zoiñak haiñ goxoki beharri guziak
 Baitauzka kilikatuak,
 Filomena egiaz ezta apendiz baizik
 Zure aldean ezarririk
 Lambert bera xitzen duzu.
 Bertze astoak bihurtzen du:
 Yauna, zu-baithan nik, duen bide egiak,
 Admiratzen ditut kalitate berak.
 Ez kontent oraiño nere astoak beraz
 Horla elkhar pherekatzeaz,
 Goan ziren hirietara
 Itzuli bana emaitera:
 Bakotxak uste zuela
 Kolpe ona egiñ zezakela
 Okasione orotan
 Bere anaiak laudatzean
 Hek goratuz, bera goiti

 Zohakelakoan bethi.
 Horla direnean ikhusten gaizo bi
 Intsentsu ahurka emaiten elkharri
 Yende ohi dute erraten:
 Horra bi asto, hatz elkharri egiten.
 Zuhur, heier dena begira trikatzen,
 Hirriz ohi da lehertzen.
 Baderrat bada orai naski gehiago
 Erran behar nuken baiño.
 Zure maistateak uste dut hargatik
 Nahiko ez dautala horren gatik gaitzik.
 Berak desiratu zuen,
 Ikhastea ahal bazaiten,
 Hortako etsenplu zenbait ekharririk,
 Eta guzien gaiñetik,
 Amodio propialak
 Nola zituen yendeak
 Lilluraturik tristeki,
 Egiten haiñ hirigarri.
 Inyustuak bere xaindea baduke:
 Asti gehiago hunek nahi luke.
 Pontu hau tratatu hark othe zuenez
 Orai arte nago ni eziñ yakiñez.
 Gure dotora hargatik,
 Nere arabera segurik,
 Etzaiteken aski xoro
 Orduan ez pentsatzeko
 Halako eskolier bati,
 Errege deithatuari,
 Sobra etzela fidatzeko.
 Bazakiken, zen madrea,
 Orok ongi dakitena,
 Printzer egia erratea
 Eztela gauza errexena.



BI ADISKIDEAK

Monomotapa deihatzen
 Den irla batean lehen
 Adiskide bi baziren
 Zointarik, batek zuena
 Baitzen orobat biena.
 Hango adiskidek garabik
 Ez omen diote hemengoer zorrik.
 Gau batez bakotxa zagoela lotan
 Morfeoren besoetan:
 Bi maithetarik bat da yauzten ohetik
 Zerbaitek alarmaturik:
 Badoa lasterrez bertzea baithara,
 Othe den han berri deusik, yakitera:
 Sehiak airoski ditu eraikiten:
 Morfeok yauregiaren
 Portalia unkitu zuen.
 Adiskidea lo-hordi,
 Estonitzen da handizki.
 Boltsa kuxean harturik,
 Herresaka harmaturik,
 Badoako bertzeari,
 Eta badiotzo: Anai,
 Ardura ezta zure oldea,
 Lotan denean yendea,
 Zu yaikirik ibiltzea;
 Badakizu zuk hobeki
 Bali arazten segurki
 Lotarako den ephea.
 Zure dirua oro zaudeia galdurik,
 Yokoan sobra haririk?
 Huna nere boltsa ez izan griñarik.
 Edo duzu xuritzeko
 Zenbait afera ohorezko?
 Huna nere ezpata zure zerbitzuko.
 Ez, dio bertzeak phozik:

Kasu hoiek bietarik,
 Ez bat, ez bertzea ez tut nik.
 Esker dautzut nere ahalaz
 Zuk erakutsi lehiaz.
 Baiña agertu zaizkit, lo nindagoela,
 Tristesko zindurela.
 Beldurtu naiz egia zen:
 Horra herresaka nola ethorri naizen.
 Eta orai gerthatuaren
 Bertze deus hemen kausarik,
 Ezta amets tzar hori baizik.
 Hek bietarik zoiñ zena
 Adiskide hoberena?
 Hobeki maithe zuena?
 Zer zaik, nere leitzalea?
 Eztuk errex yuiatzea.
 Etzaik zela kasu hori
 Proposa-kidiñ segurki?

Zoiñ den gauza bat gozoa
 Adiskide egiazkoa!
 Hark xerkatzen ditu berak
 Maithatuaren beharrak:
 Doakolarik hortako
 Bihotzaren zolaraiño:
 Eta haren laguntzeko
 Beira eskearen ez dago.
 Ondokoan bereziki
 Dagoko leial konstanki.
 Amets bat, ez deus bat, harentzat da askiko
 Maitheaz dioanean,
 Hari betan bihotzean
 Trantzeta sar-arazteko.



LEHOIÑA ETA ULIA

Hail! marmotxa ez deusa!
 Lurraren korotza!
 Zerron lehoiñak haidorki
 Egun batez ulitxari.
 Hunek! zioela gerla deklaratzan,
 Uste duka, derro, nauela lotsatzen
 Edo batere antsiatzen
 Hire errege-tituloak?
 Hi baiño puxantagoak
 Dituk indarrez idiak:
 Eta hauk bazarabilzkat
 Nik nahi dudan alderat.
 Erran dueneko hori,
 Gerlari bera, eta bere trunpetari,
 Guduaren seiña yorik,
 Eta aphur bat urrundurik,
 Abiaduran sarthurik,
 Lehoiñari badoako;
 Buru-giblean ausikiz datxako.
 Gure monarka da yartzen berehala
 Erhoa diduriela;
 Arrapoa ezpafiñetarik,
 Inharrak begietarik
 Phernesian darizkola:
 Hunen orotara, inguru guzian,
 Oro sarthuak ikharan,
 Gordetzen dire kuxian.
 Eta hots handi hau dena
 Da lana ulitxa batena.
 Uli-muki batek haiñ du tormentatzen,
 Ehun tokitan sistatzen,
 Orai bizkar-hezurrian,
 Handik bustan inguruan,
 Gero fite muturrean;
 Azkenean sartzen zaio

Sudurraren zolaraiño.
 Errabia ordutik gaiñdiz badoako:
 Etsai eziñ ikhusia,
 Eramanik biktoria,
 Hirriz badago hazia.
 Ikhustearekin abre bentzutua
 Errabiak zoratua,
 Bere hortz eta atzaparrez
 Segur ez hala ohituez,
 Bere azala sakaillatzen,
 Parte orotan odolztatzen:
 Buztana ere badabillka,
 Bi sahetsetan aldizka,
 Airea alferretan yoka:
 Eta bere guduetan,
 Haiñ da hebaiñdu fiñean,
 Non, akitua, ahitua,
 Muturraz lurrean baidago ezindua.
 Mormotxak utzi du glorios gudua.
 Yo zuen bezala gonbataren seiña,
 Yotzen du halaber biktoriaarena.
 Badoa alde orotara
 Berria publikatzera:
 Eta baturik bidean
 Marmalo bat enboskadan,
 Hunen saren traidorean
 Finatzen da ordu gaitzean.
 Bada hemen guri zer zaiku agertzen?
 Bi gauza hautxek bederen:
 Bata, etsai lanyerosenak
 Direla maiz ttipienak.
 Bertzea aldiz, lanyer handienetarik
 Uruski dena atheratzen,
 Maiz afera txar batetik
 Eziñ yalgiz dela galtzen.
 Ibai iraganik, xirripan ithotzen.



ARRATOIÑEN BILLTZARRA

Rodilard izena zuen gathu bat zen,
 Zoiñak arratoiñez egiten baitzuen
 Haiñ bertze masakre,
 Non ya ez baitzen nihon ikhusten batere.
 Haiñ zen yadan iñobrea
 Harrek sepulturaren emanen nonbrea.
 Gelditu ziren bakharrak.
 Eziñ atrebituz uztera xiloak,
 Zaudezen tripak zimurrak.
 Oste miserableari
 Murde Rodilardo hori
 Etziduritzon gathua,
 Baiña ifernuko diabrua.
 Bada, egun batez galaia
 Nola baitzen atheraia
 Urrun toki goretara,
 Omen, emazte-ketara,
 Usaiaren arabera;
 Han bere egitekoetan
 Harrek zaraman denboran,
 Ziren arratoin guziek
 Xoko batera billduak.
 Kotsillu iduki zuten,
 Orduko hersturan zer egiñ behar zen.
 Hasteko, president jaunak,
 Persona guziz prudentak,
 Haren oldez, erran zuen,
 Sarri baiñon, orai lehen,
 Behar zitzaioala ezarri
 Lepotik Rodilardori
 Krokoila ozen bat dilindan:
 Ezik ordutik, zenean
 Gerlarako atheratzen,
 Noiz eta non pasatzen zen
 Aise zutela yakiñen;

Eta hola abisatuak,
 Lurpera itzuriko zirela guziak:
 Hark etzuela garabik
 Aurkitzen bertze moienik.
 Agertu ziren bada oro
 Presidentaren bozeko:
 Ziduritzon bakotxari
 Gauza hoberik deus ez zaitekela aurki.
 Baiña lana zen dorphea
 Hari kroskoila lotzea.
 Batek zerran: ni ez noa,
 Ez naiz segur haiñ astoa.
 Bertzeak: ere ez noa ni,
 Nahi duena gan bedi.
 Hala non, deus egiñ gabe,
 Goan baitziren zoiñ bere alde.

Ikhusi dut nik kluba asko
 Egiten espantu franko,
 Obratzen aldiz gutisko:
 Ez kluba arratoiñezkoak
 Baiña zitoienezkoak,
 Baita yakintsunezkoak.
 Behar da deliberatu?
 Ezta falta kontseillari,
 Elhe eta haro ausarki.
 Behar da obrara pasatu?
 Ez daiteke nehor aurki,
 Larrua da maithiegi.



ASTO KARDOZ KARGATUA, ETA ASTO GATZEZ KARGATUA

Asto-zaiñ bat behiñ zetro bat eskuan,
Ale enperadore romano, zioan
Beharri luze-dun bi abre aitzinean.

Bat, kardoa zaramala,
Ariñ bazioan kurrier bat bezala,
Bertzea, karga arrolzez iduri zuela
Ardura othoitztu behar zen
Lagunari zarrion:
(Asto zaiñaren othoitzza
Ezta luzea, ez gaitza)
Urhatsa haiñ nagi zuen,
Kargatzat gatza baitzuen.

Gure pelegriñ harroak
Iraganik mendi, bide, eta haranak,
Arribatu ziren azkenean horla,

Ibaso baten hegira,
Asto-zaiñak zoiña, toki hartan bertan,
Asko bertze helantzetan,
Galtzak altxaturik baitzuen iragan.

Astoak baratzen dire
Net enbrazatuak urari begira.
Asto-zaiñak dio han kardodunari

Bizkarrera egiten yauzi:
Bertzea yoiten duela
Bere aitzinean urera,
Hau nahi izan baitzen
Bere buruz yokatu,
Tulubi batean zen
Ustekabetan sarthu:
Baiña bihurtu zen laster ur gainera,
Eta zilhotik athera:
Ezen igerika zebillan denboran,
Gatz guzia bizkarrean
Urthu zitzaion haiñ ongi,

Non sorbaldetan deus ez baitzuen senti.

Hunek bezala egiñ hemen
Konpai kardodunak nahi izan zuen,
Eta zikiroa iduri,
Lehen goanari yarraiki.
Horra astoa enbrazatua

Lepoaz-gorago urean sartua
Kardoz eta gidaz betan kargatua:

Hirur gauzak igerika
Uretik edaten zoiñ gehiagoka,
Kardoa, astoa eta giza.
Kardoa egin zen hain pisu,
Eta urez haiñ zen hanpatu,
Non borriko eziñdua,
Bere kargaz gainditua,
Hegira ezin baitzen heldu.

Giza bi besoez zagokon lothua,
Biziaz ordutik arras etsitua:
Baiña laguntzera norbait yin zitzaien:
Guti duke inport yakitea nor zen;
Biz aski dadiñ yakiña.

Bertzek egiten dutena,
Bethi eztela egiteko,
Ez bada antzara, edo bedere zikiro,
Hori nuen errateko.



AXERIA ETA INDI-OILLASKOAK

Indi-oillasko multzo bat
 Zuhaitz baten adarrerat
 Bethi zioazkon hegaldaka itzuri
 Axeri gosetu bati:
 Handik beira zagozkola,
 Zitadela segur batetik bezala,
 Hartaz trufatzen zirela.
 Ez zitzaion sobera eder
 Biaia guziak alfer,
 Ikhustea bethi, hark bere burua
 Hetaz mistifikatua.
 Zer bada! ziotzan harrek
 Oillasko nini horiek
 Bethi naute yokaturen
 Eta lege komunari
 Nigota horiek xoilki
 Zaizko bethi itzuriren!
 Ez hargatik, diabruen den!
 Errana konplitu zuen.
 Illargia orduan baitzen xuri-xuri,
 Maistroaren kontra bazuen iduri
 Piruak lagundu zituela nahi.
 Bainan hura ez baitzen apendiz lanean
 Toki setiatzekoan,
 Amarru tzar hau ordutik
 Athera zuen zakutik.
 Alegia nahi zuhaitzerat igan,
 Yauzten zaio abiaduran,
 Eta dagokio laur atzez yosia;
 Handik lurrera eroria,
 Egiten du hillarena,
 Fite errepitezuarena.
 Arliñek nihoiz eztu
 Haiñbertze deustu, ez yusta egiñ izatu:
 Orai kokoriko uzkia lurrean,

Uzkiz gora gero zangoak airean,
 Buztana darabilkala
 Abeniko bat bezala:
 Eta bertze ehun dosteta,
 Zoiñeri begira zitho malurusek
 Aspaldi logaletuek,
 Ez baitzezaketn lokumarik dasta.
 Etsaiak idukiz hekien begiak
 Toki bat berera bethi iraziak,
 Haiñ zituen unha-razi
 Logalez tontotuak
 Eta lotsaz zoratuak
 Haiñbertze lillura-razi:
 Bederazka erortzen non baitziren hasi.
 Brigantak eror-ahala
 Bazematzan bazterrera,
 Goratzeko despentsara
 Hobeki lana etzoaken,
 Erdiak bederen erori baitziren.

Lanyera gogoan sobera egoitea,
 Ezta hoberen moldea
 Hartarik eskapatzeko;
 Aitzitik hobekiago
 Hartan arras erortzeko.
 Eta laket du fortunak
 Laguntzen animodunak.



GATHUA ETA BI GARRAIOAK

Gathu bat adiñez berdiñ
 Garraio gazte batekiñ,
 Haren hurbillean zuten aloyitu,
 Zuenaz gerostik sehaska kitatu:
 Kaiola otharretik net hurbill zagoen,
 Biek bethitikan laratz bera zuten.
 Xoria zitzaion hari kaik bethi
 Tentan gathu maltsoari:
 Hark mokoia yoko hortan,
 Hunek pattak zarabilzkan:
 Baiña halere etzioen,
 Batere miñik egiten;
 Haiñitz zioen barkhatzen.
 Are bazukeien eskrupula handi
 Ematea punttak bere palotari.
 Xoriak, burxoroago,
 Moko-kolpe zemon asko
 Maistroa nola zen persona prudenta
 Eskusatzen zion dosteta inprudenta:
 Adiskide artean etzaio iñoiz ere
 Kolera itsuari behar eman bide.
 Nola biek elkhar haur danik baitzuten
 Den ongiena ezagutzen,
 Bezauzkan bakhean ohitza luzeak:
 Ziñetara iñoiz ez zoazen dostetak.
 Noiz eta ere egun batez,
 Ondikoz hala beharrez,
 Hauzo hurbilleko garraiotarik bat
 Yin baitzitzaioten bisita egiterat.
 Eta egiñ ere bai fite
 Pierrot gaixtginaren,
 Eta manun zuhurraren
 Dostetako lagun trebe.
 Bi xoriek liskar hor altxatzen dute:
 Manun ere ez dago nutre.

Arrotz hunen zer freskura!
 Diotza, ethortzea horla
 Pierroten laidatzera!
 Hauzoko xoria zaiku beraz yinen,
 Eta gure du yanen!
 Ez hargatik hori, gathu guzien den!
 Eta sarthurik guduan,
 Arrotza iretsten du bertan.
 Mafual derra ihiztariak,
 Sekula ez nuen erranen
 Garraio grosier hoién
 Gostua hain ona zuela yakiak!
 Pentsamendu hori egitearekin
 Bertzea iretsten du plazer handirekiñ.
 Zer moral athera fabletto huntarik?
 Fableak ez duke xede hori baizik:
 Eta deus eztu balio
 Baldiñ deus ez badarraio.

Bada guri hunek irakatsten dauku
 Gormantari zeren ezte la fidatu:
 Bere zintzurraren esklaboa denak,
 Iretsten tuela laster ontasanak,
 Bereak eta bertzenak,
 Bai bere haurrenak ere,
 Baita andrearenak ere,
 Ahal badu niholere;
 Damak ere yaunarenak
 Beite izan den gizenenak,
 Giltza non ez daukan yaunak:
 Halere ezte zeren fidatu sobera,
 Non ez luken eman giltzapean bera.
 Horla da askotan gerthatzen,
 Urus bizi zaitekena,
 Yaiuo ohe goxoan zena,
 Lastoan baita akabatzen.



GIZONA ETA ZUREZKO IDOLA

Yentill batek bazadukan
 Zurezko yainko bat maitheki etxean:
 Yainko gor diren hetarik
 Beharri-dun direlarik.
 Pagano harrek halere
 Hanitz haren baithan bazuen sinhetsten.
 Deusik etzen haren-ganik
 Esperatzen ez zuenik;
 Gostatzen zitzaion ere
 Betze laur bezanbat aise.
 Harentzat botu, ofrendak
 Eta sakrifizoak,
 Idi xingolatuzkoak
 Ziren nihon ez zirenak;
 Nihoiz nihon idolarik
 Mahaiñ hain nasayk izatu zuenik:
 Debozino horren-gatik
 Yabeari deus ez zathorkiolarik,
 Ez zorion, ez ontasun,
 Tresor, edo ondokotasun;
 Yokoan ere ez fortuna,
 Ez faborerik mendrena.
 Gehiago oraino, baldiñ bazen nonbait
 Tenpest edo harri formatzen nolazpait,
 Segur hartarik partea,
 Eta boltsa gutitzea,
 Zurezko Yainkoak bethi zaramala
 Bere pitantza ber-bera.
 Azkenekotz bada, koleran sarthuri
 Ez billtzeaz nihoiz haren-ganik deusik,
 Athelaga dautzu hartzen;
 Idola zathitan ukhaldika ezartzen:
 Eta urrez bethea aurkitzen.
 Hari nintzenean on egiten hiri,
 Egiñ derautaka, dio, xaiñdez niri

Konado batenik xoilki?
 Hoa! nere egoitzatik yalgi hadi bertan;
 Billha-zkik oraitik omaiak bertzetan:
 Izan behar haiz segurki
 Yende torpe, groser, tonto hek iduri
 Athera zoiñtarik ez baidaite deusik
 Makillaren bidez baizik.
 Zenbat baihindudan nik bethetzenago,
 Hanbat naduzkaken eskuak hutsago:
 Xaindatzea tonuz
 Egiñ diat buruz.



AXERIA ETA GIZA-ITXURA

Handiak hurren guziak
 Dire theatreko maskak iduriak.
 Yende aphaltak bethiere,
 Sentsuek baidabilzkate,
 Hekien kanpoaz hartuak daude aise.
 Astoak ez ditu gaizoak yuiatzen,
 Ageri denetik baizen:
 Axeriak aldiz bethi
 Ditu begizatzen funtski,
 Alde orotarik behatuz arthoski.
 Eta ohartzen den pontutik,
 Hetan eztela deus itxura ona baizik,
 Hetaz baderra trinkilki
 Lehen behiñ apreposki
 Iragan baten portretak,
 Omen, gerlari batnak,
 Zioena erran-arazi.
 Giza-itxura bat zen gerriraiñokoa,
 Metal edo zurezkoa,
 Eta barnean hutskoa,
 Naturalak baiño handiagokoa.
 Axeriak beraz laudatzen zuela
 Net egillearen obra:
 «Zer buru ederra, dio,
 Fuiñez bethea balago!»
 Eta zenbat yaun handiri
 Ez loakoketen konplimendu hori!

ARTZAINA ETA ERREGEA

Bi diabruk gure bizia daukate partitua,
 Bere thronutikan ere zentzua kasatua:
 Ez ahal da bihotz hagitz guti baizik
 Tributa pagatzen her ez diotenik.
 Heien puxantza eta izena galdetzen badauztatzu,
 Handi-nahia, lamurra deitzen ohi ditugu.
 Lehenaren erresuma urrunago dioa,
 Amodioan berean hark baitu nausikoa.
 Hau aise erakuts niro nik;
 Baiña eztut bertze xederik
 Hemen erratea baizik
 Printze batek behiñ nola
 Eraman zuen gorthera
 Artzaiñ bat haran battik.
 Derradan istorioa.
 Arbaso zenduen da denborakoa,
 Eta ez gure mendekoa.
 Ikhusirik erregeak
 Arthalde eder batez estaliak landak;
 Alhan zaudezen ardiak
 Gorphutzez yori guziak;
 Artzaiñaren arthen bidez
 Zakhortzela urthe guziez
 Yabeari suma ederrak:
 Artzaiña erregeri aditze ona-gatik
 Guziz agradatu zitzaion ordutik.
 Meredi duk, derra, hik bertze artzaikorik:
 Zikiro hoiek utzirik,
 Athor nerekiñ gorthera
 Gizon-artzaiñ izaitera;
 Egiten haut yuie soberano bertan.
 Horra gure artzaiña balentzak eskutan;
 Nahiz etzuen garabik
 Artzaiñ hark egundaiñotik
 Ikhusi gauza bertzerik,



Bere arthaldea, kaikoa,
 Bere zakurra eta otsoa
 Eta ermitaiño bat baizik.
 Bazuen kaskoan seso;
 Gaitia badathor gero.
 Funtsean ontsa athera zen.
 Ermitaua nola lehen hauzo zuen;
 Erratera ethorri hula zitzaioen:
 Atzarria othe naiz, ala ametsetan ni?
 Zer! zu gortheko, zu handi!
 Ez fida, othoi, printzeeri:
 Lerrakor da bethi heien faborea;
 Trunpakor ere bai her eman fedea;
 Areago dena oraiño,
 Gostatzen
 Baita kario:
 Enganio hoier ezen
 Ez darraie nihoiz gaitz handirik baizen.
 Eztuzu ikhusten xarma
 Lilluratzen zaituena:
 Adiskide gisa ni mintzo natzaitzu;
 Oro beldurtzeko tutzu.
 Gizak hirri baizen egiten ez dio.
 Ermitauak aldiz aitzina baderro:
 Zure zentzua ikhus azu
 Nola dautzun yadan gorthreak gutitu.
 Diduritzait hemen ikhusten dudala,
 Itsu titxakabe hura,
 Zoiñak bidaiari batean
 Baitzuen aurkitu zatzala bidean
 Suge hotzak gogortu bat;
 Hartu zuen azotetzat:
 Berea galdu baitzuen
 Gerritik erori nola zitzaioen.
 Eskerka zagokon titxaz zeruari:
 Bideante batek noiz ota berari
 Oyhuz baitzioen erran: o gizona!
 Zer da eskuan dakhartzuna?
 Aurtik-azu arren fite

Animalia traidore
 Eta gaitz-emaille hori;
 Sinhesten ahal nauzu ni.
 Suge hori, diot, bada!
 —Azotza da hau: —Ez, ez sugea da:
 Zer intres duket bada nik
 Erraiteko orai gezurrik
 Nagola haiñ khexaturik?
 Tresor hori iduki nahi duzu, ala ez?
 —Baina funtsean, nolaz ez?
 Nere azotea tzartu zen;
 Net on bat dut edireiten!
 Etzark zu mintzo yelosiaz baizik.
 Eta etzion egiñ batere kasurik:
 Halaber bizia laster galdu zuen;
 Atzartu bipera baitzen;
 Eta ausiki miñki besotik baitzuen.
 Zutaz daitekenaz aldiz,
 Erratera atrebitzen naiz,
 Bazaitzula arribatuko,
 Are zerbait gaitzoago.
 Ah! heriotzea eztzada
 Zer dakiket niri gertha?
 Atsekabe milla zaizkitzu yauntsiren
 Ermitau profetak bada erran zioen.
 Ethorri zitzaizkon ere:
 Ermitaiñoa etzen trunpatu batere.
 Gortheko izurri diren,
 Milla amarru gorde han darabilzkatzen
 Yende tzar batzuek, haiñ ontsa egiten zuten;
 Yuiearen yustizia
 Eta hunen merezia,
 Non printze onegiari,
 Elhe tzarrez uspitxgarri,
 Hek egiñ baitziotzaten.
 Banderiza da formatzen,
 Eraikiten laster lekhuko faltsoak,
 Harrek bere arrastez zaurthurikakoak.
 Horra non, derrate, gure ontasunekiñ



Yuie horrek duen yauregi bat egiñ.
 Erregek nahi izan zuen,
 Izantzak ikhusi zoiñ handiak ziren.
 Orotan eztu ikhusten
 Fortuna arteko bat baizen;
 Desertua laudatua,
 Pobrezia prezatua
 Horiak dire nausiak
 Ikhusten dituen manifizentziak.
 Baderrate orduan: bertze amarru bat du,
 Maltzur horrek pratikatu.
 Horren tresor handia oro,
 Diamante eta perla fiñenetan dago:
 Hor dauka kutxa bat inobre handia,
 Hetaz mukuru gaiñdia
 Hamar sarraillez hetsia.
 Berak arka ideki zuen:
 Eta net estonituak,
 Eta ahalkez gaiñdituak
 Bere etsai atrebituak
 Ederki utzi zituen.
 Kutxa zenean zabaldu
 Han etzen deusik agertu
 Zarpilleriarik baizen;
 Artzai-kapusailla han zen,
 Gapelu bat ere bazen,
 Yaketa, dibeziera,
 Kaltzoiñak eta zimitza
 Bastoia eta, naski xirola han ziren.
 Oy! nere tresor gozoak,
 Bahi zorionezkoak,
 Ez yelosia kruelik,
 Ez traidorekeriarik
 Zuen gaiñera iñoiz ez deithu izanak!
 Zathozte, dio, zathozte,
 Nere onak zuek zarete:
 Yauregi brillant hautarik
 Yalgi gaiten oraikotik,
 Hala-nola amets batetik.

Errege yauna, barkhatu,
 Baldiñ baiñ samiñki banaiz ni mintzatu:
 Aitziñetik usnaz yoa
 Naukan nere erorikoa,
 Nintzenean zoratua
 Kolpez haiñ gora altxatua.
 Sobera zait han laketu:
 Baña, yauna, badakizu
 Eztela nehor munduan
 Bruma aphurño bat ez duenik buruan.



ARTZAIÑA ETA LEHOINA

Artzaiñ batek arratsean
 Bere ardiak kondatzean,
 Aurkitu zuen kontua
 Goizaz geroz makurtua,
 Arthaldea gutitua.
 Nahi izan zuen egin alegiña
 Atzimateko larroiña.
 Lurpe batera badoa
 Hara sartzeko zilhoa
 Otso-arte du ereiten
 Haukien arraza baitzuen suspitxten.
 Nihaur hemen nagoela,
 Eta atsegiñ horren gozoa dudala
 Derra, o Yainkoen nausia!
 Baldiñ nere ohoiñ handia
 Arte hoietan sar-arazten baduzu;
 Hogoi aratxetan nahi dut hautatu
 Gizenena, eta hau zuretzat goardatu.
 Hunen hitz horietarat
 Yauzten da bertan kanporat
 Lehoiñ larrita hazkar bat:
 Kukuilltzen da artzaiña biri-biribilla
 Eta baderra erdi hilla:
 Ala giza iñulak ez baidaki hanbat
 Zer galde adreza zerurat!
 Nahiz atzeman larroiña
 Arthalde maithea bakhantzen dautana;
 Eta hura laze hautan
 Harturik ikhustekotan,
 Agindu dautzut, o Yainkoen nausia!
 Aratxe bat net yoria;
 Orai bada bertze alderat,
 Nahi baduzu zuk egiñ
 Ni-ganik urrun goan dadiñ,
 Agintzen dautzut idi bat.

LEHOINA ETA IHIZTARIA

Gizonki fanfarrun ihikikoi bati
 Hill baitzitzaion berriki
 Zakur arraza oneko bat,
 Zoiña, ziñez baitzadukan
 Lehoiñ baten sabelean
 Zela gan aloyitzerat:
 Artzaiñ bat ikhusi zuen:
 Erakuts zadazu arren
 Diotzo, nere ohoiñaren
 Etxea nontsu othe den;
 Dukedan orai beretik
 Arrazoiña haren-ganik.
 Artzaiñak baderra bada:
 Mendi horren aldera da:
 Illean pagatzen xuxen diodala
 Zikiro baten grabela,
 Kanpaiña guzian libre
 Gogara ni banabilke,
 Eta trankill banagoke
 Horla zaudela hitzketa,
 Lehoiña hor yalgiten da:
 Fanfarruna laster gordetzera dago:
 O Yupiter oyhuz dio:
 Erakuts zadazu ihes-lekhu zenbait
 Eskapa nadiñ nolazpait.

 Kuraia egiazkoa ezta ohi frogatzen,
 Erhiezk unkitzen den, lanyerean baizen:
 Hulako bazabillan, lanyeraren billha,
 Berak ezen zerran hala;
 Zoiña, bertzerik derralá,
 Ikhusi dueneko, ziñez dathorrela,
 Ihesari baitzaio lotzen berehala.



OTSOA HAUZITAN AXERIAREKIN XIMINOAREN AITZINEAN

Otso batek zerran noizbait
 Ziotela ebatsi zerbait:
 Axeri bat hauzokoa
 Aski biz gaitzokoa,
 Laster zuen akusatu,
 Eta yuietara deithu:
 Ximinoa emanik yuie
 Pletiatu ziren luze:
 Ez abokaten mihiaz
 Baiña bakotxa bereaz
 Nihoiz ximino orhoitean
 Nihongo tribunaletan,
 Etzen agertu garabik
 Kausa nahasiagorik,
 Yuiatzeko gaitzagorik:
 Yuiea bere foteillan
 Zagon izerdi-phantsetan.
 Pletiak luzaro zirenean egin
 Elhe eta haro askorekiñ;
 Yaun yuieak baitzakien
 Biak zoiñ gatztoak ziren,
 Maitheak, derroie, duela ya aspaldi,
 Nik ongi badakit zuen bien berri:
 Horren-gatik, biek baduzue hemen
 Yustu den amanda berdiñ pagaturen.
 Hi ezen, otsoa, haiz errenkuratzen
 Hartu deus ez zaiken arren.
 Aldiz, axeria, hik duk eramana
 Hemen galdetzen zaikena.

Yuieari hemen ziduritzon naski,
 Yuiaturik ere, kasik nola-nahi,
 Kondenatzean bandit bat,
 Tronpa ez daitekela hanbat.

LIBURU SEIGARREN ETA AZKENAREN AKABANTZA